

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAKO GRADUA

EKONOMIA ETA ENPRESEN FAKULTATEA

GIPUZKOAKO ATALA

2019-2020 ikasturtea

Gradu amaierako lana

ZILAR EKONOMIA: ETORKIZUNEKO EKONOMIA

Egilea: Idurre Gaztelu Gandarillas

Zuzendaria: Erlantz Allur

2020



## AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	7
1.1. Helburuak .....	8
1.2. Lanaren egitura.....	9
1.3. Metodologia .....	10
2. Gizartearen zahartzea.....	11
2.1. “Adineko pertsona” hitzaren definizioak .....	12
2.2. Gizartearen zahartze prozesua eta demografiaren bilakaera .....	13
2.2.1. Zahartzearen analisiaren garrantzia .....	13
2.2.2. Zahartze demografikoa.....	14
2.2.3. Gizartearen zahartze prozesua .....	15
2.2.4. Gizartearen zahartzearen sorburuak .....	19
2.2.5. Kontrola daiteke zahartze demografikoa?.....	23
2.3. Adineko pertsonen eragina ekonomian eta gizartean .....	26
2.3.1. Adineko pertsonen ekarpena: Kontzeptu okerra .....	26
2.3.2. Eragina ekonomian .....	27
2.3.2.1. Lan ez ordaindua .....	27
2.3.2.2. Kontsumoa eta eros-ahalmena .....	30
2.3.3. Eragina gizartean .....	43
2.3.3.1. Eragin soziala .....	44
3. Zilar ekonomia: etorkizuneko ekonomia .....	47
3.1. Zilar ekonomia: Kontzeptu hertsia.....	49
3.2. Zilar ekonomiaren kontzeptu baliokideak .....	53
3.3. Zahartze aktiboa eta osasungarria.....	54
3.4. Zergatik apustu egin adineko pertsonengatik? .....	60
3.5. Zilar ekonomia gehien aprobeitza dezaketen sektoreak .....	64

3.6. Gipuzkoa erreferente bezala: Etorkizuna eraikiz .....	66
4. Zilar ekonomia: 50 urtetik gorakoak ekintzaile bezala .....	72
4.1. Global Entrepreneurship Monitor .....	73
4.1.1. Senior eta adinekoen ekintzailtza .....	75
4.2. Ekintzailtza sustatzen duten motibazioak eta faktoreak .....	83
4.3. Ekintzailtzan eragina duten oztopoak.....	87
4.4. Zer da ekintzaileek behar dutena? .....	91
5. Zilar ekonomia gertuagotik .....	93
6. Ondorioak .....	99
7. Bibliografia .....	104
8. Eranskina .....	111

## **ADIERAZPEN GRAFIKOEN AURKIBIDEA**

Grafikoa 1. Biztanleria piramidearen adibidea, 1995. urtekoa .....	14
Grafikoa 2. Espainiako populazio piramidea, 1971. urtean.....	20
Grafikoa 3. Espainiako populazio piramidea, 2019. urtean.....	20

## **TAULEN AURKIBIDEA**

Taula 1. Erretiro pentsioen gutxieneko zenbatekoak.....	33
Taula 2. Alarguntza pentsioen gutxieneko zenbatekoak.....	34
Taula 3. GEM txostenaren pertsonen definizioa adin tartearen arabera .....	75
Taula 4. Enpresa-asmoak pertsonen artean, adinaren eta generoaren arabera .....	79
Taula 5. Jarduera ekintzailea etapa goiztiarrean, adinaren eta generoaren arabera .....	80
Taula 6. Negozio bat hasteko arrazoia, adinaren eta sexuaren arabera.....	81
Taula 7. Hasierako etaparako ekintzaileen finantzazio-iturriak, adinaren arabera .....	81

## **MAPEN AURKIBIDEA**

Mapa 1. 60 urtetik gorako pertsonen proportzioa, herrialdeko, 2015ean .....	18
Mapa 2. 60 urtetik gorako pertsonen proportzioa, herrialdeko, 2050ean .....	19



## 1. Sarrera

Gizartea demografikoki aldatzen hari da, urteak pasa ahala gizarte gero eta zaharkituago batean biziko gara. Izan ere, gaur egun eta historian lehenengo aldiz, gizartearen gehiengoak lor dezake 60 urte baino gehiago bizitzea. Estimazioen arabera, 2060 urtean Europar Batasunean 60 urtetik gorakoek populazioaren %40a islatuko dute. Honek gizartearentzat eta baita pertsonalki, izugarrizko ondorioak edukiko ditu. Ondoren aipatuko dudan bezala, aukerak eskaintzeaz gain, gure bizitzeko era aldatu dezake, baita gure helburuak eta beste pertsonekin erlazionatzeko gaur egun daukagun modua ere.

Zahartzea azken urte hauetan kontzeptu negatibotzat eduki dugu, hau da, eragozpen bat izango balitz bezala kontsideratu da beti gizartean. Baina, zilar ekonomiak erakutsiko du oraintxe aipatutako ez dela zuzena eta zahartzeak nahiz eta hainbat erronka suposatu, hainbat aukera ekarriko dituela, eta ondo gidatzen bada izugarri aberastu dezakeela edozein enpresa edota orokorrean, edozein udalerrri. Honen ondorioz, ekonomia zeharo aldatuko da, ekonomia berri batean bilakatuko den arte, zilar ekonomian hain zuzen ere.

Kontsumitzaileak aldatu egingo dira, gehienak 55 urte baino gehiago edukiko dituzte eta hauek eskatuko dituzten produktu eta zerbitzuak izango dira lehentasuna. Honen aurrean, enpresak eta administrazio publikoak ere aldaketak egin beharko dituzte, erronkei aurre egiteko eta haien biziraupena ziurtatzeko, hau enpresen kasua izanik.

Lehen esan bezala produktu eta zerbitzu berriak sortu beharko dira eta kasu honetan, osasunaren eta teknologiaren sektoreak dira aukera gehien izango dituztenak eta gehien aprobetxa dezaketenak aukera berri hau. Hala ere, aukera ugari izateaz gain, hainbat erronkei ere aurre egin behar izango diote lehenago aipatu bezala.

Aukerei buruz zerbait aipatzekotan, merkatuko nitxo berriak aipa ditzakegu, 55 urte baino gehiago dituzten pertsonetan zentratuko diren produktu eta zerbitzuak eskaintzen dituzten nitxoak izango dira. Honen inguruan, hainbat enpresa jada hasi dira haien kabuz aukera handi honetan leku baten bila.

Enpresentzako aukera bat izateaz gain, 55 urtetik gorako pertsonentzat ere aukera bat izan daiteke. Izan ere, adineko pertsonak duten esperientziagatik

eta gaitasunengatik, ekintzaile izan daitezke enpresa berriak irekiz edota ekimen desberdinak martxan jarritz. Lanean aztertuko den bezala, zilar ekonomiak barne hartzen du ekintzailtza.

Esan beharra dago gainera, zilar ekonomia aztertzeak izugarrizko garrantzia daukala, izan ere, Europako Batzordeak bere lehentasun garrantzitsuenetariko bat bezala kontsideratu du Zilar Ekonomiaren garapena.

Sarrerarekin bukatzeko esan gai hau aukeratzearen arrazoiak gaiak daukan garrantzia eta mundu osoan edukiko duen eragina direla. Unibertsitateko GAUR web orrian zeuden gai desberdin guztietatik argi eduki nuen lehenengo momentutik gizartearen zahartzearekin erlazionatuta zeuden bi gaietatik horietako bat garatzea gustatuko litzaidakeela. Gainera, gaian gero eta gehiago murgiltzen joan naizen heinean, gaiak duen eragina eta oraindik gizartean dagoen kontzientzia eza aurrera garraitzeko motibazioa izan dira.

## **1.1. Helburuak**

Lanaren helburu nagusia zilar ekonomiak dakartzan aukera berriak identifikatzea da, zehazki, adineko pertsonak ekintzaile bezala eduki dezaketen papera ekonomia berri honetan.

Helburu horretara iritsi aurretik, hurrengo azpi helburu hauek aztertu eta azaldu behar dira:

Lehenik eta behin, gizartearen zahartzea prozesua kontzeptu bezala ezagutu nahi da. Izan ere, gero eta gizarte zaharkituago batean bizi gara eta ondorioz, gizartearen zahartzearen eboluzioa, eragingo dituen aldaketak eta edukiko duen inpaktua ezagutzea berebiziko garrantzia dauka. Zilar ekonomiara nola iritsi garen jakiteko.

Bestalde, adineko pertsonen buruz dagoen kontzeptu okerra alde batera utzi nahian, hauek bai ekonomian, bai gizartean duten pisua eta eragina zenbatekoa den aztertu nahi da. Benetako errealitatea zein den argi edukitzeko.

Bukatzeko, zilar ekonomia kontzeptu hertsia bezala ondo ezagutu nahi da. Lanaren helburuak dioten zilar ekonomia ulertzeko moduari ekin baino lehen garrantzitsua da kontzeptua ondo ulertzea. Izan ere, kontzeptu bezala nahiko berria da, ondorioz, berebiziko garrantzia dauka honen jatorria eta testuingurua



modu egoki batean azaltzea. Bide batez, argi utziz, Europa mailan Gipuzkoa, martxan dagoen proiektu batengatik, erreferente bat dela.

## **1.2. Lanaren egitura**

Helburu nagusira modu egoki eta ulergarri batean iritsi ahal izateko eta azpi helburuak ezagutu eta aztertzeke, lana 7 atal desberdinetan egituratuta dago.

Lehenengo atalean, lehenik eta behien lanaren gaia aurkezten da sarrera txiki batekin. Sarrerarekin batera, lanaren helburu eta azpi helburuak zeintzuk diren azaldu dira. Honen ondoren, lana aurrera eraman ahal izateko eta lanaren bukaeran dauden ondorio horietara iritsi ahal izateko erabilitako metodologia azaltzen da.

Bigarren atalean, gizartearen zahartzearen analisi bat egin da modu orokor batean. Adineko pertsona hitza definitu ondoren, gizarteak pairatutako eta gaur egun pairatzen ari den zahartze prozesua azaltzen da. Bertan, gaur egungo egoera nola iritsi garen eta horren zergatiak aztertzen dira modu sakon batean. Gainera, gizartearen zahartzearen mugak edo kontrolagarritasuna zalantzan jartzen da. Esan beharra dago, nahiz eta aurrean aipatutako azterketa modu orokor batean egin nahi izan, hainbat kontzeptu edo gertaera hobeto ulertarazteko asmoarekin Espainia mailako adibideak erabili direla, adibide bat jartzekotan, populazio piramidea.

Honekin batera, adineko pertsonen eragina aztertzen da, bai gizartean eta bai ekonomian. Atal honek adinekoek egiten dituzten ekarpenez gain, haiei buruz dauden kontzeptu okerretatik urruntzen gaituzte.

Hirugarren atalean zilar ekonomian zentratzen gara, baina zentzu hertsian. Izan ere, atal honetan zilar ekonomia kontzeptu teoriko bezala aztertu nahi da, zilar ekonomia ulertzeko bide hau argi uzteko helburuarekin.

Bertan, aurrean aipatutakoa azaltzeaz gain, adineko pertsonengatik apustu egitearen arrazoiak azaltzen dira, baita zeintzuk diren egoera gehien aprobeatza dezaketen sektoreak aurkezten dira ere. Bukatzeko gainera, Gipuzkoa erreferente bilakatu dela azaldu nahi da, Etorbizuna Eraikiz proiektuaren eraginez.

Laugarren atalean eta lanari amaiera emateko, zilar ekonomia ulertzeko beste bidea aurkeztu eta azaltzen da, adineko pertsonen ekintzailtza, lanaren muina hain zuzen ere. Adinekoen motibazioak eta oztopoak ezagutuko ditugu ekintzaile izateko momentuan eta bide batez, benetan ekintzaile izatera iristeko adinekoentzat beharrezko zer den galderari erantzuna emango diogu.

Bosgarren atalean eta zilar ekonomia gertuagotik ezagutu ahal izateko, mundu zabal honetan guztiz barneratu dagoen pertsona bati egingo zaio elkarrizketa. Horrela atal teorikoetatik urrunduko gara eta esperientziara hurbildu.

Seigarren atalean, lana bukatu ondoren bertatik ateratako ondorio nagusiak adierazi dira.

Azkenik, zazpigarren eta zortzigarren ataletan, lana aurrera eraman ahal izateko erabilitako informazio iturriak erakusten dira eta egindako elkarrizketaren galdera eta erantzunak islatzen dira.

### **1.3. Metodologia**

Metodologiari dagokionez, lana hein handi batean bilaketa bibliografikoan oinarritzen da. Informazio iturri desberdinak erabili dira gai bakoitza ahalik eta ondoen azaltzeko eta irudikatzeko asmoarekin. Iturriak hala nola, nazioarteko erakundeen txostenak eta autore ospetsuen azterketak, ikerketak eta liburuak izan dira. Hala ere, ez dira alde batera utzi web orriak edota aldizkariak. Gai dela eta, garrantzitsua iruditu zitzaidan autore desberdinen ikuspuntua irudikatzea, gaiaren zabalera ulertzeko. Iturri teorikoez gain, datu baseak ere baliagarriak izan dira baieztapen teoriko horiek grafikoetan irudikatu eta hobeto ulertu ahal izateko, hala nola, Espainiako Estatistika Institutuko datu baseak erabili dira.

Informazioari dagokionez, esan zorte handia izan dudala informazio ugari dagoelako gaiaren inguruan. Ondorioz, lan eta txosten desberdinak erabili behar izan dira gaiaren muinean zentratu ahal izateko. Aipatu nahiko nuke nire Zuzendari lanetan aritu den irakasleak berriki Gipuzkoako Foru Aldundiari aurkeztutako ikerketa-proiektuko planteamendua oso baliagarri izan zaidala, bai informazio aldetik lanean barneratu ahal izan dudalako eta baita lana hobeto finkatzeko eta nondik norakoak ulertzeko baliagarria izan zaidalako ere.

Lanaren amaieran atal teorikotik urrunduz eta errealitatera hurbiltzeko asmoarekin, 50 urtetik gorako eta zilar ekonomian murgildutako pertsona bati egin zaio elkarrizketa. Lehenik eta behin telefonoz hitz egin genuen gaiari buruz hitz egiteko asmoz. Bere proposamena ondorengoa izan zen, galderak idatziz bidaltzea, horrela berak behar zuen denbora hartuko zuen galdera bakoitza modu egokian erantzun ahal izateko. Erantzunak jaso nituenean, lanari ekin nion. Esan elkarrizketa oso baliagarria izan zaidala, bai lana osatze aldetik, baina baita gai honen inguruan ez nekizkien gauza dezente ikasteko ere.

## **2. Gizartearen zahartzea**

Gizartearen zahartzea ulertzeko zahartzea zer den jakin beharra dago lehenik eta behin. Zahartzea osatzen duten eta bere gain eragiten duten aldaketak konplexuak dira. Ikuspegi biologiko batetik, zahartzea kalte molekular eta zelularren pilaketa handi batekin lotuta dago. Denborarekin, aipatutako kalte hauek gradualki erreserba fisiologikoak murriztu, hainbat gaixotasun areagotu eta orokorrean banakakoaren gaitasunak gutxitu egiten dituzte. Epe luzera, heriotza dator.

Baina aipatutako aldaketa hauek ez dira ez linealak, ezta uniformeak ere ez eta banakako baten adinarekin soilik lotu egiten dira, urteak kontuan hartuz. Hau horrela izanda, 70 urteko banakako batek funtzionamendu fisiko eta mental egoki bat duen bitartean, adin bereko beste banakako batzuk, haien oinarrizko beharrak asetzeko laguntza handia behar izaten dute. Hein handi batean, aipatutakoaren arrazoietakoa bat da, zahartzearen mekanismo asko ausazkoak direla. Beste arrazoietakoa bat da, inguruneak eta banakakoaren portaerak aipatutako aldaketei nabarmen eragiten diela.

Galera biologikoez haratago, zahartzeak maiz beste arazo batzuk dakartza berarekin, rol eta gizarte mailaren aldaketa adibidez, baita harreman estuak galtzeari aurre egin behar izana ere.

Horrela, adineko pertsonak helburu eta aktibitate multzo txikiago baina garrantzitsuago batzuetan kontzentratu egiten dira. Helburuak eta lehentasunak aldatu egiten dira ere. Aldaketa batzuk galerari egokitzearen emaitza izan daitezke. (Organización mundial de la salud, 2015)

## 2.1. “Adineko pertsona” hitzaren definizioa

Iritzi publikoan, adineko pertsona baten irudia lausoa da, izan ere elkartu egiten dira adin, lan baldintza, osasun, jarrera eta bizitza estilo irizpideak. Ekonomia konbentzionalean dauden lanik gabeko pertsona guztiak ez dira adineko pertsonak izan behar, nahiz eta, 65 urtetik gorako pertsona guztiak ez aktiboak izan.

Adineko pertsonen giza eskubideei buruzko batzar Interamerikarrak definitzen du bere 2.artikuluari, “adineko pertsona” 60 urte edo gehiago dituen gizabanakoa dela, barne legeak oinarri adin handiago edo txikiago bat mugatu ezean. Beti ere, oinarri adin hori ezingo da 65 urtetik gorakoa izan.

Adineko pertsona bati buruz hitz egiteko erabiltzen diren ohiko hitzak hurrengo hauek izaten dira eta gizartean barneratuak daude jada, hala nola, adindua, zaharra, hirugarren adinekoa, heldua, nagusia eta senila.

“Adineko” hitzaren anbiguetateak edo bere erabileraren muga lausoak, agerian jarri ziren 2010ean adineko pertsonen inguruan Imserso<sup>1</sup>-k egindako inkesta batean, noski inkestatuak 65 urtetik gorako pertsonak izan ziren.

Elkarrizketatuen herena baino gehiagoren iritziz adineko pertsona bat izatea ez du zer ikusirik adinarekin. %26aren iritzia arabera, pertsona bat adineko pertsona dela kontsidera dezakegu 75 urtetik aurrera eta %4ak muga jarri zuen 60 urtetik aurrera. %16ak soilik bat egin zuen estatistikek gehien erabiltzen duten definizioarekin eta erretiratzeko legalki finkatuta dagoen adinarekin, hau da, 65 urte. Adin aipatuena 70 urteak izan ziren. Aipagarria da, elkarrizketatuen adinak eta generoak ez zuela inongo desberdintasun adierazgarriarik sortu emaitzetan. (Durán, 2014)

Zahar hitza etimologikoki “adin jakin bateko” esan nahi du. Hitz horretatik eratorriak dira zahartzarria, zahartzea eta honen eratorriak: zaharkitua, zaharkitzea. Jatorri berdinetik datoz agure, atso eta zahartxo mespretxuzko

---

<sup>1</sup> Imserso (Instituto de mayores y Servicios sociales): Espainiako Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaileetako bat da. Gizarte Segurantzako Sistemaren prestazioen osagarri diren gizarte-zerbitzuak kudeatzeaz arduratzen da. Baita baliaezintasun- eta erretiro-pentsioez arduratzen da, kotizazio gabeko modalitateetan ere. Gainera, Estatuko Administrazio Orokorra adinekoen eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arloan dituen eskumenak gauzatzeaz arduratzen da. [http://www.imserso.es/imserso\\_01/index.htm](http://www.imserso.es/imserso_01/index.htm)

esamoldeak, gehienetan adineko pertsoneri buruz hitz egiteko erabili ohi direnak.

Hirugarren adina esamoldea, 20. mendeko bigarren zatian du jatorria. Frantzian agertzen da lehen aldiz, J. A. Huet medikuagatik sortua. Huet gerontologiaren aitzindaria da aipatutako herrialdean. Horrela izendatzen zituen produktibitate baxuko adin desberdineko pertsonak, jada erretiratuak zeudenak edo pentsiodunak zirenak. Aurrerago, bere erabilera mugatu egin zen 60 urte baino gehiago zituzten erretiratuak eta pentsiodunak izendatzeko. (Dabove, Fernández Oliva, & Nawojczyk, 2017)

## **2.2. Gizartearen zahartze prozesua eta demografiaren bilakaera**

Gizartearen zahartzea 21. mendean inpaktu gehien duen fenomeno soziala da. Ondorio garrantzitsu eta zabalak dauzka, zeintzuk gizartearen alderdi guztietara iristen diren. Ondorioz, gaur egun, fenomeno honen analisiak berebiziko garrantzia dauka ondoren ikusiko dugun moduan.

### **2.2.1. Zahartzearen analisiaren garrantzia**

Mundu mailan, segunduro bi pertsonak 60 urte betetzen dituzte, hau da, urtero ia 58 milioi pertsona iristen dira 60 urte edukitzera. (Fondo de Población de Naciones Unidas (UNFPA), 2012) 2015 eta 2050 urteen artean, 60 urteko biztanleria 900 milioi izatetik, 2000 milioi izatera iritsiko da. Honek igoera nabarmen bat islatzen du, %12tik %22ra, hain zuzen ere. Gizartearen zahartzea aurreko urteetan baino askoz ere azkarragoa da. Esandako guztiagatik, gizartearen zahartzea alde batera utzi ezin den fenomeno batean bilakatu da. (Organización mundial de la salud, 2020)

Aipatutako datuak komentatzearen, igoera esanguratsuago eta azkarragoa izango da herrialde garatuetan, zeintzuetan adineko biztanleria laukoiztu egingo den datozen 50 urteetan zehar. Lehenago esan bezala, horrelako eraldaketa demografiko batek ondorio sakonak ekarriko ditu bizitzaren alderdi bakoitzerako, gizateriaren alderdi guztiek (sozialak, ekonomikoak, politikoak, kulturalak, psikologikoak eta espiritualak ) eboluzio bat jasanez.

Aldi berean, adineko pertsonak baliabide baliotsuak eskaintzen dizkigute, gehienetan kontuan hartzen ez direnak eta kontribuzio garrantzitsu bat suposatzen dutenak gure gizartearen egiturarako. Kontuan hartuz gero, bai

gizartearen zahartzeak dakartzan erronkak, bai aukerak, arrakasta ziurtatua edukiko dugu zahartzen hari den mundu batean. (Alvarado García & Salazar Maya, 2014)


### 2.2.2. Zahartze demografikoa

Gizartearen zahartze prozesua aztertzen hasi baino lehen, garrantzitsua eta aberasgarria izango da zahartze demografikoa ondo ulertzea eta kontzeptuarekin dauden desadostasunak aipatzea. Izan ere, gaur egun gizarteak pairatzen hari duen zahartzeari, zahartze demografikoa deritzo.

Orokorrean zahartzea demografikoa adineko pertsonen portzentajearen igoera bat bezala definitzen da. Hala ere, egokiagoa da batz bestekoaren igoera erabiltzea adierazgarri bezala. Termino grafikoetan definituz gero, biztanleriaren piramideak bere oinarrian zabalera galtzen du, gailurrean zabalera lortzen duen bitartean. (Díaz, 1998)

Ondorengo grafikoa biztanleriaren piramidearen adibide bat da, zehazki Espainiako 1995. urteko populazio piramideak. Denborarekin grafiko hauek piramide itxura galduko dute eta aurrean aipatu bezala, beheko aldean ez dute ia zabalerrarik edukiko, bestalde zabalerrarik handiena goian ikusiko ahal izango dugu.

**Grafikoa 1. Biztanleriaren piramidearen adibidea, 1995. urtekoa**



Iturria: Egileak moldaturikoa, INE -ko datuetan oinarrituz, 2020.

Gaur egun kontzeptua jada ohiko bihurtu da, baina hasiera batean adituek, zehazki demografoek, kontzeptu honen sorrera larrutik ordaindu zuten, gaizki ulertu eta ulertezintasun eran. (Díaz, 1998)

Izan ere, demografia eta zahartzea haien artean bakartutako eremuak dirudite. Alde batetik, demografiak biztanleriarekin zerikusia dauka eta bestalde, zahartzea gizabanako bati gertatzen zaiona da, populazio dinamikek eta egitura demografikoek bertan esku hartu gabe. Hala ere, eskuarki esamolde bezala “zahartze demografikoa” erabiltzen da. Gainera, banakako zahartze prozesuak eta adin desberdineko ezaugarriek, prozesu demografikoen funtsezko osagaiak osatzen dituzte. (Díaz, 2006)

Errealitatean, “zahartzea” hitza populazio bati zuzentzea akats handia da. Lehenago esan bezala, orain dela asko jargoi demografikoan barneratu zuten eta orain demografian adituak dira hau ordaintzen hari direnak.

Pertsonak dira zahartzen direnak eta ez herrialde bateko populazioa, esan bezala, zahartzea prozesu biologiko bat da, gaur egun gertatzen den bezala, orain dela ehun mila urte ere gertatzen zena. (Díaz, 1998)

Hala ere, zahartze demografikoa eta gizartearen zahartze prozesua egun barneratuta daude gure gizartean eta horrela izendatzen dira edozein ikerketarako.

### **2.2.3. Gizartearen zahartze prozesua**

Gizartearen zahartzea munduko eskualde guztietan eta garapen maila desberdina duten herrialdetan gertatzen hari da. Lehenago aipatu den moduan, igoera azkarragoa ikusi daiteke garatutako herrialdeetan, populazio gazte nabarmena dutenetan barne. Gaur egun, 15 herrialde dira 10 milioi baino adineko pertsona gehiago dituztenak eta horietatik soilik 7 dira garatutako herrialdeak, esan nahi dena da, beste 8 herrialde horiek garapen bidean daudela. Zahartzea garapenaren garaipena da, bizitza luzeraren gehiagotzea humanitatearen lorpen handienetariko bat da. Gaur egun, pertsonak bizitza luzeagoak dituzte elikaduran eman diren hobekuntzengatik, medikuntzan egin diren aurrerapenengatik, egun dagoen heziketarik eta ekonomia ongizatearik. Mundu mailan, zehazki 2030 urtean 5 pertsonetatik 1, 65 urte baino gehiago edukiko ditu. (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2020) Aurrerago

aztertuko ditugu zeintzuk izan diren gizartearen zahartzearen zergatiak eta faktore argitzaileak islatuko dira.

Gaur egun jaiotzean daukagun bizi itxaropena, egoera arrunt batean, 80 urtetik gorakoa da munduko 33 herrialdeetan. Hau gertatu baino 5 urte lehenago, soilik 19 ziren aipatutako datuetara iristen zirenak herrialdeak.

Datozen urteetan seguruena da pertsona gehienek haien laurogeigarren, laurogeita hamargarren eta behar bada, ehungarren urteak ospatzea. Egun soilik Japoniak dauka adineko pertsonen populazioa guztizkoaren %30 baino altuagoa. Aurreikusten da, 2050 urterako 64 herrialdea gehituko direla Japoniarekin bat egitera. Trantsizio demografiko honek eskaintzen dituen aukerak oso zabalak dira, adineko pertsonen osatutako populazio batek gizarteari egin diezaiokeen ekarpenak bezala, beti ere, populazio horrek aktibitate sozial eta ekonomikoa badu, segurtasun baldintzetan bizi bada eta osasuntsu baldin badaude.

Gizartearen zahartzeak bere gain ere erronka sozialak, ekonomikoak eta kulturalak dakartza pertsonen, familiei, sozietateari eta munduko komunitateari orokorrean. Nazio Batuetako idazkari nagusiak, Ban Ki-Moon, dioten moduan, "Fenomeno honen ondorio sozial eta ekonomikoak sakonak dira eta eragin handia dute adineko banakakoaren eta bere familiaren berehalako eremuan. Izan ere, aurrekaririk gabe gizartea orokorrean eta munduko komunitatea tartean sartzen dute". Herrialde batek gizartearen zahartzearen erronkei erantzuna emateko eta aukerak maximizatzeko aurrera eramango dituen ekintzen arabera, zehaztuko da herrialde horretako gizarteak benetan uztatu behar dituen edo ez "bizitza luzeraren dibidenduaren" onurak.

Gertatzen hari dena da, adineko pertsonen kantitateak eta proportzioak azkarrago handitzen hari direla beste adin desberdineko taldeekin alderatuz. Gainera, aipatutakoa gero eta herrialde gehiagotan gertatzen hari denez, trantsizio demografikoak dakartzan erronkei aurre egiteko sozietateak edukiko dituen gaitasunak nahikoak izango diren zalantzak herrialdeak arduratuta dauzka.



Berebiziko garrantzia dauka, munduko edozein herrialdetan, pertsonak duintasun eta segurtasun baldintza batzuetan zahartu ahal izatea, aldi berean, bizitzaz gozatu ahal izatea haien giza eskubide eta askatasun guztiez baliatuz.

Populazioa zahartzen hari dela kontsideratzen da adineko pertsonen proportzioak populazioaren guztizkoan gero eta handiagoak direnean. Aurrerago aztertuko ditugu sakonago zeintzuk izan diren gizartearen zahartzearen sorburuak lehenago esan bezala, baina gizartearen zahartze prozesua hobeto ulertzeko zertxobait aurreratzearren, emankortasun tasen jaitsiera eta biziraupenaren igoera dira gizartearen zahartzearen sorburuak. Hala ere, aurrerago sakonago azalduak izango dira bi sorburu hauek eta bada ere hirugarrenago bat aztertua izango dena. Bizi itzaropenak gora egin zuen nabarmen mundu osoan. 2010-2015 urteen artean, bizi itzaropena 78 urtekoa zen herrialde garatuetan eta 68 urtekoa garapen bidean dauden herrialdeetan. 2045-2050 urteetarako espero da, jaioberriek herrialde garatuetan 83 urteetara iristea eta garapen bidean dauden herrialdeetan 74 urteetara.

Datu gutxi hauetan ikusi dezakegu denboraren igarotzearekin emango den aldaketa izugarria.

Gizartearen zahartzeak izan duen eboluzioari dagokionez, 1950. urtean, mundu osoan 205 milioi pertsona zeuden 60 urte baino gehiago zituztenak. 2012. urtearen inguruan, adineko pertsonen kantitatea 810 milioi izatera iritsi zen. Egin diren aurreikuspenen arabera, 2022an 1.000 milioi izatera iritsi behar da eta bikoiztu 2050. urtearen inguruan, noiz 2.000 milioi izatera iritsiko diren 60 urte baino gehiagoko pertsonak, aurrerago aipatu den moduan. Mundu mailan, emakumeek osatzen dute adineko pertsonen taldean gehiengoa. Gaur egun, baita mundu mailan, 60 urte edo gehiago dituzten 100 emakumetatik, soilik 84 gizonezko daude adin berekoak eta 80 urte edo gehiago dituzten 100 emakumeetatik, soilik 61 gizonezkoa daude adin berekoak. Garrantzitsua da jakitea, emakumezkoek eta gizonezkoen ez dutela zahartzearen prozesua berdin jasaten. Generoen arteko erlazioek bizitzaren ibilbide guztia egituratzen dute, gainera eragina dute baliabide eta aukeren sarbidean, aldi berean ondorio iraunkor eta metagarriekin.


Egoera askotan, adineko emakumeak sentiberagoak izaten dira diskriminaziora, gainera sarbide eskasa izaten dute hainbat lanetan eta osasunean eta gaizki tratatuak izatera heldu daitezke.

Baina adineko gizonezkoak ere, haien erretiroaren ondoren, sentiberak izatera pasa daitezke, hein handi bateak haien sostengu soziala ahuldu egiten delako eta emakumezkoek bezala, gaizki tratatuak izatera iritsi daitezke.

Adineko pertsonen generazioa ez da talde homogenea, ondorioz ezin dira politika generiko batzuk ezarri. Garrantzitsua da adineko pertsonak ez estandarizatzea kategoría bakar bat bezala eta onartzea adineko pertsonen populazioak beste edozein adin talde batek bezalako aniztasuna daukala, adinari, sexuari, talde etnikori, heziketari, diru sarrerei eta osasunari dagokionez. Adineko pertsonen talde bakoitzak, haien artean, pertsona behartsuak, emakumezkoak, gizonezkoak, indigenak, letragabeak edota hiriko edo landa egoiliarak, behar eta interes zehatzak dituzte eta hauek ekitea garrantzitsua da ezaugarri zehatz horiei egokituak dauden interbentzio programa eta modeloak erabiliz.


Azaldutako guztia ondorengo bi mapa hauetan ikusi dezakegu. Bertan hauteman daiteke 60 urtetik gorako pertsonen proportzioak izango duen aldaketa nabarmena datozen hurrengo urte hauetan zehar. (Fondo de Población de Naciones Unidas (UNFPA), 2012)

**Mapa 1. 60 urtetik gorako pertsonen proportzioa, herrialdeko, 2015ean.**



Iturria: Munduko osasun erakundea, egileak moldatuta, 2015.

**Mapa 2. 60 urtetik gorako pertsonen proportzioa, herrialdeko, 2050ean.**



Iturria: Munduko osasun erakundea, egileak moldatuta, 2015.

#### **2.2.4. Gizartearen zahartzearen sorburuak**

Zenbakizko adierazleak alde batera utziz, adinengatiko egitura laburbiltzeko modurik egokiena grafiko demografiko nagusia da, hau da, populazio piramidea (adinaren eta sexuaren arabera egituratua).

Lehenago aipatutako piramide honek aukera ematen digu gaur egun piramidea osatzen duten gertaerak iraganean zer nolako efektuak izan zituzten ezagutzeko.


Aldaketa erabatekoa da eta piramideak beste adierazle batzuk baina hobeto irudiztatzen du demografiak jasan duen eraldaketa handia. (Abellán, y otros, 2018)

Ondorengo lerroetan aipatuko dena errazago ulertzekotan eta iruditari ikusteak asko laguntzen duelakoan, Espainiako populazio piramidea aurkeztuko da ondorengo bi irudietan, herrialde bat adibide bezala jartzearen. Hau horrela izanda, bi grafiko hauetan 1971. urteko urtarriletik 2019. urteko urtarrilera populazio piramidean eman den aldaketa ikusi dezakegu.

Grafikoak erreparatzeko momentuan garrantzitsu da jakitea momentu horretan Espainia osatzen zuten biztanle kopurua zein den. 1971. urtean Espainiak 34.040.641 biztanle zituen, 2019. urtean bestalde, 47.100.396. Esan bezala, ondorengo grafikoetan ikusi ahal izango dugu, denbora tarte honetan populazio


piramideak izan duen aldaketa eta gainera, urte tarte bakoitzaren ehunekoa zein den biztanleria totalaren gain.

**Grafikoa 2. Espainiako populazio piramidea, 1971. urtean (%-tan).**



Iturria: Egileak moldaturikoa, INE -ko datuetan oinarrituz, 2020.

**Grafikoa 3. Espainiako populazio piramidea, 2019. urtean (%-tan).**



Iturria: Egileak moldaturikoa, INE -ko datuetan oinarrituz, 2020.

Zahartze demografikoari buruz hitz egitean esan bezala, argi ikusi dezakegu denboraren poderioz nola populazio piramideak piramide itxura galdu duen. Gaur egun, oinarria estuagoa da, izan ere, %5 bat islatzetik %2 bat islatzera pasa da. Punta bestalde, gero eta zabalagoa da, hau da, %1era iristen ez zena, orain %1a erraz pasa du eta %2 batera irits daiteke.

Piramidearen forma aldatu egiten da populazioaren bolumena baldintzatzen duten 3 fenomenoek efektu konbinatuetan ematen diren aldaketek ondorioz. Hiru fenomeno horiek jaiotze-tasa, hilkortasuna eta migrazioa dira.

Hala ere, ikusizko inpaktu gehien sortzen duena jaiotze-tasa izan ohi da beti, izan ere, piramidearen oinarrian ardatzen da, hilkortasuna eta migrazioa adin guztietatik bana daitezkeen bitartean.

Beste hitz batzuetan esanda, adin batzuen pisua beste adin batzuen aurrean alda dezaketen faktoreak eta populazioaren bolumena alda dezaketen faktoreak berdinak dira. Jaiotze-tasa, hilkortasuna eta migrazioa. (Abellán, y otros, 2018)

Hasteko, jaiotze-tasa aztertuko dugu, esan bezala, inpaktu gehien sortzen duena delako. Ondoren hilkortasuna aztertuko da eta bukatzeko, migrazioa. Dena, Julio Perez Díaz-ek, Espainiako demografo, soziologo eta CSIC<sup>2</sup>-eko ikertzaileak, 2012. urtean aurrera eramandako ikerketa baten arabera.

- o Jaiotze-tasa

Jaiotze-tasak berehalako eragina dauka piramidean. Tasa altua bada, automatikoki piramidearen oinarria zabaldu egiten da, populazioa gaztetuz. Bestalde, tasa txikia bada, kontrako efektua sortzen da eta bide batez esan, hau dela funtsezko azalpena munduko gizarteak pairatu duen zahartze demografikoa ulertzeko.

Jaiotze-tasa, heriotza-tasarekin gertatu den bezala, oso altua izan da orain dela gutxi arte, zehazki biziraupen probabilitate urriak konpentsatu ahal izateko. Hala

---

<sup>2</sup> CSIC: Ikerketa Zientifikoaren Kontseilu Gorena Espainiako erakunde publiko handiena da ikerketa zientifiko eta teknikoari eskainia eta Europako Ikerketa esparruko garrantzitsuenetako bat. Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioari atxikita dago Zientzia Politikarako Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiaren bitartez. <https://www.csic.es/es/el-csic>

ere, emankortasun gutxiko jarraibideak hedatzen hari dira, Europatik hasita, mundu osora hedatuz.

o Hilkortasuna

Itxuraz, hilkortasunaren jaitsiera bistako sorburu bat da pertsonak gero eta gehiago bizi ahal izateko. Bestalde, bistakoa den gauza hau engainagarria ere bada. Gizateriak bere osotasunean 18. mendearen erditik aurrera ikusi du urteak pasa ahala nola hobetzen ziren bere biziraupen aukerak. Aipatutako garai artara arte, gizabanakoek ez zituzten 30 urteak gainditzen.

Espanian adibidez, 1900. urtean ez ziren 35 urte bizitzera iristen. Baina, bizi itxaropena gora egiten hasi zenean, gizartea ez zen soilik zahartu, gazteek pisua hartu ere egin zuten gizartean. Zergatia erraza da, garai artara arte haurren heriotza-tasa oso altua zen. Hobekuntzak hasi zirenean, jaioberrien eta haurren heriotzak saihesteari esker, hauen pisua handitzea lortu zen gizartean.

Duela oso gutxi, haurren heriotza-tasa oso baxua den herrialdeetan, hilkortasunaren aurkako borroka bizitzako beste aro batean zentratzen da, hau da, adin aurreratuetan. Orain bai esan dezakegula heriotza-tasaren jaitsierak ondorio bezala daukala gizartearen zahartzea, baina kontuan hartzeko modukoa da beti ez dela horrela izan eta herrialde guztietan ez dela berdina gertatzen.

o Migrazioa

Migrazioek eragina dute populazioaren piramidean ez direlako berdin banatzen adin desberdinetan. Batez ere migrazio korrante handienak protagonista bezala eduki dituzte lanaren bila zeuden gazteak. Jatorrizko tokiek despopulatzea eta gazteen eskasia pairatzen zuten. Bestalde, helmuga tokiek heldu berriekin eta haien seme-alabekin gaztetzen ikusi dute haien adinengatiko egitura.

Fenomeno hau hautemanezina izan daiteke unitate geografiko handietan, kontinente eta estatuetan adibidez. Baina, gero eta garrantzitsuagoa da analisi unitatea gero eta txikiago den heinean eta oinarrizkoa bilakatzen da eremu txikietan, hala nola, udalerrietan. Landa eremuko eta herrialde garatuetako gizartearen zahartzea ulertu nahi badugu edo hiri eremuetan dagoen gazte

kantitatea, ez dugu hilkortasuna edo emankortasuna aztertu behar, migrazioak baizik.

Aipatzearren, gaur egun, adineko pertsonen migrazioak ematen hari dira, bereziki erretiroaren ondoren. Fenomeno hasiberri bat da, adibidez Estatu Batuetan bizitegi-guneak sortu dituzten Floridan eta Kalifornian. Baina oso urruti gelditzen da adinengatiko egituraren gazteek sortzen dituzten aldaketaren parean.

### **2.2.5. Kontrola daiteke zahartze demografikoa?**

Interesgarria izango litzateke jakitea errealitatean zahartze demografikoa kontrolatzea posible izango litzatekeen. Horrela izanez gero, zenbait herrialdeetan gerta liteke prozesu hau kontrolatu nahi izatea.

Julio Vinuesa Angulo (2004) irakaslearen ustez zahartze prozesua kontrola daitekeen edo ez aztertzen hasi aurretik, egin beharko litzatekeen galdera ondorengoa da: Zer helbururekin kontrolatu nahi dugu gizartearen zahartze prozesua?

Dirudenez ondorengo hau bilatzen da:

- Bilatze dena da zenbakizko erlazio zehatz batzuk mantentzea edo errekuaratzea biztanleria zaharrago (erretiratuak) eta heldu baten artean (biztanleria potentzialki aktiboa).
- Produkzio sisteman eskulanaren ordezkapen ahalmena ere bermatzea da helburuetako bat. Adibidez: Suposatzen badugu urtero lan merkatura sartzen direla 25 urte lehenago jaiotakoak, Espainian 1975ean jaiotako 670.000 gazte izan ziren 2000. urtean lan munduan barneratu zirenak. 2010 urtea erreparatuz gero, 440.000 baino gutxiago izan ziren eta 2025 urterako aurreikuspenen arabera, 395.000 izango dira.
- Kezka sortzen du ere, epe luzeago batera, populazioaren berritzeak. Zahartzea bizitasun demografikoaren murrizketarekin batera dator, hazkunde murrizketa batekin, ahultze progresibo batekin eta muturrera eramanda, desagertzearekin.

Ezin da ukatu zahartze prozesuak aldaketak eragiten dituela proportzioetan eta adin talde desberdinetan. Aldaketa hauek, lanean zehar aztertuko direnak, ondorio demografiko eta ekonomiko garrantzitsuak dituzte, batzuk seguru aski herrialdeentzat sostenga ezinak izango direnak.

Hala nola, pentsio sistemen bideraezintasuna eta osasun zerbitzuen iraunkortasun eza, gaur egungo egitura demografikoaren oreka ezean oinarritzen dira.

Aurreko atalean jada aztertu ditugu zeintzuk diren zahartzearen sorburuak eta hauek duten eragina biztanleriaren piramidean, hauek jaiotze-tasa, hilkortasuna eta migrazioa dira. Oraingoan zehaztasun handiago batekin ikusiko ditugu zeintzuk diren zahartzearen mekanika demografikoaren faktoreak.

Alde batetik, faktore garrantzitsu bezala, jaiotze-tasaren ondorioz piramidearen oinarrian ematen den estutzea daukagu.

1. Lehenengo faktorea emakumeek eduki dituzten seme-alaben kopuruaren eta seme-alabak edukitzeko adina duten emakumeen arabera dago.

Bigarrenik, zahartze kontzeptuaren berezkoagoa denean zentratuz gero, piramidearen gailurra zabaldu egiten da. Faktore hau hilkortasunarekin lotuko dugu. Adin handiagoko taldeen tamainaren aldaketa ondorengo faktore hauen mende dago:

2. Adin handiko taldea aurretik zehaztua dago piramidearen beheko mailengatik. Bestalde, adin handiko biztanleria hilkortasunaren eraginez murriztuko da.

Bukatzeko, biztanleria lurralde eremu bati lotuta egonda, kontuan hartu behar dira ere gertatzen diren eta gertatzen jarraituko duten migrazio mugimenduak, sarrera eta irteerenak.

3. Adin handiko biztanleriaren bolumena aldatu daiteke, intentsitate gehiago edo gutxiagorekin, adin talde honetan eman daitezkeen migrazio mugimenduengatik.

Atal honen galderari erantzuteko eta adibide bezala Espainiako populazioa hartuz, banaka aztertu behar dira zahartzearen faktoreak eta behar izango



litzatekeen joera aldaketaren intentsitatea ezartzea, baita gertatzera heltzeko daukan aukera.

Jaiotze-tasarekin hasiz, nabarmendu egin behar da jaiotze-tasak izan duen beherakada azken 28 urteetan. Hau horrela izanda, soilik gaur egungo jaiotze-tasa baxua mantentzeko, beharrezkoa izango litzateke datozen belaunaldietako emakumeek emankortasuna igotzea gaur egun praktikan ezinezkoa den indize batzuetara, izan ere, aldaketa handia eman beharko litzatekeelako gaur egungo egoeran eta jarreran.

Bigarren faktoreari dagokionez, erabakigarria da bizi itxaropenak izan duen eboluzioa urte hauetan zehar edo hilkortasunak izan duen murrizketan baita ere azken urte hauetan, edozein adineko pertsonentzat. Azken ehun urteetan erregistratu den joeraren arabera, badakigu bizitza eta osasun baldintzen hobekuntzari esker bizi itxaropena gero eta handiago dela.

Gaur egun jada jaiotze-tasa 2068. urtean 65 urteak beteko dituzten gizabanakoak. Baita ere, zeintzuk diren piramidearen gailurra handiagotuko duten belaunaldien tamaina ezagutzen dugu eta badakigu hazkundera mantendu egingo dela 2041 urtera arte.

Aipatutako urtetik aurrera, 65 urteak beteko dituzte 1976 urtean jaiotako biztanleak, gutxiago izango direnak jaiotze-tasaren murrizketaren ondorioengatik, hain zuzen ere.

Helduen migrazio ekarpenari esker beharrezko konponbide argia ikusi da jaiotze-tasaren jaitsieragatik beherakada nabarmen bat jasan duten belaunaldiak areagotzeko. Horrela ondorengoa lortuko litzateke:

- a) Adin aktiboan dagoen biztanleria areagotzea.
- b) Gaur egun dagoen ordezkapen ahalmen eskasa zuzentzea eta piramidearen oinarria zabaltzea etorkinen emankortasunaren bitartez.
- c) Mendekotasun tasa hobetzea.

Migrazioetan pentsatzerakoan ezin dugu alde batera utzi bere gain hartzen duen lurralde dimentsioa. Motibazio eta ondorio independenteak dituzte jatorri

eta helmuga herrialdeetan. Ondorioz, ez da posible izaten aurretik zehaztea fluxuen intentsitatea eta etorkinen tipologia.

Bestalde, migrazioaren efektua egitura demografikoan gehiago erlatibizatzen, beste ziurgabetasun elementu bat gogoratu behar dugu migrazioaren efektuen gain, epe erdi-luzera ematen dena. Gerta litekeena da, migratzailea, denbora tarte bat pasa ondoren, berriro ere bere jatorri-lekura bueltatzea.

Hau guztia horrela izanda, zahartze prozesua kontrolatzearen inguruan egindako galderari izaera orokorreko erantzun bat ematea posible da: demografian konponbide azkarrak eta erabatekoak ez dute lekurik.

Jaiotze-tasa poliki-poliki handitzea edo behintzat mantentzea ez litzateke zeregin erraza izango. Bestalde, migrazio ekarpenak ez dira emari erreza, izan ere, ezin dira borondatez erregulatu eta bere efektua eraginkorragoa izan daiteke eskulanaren behar zehatzei erantzuteko, adinengatiko egitura era egonkor eta iraunkor batean orekatzeko baino.

### **2.3. Adineko pertsonen eragina ekonomian eta gizartean**

Adineko pertsonak ekonomian eta orokorrean gizartean duten eragina kontuan hartzeko modukoa da, nahiz eta gizarteak kontzeptu oker bat eduki honen inguruan. Hau hobeto ulertzeko ondoren ikusiko dugu zein den benetako errealitatea gai honen inguruan eta bide batez, hautemango dugu adineko pertsonen duten garrantzia bai ekonomian eta baita gure gizartean ere.

#### **2.3.1. Adineko pertsonen ekarpena: Kontzeptu okerra**

Adineko pertsona zer den definitu denean esan bezala, adineko pertsona, zaharra, heldua, etab. hirugarren adinean dauden pertsonen erreferentzia egiteko erabiltzen ditugun hainbat adjektibo dira. Gehienetan gizarteak pertsona hauek ezgaitutzat eta hirugarrenen mendekotzat dauzka eta gastu bat bezala kontsideratzen ditu gizartearentzat.

Munduko Osasun Erakundearen (2015) arabera zahartzearen inguruan politika desberdinak sortzeko dauden oztoporik garrantzitsuenetarikoak, adineko pertsonen buruz dauden kontzeptuak, jarrera eta suposizio orokor eta okerrak dira.

Nahiez eta kontuan hartzeko frogak egon adineko pertsonak gizarteari zentzu askotan ekarpen garrantzitsuak egiten dizkietela, gehienetan modu estereotipatu batean zama bat izango balira edo pertsona ahul bezala ikusten ditugu, errealtatetik urunduak edota hirugarrenen mendekoak, lehenago esan bezala.

Gaur egun, bizitzaren luzera handiago bat, osasun egoki batekin konbinatuta, makina bat aldaketa posible sortu ditzake bizitzaren ibilbidearen etapa tradizionaletan. Aldaketa hauek ez dira soilik onuragarriak izango banakakoarentzako, gizartearentzat ere onuragarria izango dira baldin eta adineko pertsonak lan merkatuan eta beste aktibitate sozialetan haien parte hartzearekin laguntzen badute. Hainbat ikerketek diote, sarrera altuak dituzten zenbait herrialdeetan, adineko pertsonak aukera berritzaileak bilatzen hari dira bizitzaren egitura tradizionala aldatzeko asmoarekin.

Adibide bat jartzearen, Estutu Batuetan, 2011-2012 urteetan zehar ekintzaile berrien %23ak 55 urtetik 64 urtera bitarteko adina zuten.

Gainera, arrakasta handiko enpresaburuen artean 50 urte baino gehiago zituzten pertsona gehiago zeuden, 25 urtetik beherako baino. Hemen ikusi dezakegu adineko pertsonak ez direla zertan zama bat izan behar gizartearentzat eta haiek ere ekintzaile espiritua izan dezaketela, horrek ez duela zerikusirik adinarekin.

### **2.3.2. Eragina ekonomian**

Adineko pertsonak ekonomian eragiten dute ondoren ikusiko ditugun hiru modu desberdinetan. Zenbaitek pentsatzen dutena alde batera utzita, argi ikusiko dugu mundu osoan zehar adineko pertsonak ekonomiari egiten dioten ekarpena oso garrantzitsua dela.

#### **2.3.2.1. Lan ez ordaindua**

Lan ez ordaindua, trukean inongo ordainketarik jaso gabe aurrera eramaten den lana da. Eremu pribatuan garatzen da, hau da, etxean eta etxeko lanekin zuzenean erlazionatzen da, hala nola, haurren, desgaitasuna duten pertsonen edo gaixo dauden pertsonen zaintzearekin.

Hautzarotik hezi gaituzten genero estereotipo sendoen ondorioz, zaintza eta ez ordaindua den lanari balioa kentzen zaio, gizarteak ez baitu ekonomiarako laguntza bat bezala kontsideratzen. Errealitatea gizartearen oinarrizko zutabea da, makroekonomian eragina baitu. (Gobierno de México)

Adineko pertsonak aurrera eramaten dituzten lan ez ordainduen artean, ondorengo hauek dira esanguratsuenak eta azken finean eragin handiena dutenak.

- Etxeko lanak eta familiaren zaintza

Etxeko lan ez ordaindua, etxeetan egiten dena da, bakoitza bere buruarentzat edo etxeko beste kideentzat. Beharrezko lana eta boluntariorikarekin alderatuz, etxeko lan ez ordainduaren tamaina eta garrantzia ikaragarria dira mundu osoan. (Heras, 2012)

Ohiko zereginak barneratzen ditu, hala nola, ondasunen erosketa eta etxerako zerbitzuak eskuratzea, sukaldaritza, etxea garbitzea, garbiketa, arropa lisatzea, maskotak eta landareak zaintzea eta baita ere, kudeaketa zereginak antolatzea eta banatzea.

Bestalde, etxetik kanpoko gestioak ere sartuko lirateke, hala nola, fakturak ordaintzea, tramiteak eta horiek gauzatzeko beharrezko bidaiak egitea. (Aguirre, García Sainz, & Carrasco, 2005)

Aurrean aipatutako zereginaz gain, bilobak, birbilobak edo beste familia kideak zaintzeaz arduratzen dira.

Esan beharra dago, gaur egun, mundu osoan zehar etxeko lan ez ordaindua burutzen dutenen gehiengoa emakumeak direla, ondoren aztertuko dugu zergatia. Horregatik, garrantzitsua da azalartzea, adineko pertsonak egiten dituzten ekarpenak, gehienbat, esan bezala, adineko emakumezkoen kasuan. Izan ere, biloben, ezkontidearen edota mendeko familia kideren baten zaintzak familiaren ongizatea bermatzen du eta honi ez zaio inoiz izan beharko lukeen ikusgaitasuna eman. (Heras, 2012)

Bi arrazoik garamatza aurreko hausnarketara, alde batetik, adineko emakumeen biziraupenak zahartzeren feminizaziora eraman gaituela eta honek eragiten duena dela, ezkontidea zaintzearen rola emakumeak hartzea eta

alargun gelditzea talde honetan gertagarriago izatea eta bestalde, generoan dauden desberdintasunek emakumeei etxeko esparruan duten eginkizuna esleitu dietela. (Miralles, 2011)

Etxeko eta familia lan bezala aurrera eramaten diren jarduerak eta zereginak zahartzaroaren esparruan esanguratsuenak dira. Etapa horretan, familia ardatz nagusia bihurtzen da, alde batera utziz enplegua soziabilitate, autoestimu, identitatea eta denboraren egituraketa iturri gisa. Erretiroaren adinean sartzeak lan merkatuarekin deskonexioa eragiten du, hau da, familiari eskaintzen zaion denboran gehikuntza nabarmen bat gertatzen da.

Adinekoen artean, gehien burutzen den familia elkartasun praktika, biloben zainketa da. Laguntza-lan hauek burutzen dituzten adinekoen kopuru handia existitzen da gaur egun. Espainia mailan adibidez, bilobak dituzten adinekoen artean (% 92,4) lautik hiru (% 72,5) dira haien seme-alabei egunerokotasunarekin edo noizbait zainketarekin lagundu dietenak. Adinekoen seme-alabak lanean dauden bitartean hauei lagundu ahal izateak ahalbidetu du familia eta laneko bizitza uztartzeko arazoari erantzuna eman ahal izatea. Aiton-amonak asko erabiltzen den baliabidea dira, laneko ordutegiak eta eskakizunak, familiaren mantenuarekin bateratzeko. (IMSERSO, 2006)

- Boluntarioritza komunitatean

Komunitatearen ongizateari eskaintzen zaizkion doako zerbitzuak edo laguntzak barneratzen ditu. Besteengana zuzendutako jarduera da, gizabanakoei, taldeei eta orokorrean gizarteari onura egiten diona, oro har, auzo, komunitate, gobernu, erlijio, hezkuntza erakundeetan parte hartzearekin lotuta dagoena. Boluntarioak oso garrantzitsuak dira, dedikazioa, erantzukizuna eta gizarte-konpromisoa eskatzen duen lana delako, jendea baliagarria sentitzeko balio duena. Gainera, jendeari emandako lankidetzak gogobetetzea sortzen dio.

Horrez gain, adinekoek borondatezko zerbitzua eskaintzeko momentuan, haiek aukera ditzakete zerbitzuan lan egingo duten denbora eta eskaintzeko modua. (Miralles, 2011)

### **2.3.2.2. Kontsumoa eta eros-ahalmena**

Eros-ahalmenak edo egoera ekonomikoak eragin handia dauka kontsumoan, ondorioz adineko pertsonak zer kontsumitzen duten eta kontsumitzen dutenari nola aurre egiten dioten aztertuko dugu ondorengo lerroetan.

Valentziako Biomekanika Institutuak 2006ean argitaratutako txostenaren arabera, lehenik eta behin, adinekoek duten egoera ekonomikoa nolakoa den aztertuko dugu eta ondoren, haien kontsumoan barneratuko gara.

Ondorioz, adineko pertsonen egoera ekonomikoarekin hasteko, beharbada pertsona zaharren egoera ekonomikoa hobeto definitzen duen alderdia erretiroko batz besteko pentsioa izan daiteke. Hala ere, adineko populazioaren % 30a pobreziaaren atalasearen azpian egoten jarraitzen du. Imserso-k burututako hurrengo txostenaren arabera; "La estructura social de la vejez en España, 2006", ikusi dezakegu pentsioen kontzentrazioa argi bat dagoela sarrera tarte baxuagotan; inkestatuen erdiak baino gehiago hileko 600 euro baino gutxiago jasotzen dituztela adierazten da hain zuzen ere.

Aipatutako txosten honetatik aurrera gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak eta adinaren efektua egiazta daitezke; joera orokor bezala emakumeek gizonezkoek baino gutxiago kobratzen dute eta adin handiago batera helduz gero pentsioak estuagoak dira. Gainera, ikerketa honetatik aurrera ondorioztatzen da ere adinekoen egoera ekonomikoak, egoera txarrean dauden adinekoak barne, ez duela arriskuan jartzen beharrik oinarrizkoena, hau da, elikadura.

Dezente gehiago konprometituta daude jantziarekin erlazionatutako beharrak, arropa berria erosteko aukera hain zuzen ere, eta etxebizitzarekiko erlazionatutako gastuak. Bestalde, jarduera sozialak eta aisiarekin zerikusia dutenak, oraindik ere izaera finantzarioko hesi garrantzitsuak aurkitzen dituzte adineko pertsonen dagokionez. Kontsumoaren nazio institutuak egindako inkesta baten arabera 2000. urtean, inkestatuek erantzun zuten faltan botatzen zutela bidaiaren bat egin ahal izatea edota haien etxebizitzari diru gehiago eskaintzea. Inkestatu guztiek 65 urte baino gehiago zituzten.

Bestalde, kontsumo ohiturei dagokionez, adineko pertsonen kontsumo ohiturak haien bizitza zikloan zehar aldatu egiten dira, hauekin batera egoera familiarra

eta ekonomikoa eta baita ere, izan ditzaketen gustuak eta lehentasunak. Ikerketa desberdinek jada agerian jarri dute banakako baten bizitza familiarreko bizitza ziklo edo etapa bakoitzak lotuta daramatzala gastu jakin batzuk.

“Kontsumitzailearen zikloa” bestalde, ondorengo erara definitu ahal izango genuke, non banakakoaren adinak eta erosi edo eskuratzen diren produktu edo zerbitzuen tipologia paper oso garrantzitsu bat jokatzeko duten.

“Padres e hijos en la España actual”, La Caixa erakundeak 2006. urtean aurrera eramandako ikerketak, agerian jarri du seme-alaben erosketa erabakia segun eta zer eremuari buruz hitz egiten hari garen menpe eta seme-alabaren adinaren menpe dagoela.

Erabaki ahalmena ondasunak eskuratzeko momentuan adinarekin handitu egiten da, janzteko arropa izan ohi da produktu nagusietako bat, zeinekin erabakiak hartzera ikasten dugun pertsonek.

Hala ere, lehen erosketa erabaki indibidualak aste-sariarekin edo gurasoen aldetik jasotako diru kopuruarekin erlazionatuta daude.

Aipatutako diru kopuru honen zenbatekoa familiaren ahalmen ekonomikoaren eta hauen kontsumo ohituren arabera izan ohi da. Aipatutako hau izango litzateke lehen etapa. Hurrengo etapa lan munduaren sarrerarekin erlazionatzen da.

Momentu honetan heldu gazteak nitxo merkatu oso baloratu bat kontsideratzen dira merkatuaren ikuspegitik. Orokorrean, diru sarrerak jasotzen dituzte eta erantzukizun gutxi dituzte, adibidez, ez dituzte seme-alabarik, zorrik, ezta karga hipotekariorik ere ez.

Kontsumoaren ikuspegitik, aipatutako populazioaren sektore hau oraindik kontsumo-ohitura finkoak ez edukitzeagatik bereizten da eta ondorioz, produktu edo zerbitzu berriak kontsumitzera prest egongo da. Kontsumitzailearen zikloko hurrengo etapari dagokionez, etapa honetan pertsona heldua da, erantzukizun familiar batzuekin eta zenbait zorrekin, hala nola, etxebizitza baten eskuratzearekin zerikusia duten zorrak, beste modu batera esanda, hipoteka bat ordaindu behar izana.

Baina benetan interesatzen zaiguna da, noiz hasten garen adineko kontsumitzaile bati buruz hitz egiten eta zeintzuk diren hau definitzen duten ezaugarriak nabarmenenak. “El mercado de los seniors en España: ¿oportunidad o burbuja de negocio?” txostenaren arabera, adineko pertsonentzako oinarrizko hiru fase bereizten ditu, kontsumo ohitura desberdinduekin.

Hau horrela izanda, kontuan hartzen den lehenengo fasea “Habi hutsa” litzateke (55 urtetik 65 urtetara), dagoeneko seme-alabek gurasoen etxea utzi dute eta haien bikotekidearekin edo bakarrik gehiago gastatzen dute, baina 60 urterekin kontrakoa gertatzen da, gastuaren gehikuntza hori gutxitzen hasten da. Hurrengo etapa erretiroarena da (65 urte baino gehiagorekin). Bukatzeko, azken etapari dagokionez, 80 urtetik aurrera hasten dena da, adineko pertsonak beste etxebizitza batera lekualdatzen direnean, familia kide baten etxera edota egoitza batera.

Azken fase honetan bereziki nabarmentzen dena da, adineko pertsonak ez dituztela erosketarik egiten, baina hala ere, kontsumitzen jarraitzen dutela. Adibidez, egoitza batean egiten duten egonaldia.

Orain dela urte gutxi batzuk arte, adineko pertsonak ez ziren kontsumitzaile talde garrantzitsu bat kontsideratzen, zeintzuei produktu eta zerbitzu espezifikoak eskaintzea posible zen. Hala ere, jarrera hau aldatu egin da azken urte hauetan zehar eta gaur egun adineko pertsonentzako hainbat produktu eta zerbitzu espezifiko eskaintzen dira, ondorengo faktore hauengatik hain zuzen ere:

- Adineko biztanleria, hazkunde jarraitu bat pairatzen hari den populazioa da eta Estatistika institutu nazionalaren arabera 2050 urterako Espainiako populazioaren ia erdia islatuko dute adineko pertsonak. (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2020)
- Denbora libre gehiago dute, izan ere, gehienak erretiratuak dira. Honen ondorioz, bezero potentzialak bihurtzen dira denbora libre hori beteko dituzten produktuak eta zerbitzuak kontsumitu ditzaketelako.



- Gastu desberdinen murrizketak, hala nola, etxebizitzaren hipoteka edota seme-alaben mantenua ordaindu behar ez izanak, eros-ahalmen garrantzitsu bat izatea ahalbidetzen die.

Aipatutako hiru faktore hauek adineko pertsonak lehentasunezko helburu batean bihurtzen dituzte, enpresentzat hain zuzen ere. Ondorioz, enpresen estrategiak eta politikak modu egoki batean zehaztea oso garrantzitsua da, sortzen ari den merkatu berri honetaz era egoki batean arduratu eta zaindu ahal izateko.

“No soy mayor, ‘soy senior’” El País egunkariak 2007. urtean argitaratutako artikuluak zioen, enpresa multinazionalen kontsumo-panelek emandako informazioaren arabera, dagoeneko kontsumo handiko banaketa-salmenten %26a kontzentratzen zela 65 urtetik gorako pertsonetan.

Adineko pertsonen buruz hitz egiten dugunean, kontuan izan behar dugu heterogeneotasun handia duen kolektiboa dela. Kontsumoaren ikuspegitik, aniztasuna gehien markatzen duen elementua, zalantzarik gabe, errenta da. Beheko taulan ikusi dezakegu zenbateko kopuruak jasotzen dituzte erretiratuek segun eta zein den haien egoera.

**Taula 1. Erretiro pentsioen gutxieneko zenbatekoak, 2020 (eurotan).**

	Hileko zenbatekoa	Urteko zenbatekoa
<b>65 urterekin</b>		
Ezkontidearen ardurapean	843,40	11.807,60
Ezkontiderik gabe	683,50	9.569,00
Ezkontidearen ardurapean egon gabe	648,70	9.081,80

Iturria: Egileak moldaturikoa, Gabilos-en datuetan oinarrituz, 2020.

Erretiroa iristen den momentuko pentsioez gain, kontuan hartu beharko lirateke ere alarguntza pentsioa eta beste mota batzuetako diru laguntzak, zeintzuk adineko pertsona kopuru handi batentzat diru sarrera bakarra dira eta gainera, pentsioa baino kantitate baxuagoak izan daitezke. Ondorengo taulan ikusi ditzakegu alarguntza pentsioen gutxienekoak.

**Taula 2. Alarguntza pentsioen gutxienerako zenbatekoak, 2020 (eurotan).**

	Hileko zenbatekoa	Urteko zenbatekoa
Familia-kargak edukita	790,70	11.069,80
65 urterekin edo ezintasun batekin (=>%65)	683,50	9.569,00
60 eta 6 urte bitartean	639,50	8.953,00
60 urtetik beherakoa	517,80	7.249,20

Iturria: Egileak moldaturikoa, Gabilos-en datuetan oinarrituz, 2020.

Errentetatik ondorioztatzen diren beste alderdi garrantzitsu batzuk adinarekin eta generoarekin erlazionatuak daude. Beraz, generoak ere berebiziko garrantzia du, emakumeek gizonek baino ia %40 gutxiago jasotzen baitute batez beste.

Bestalde, adinaren faktoreari erreparatzen badiogu, errentaren gehiengoa 60 eta 69 urte bitarteko tartean lortzen da, eta gutxienerakoa 75 urtetik aurrera, neurri handi batean, adin horretan dauden emakumezkoen proportzio handienagatik.

Adinekoen gastuari dagokionez, estatistika institutu nazionalak ondorengo produktu eta zerbitzuen tipologia hauek erabiltzen ditu gastuak aztertzeko:

- Etxebizitza.
- Elikadura.
- Garraioa.
- Komunikazioa.
- Ekipamendu pertsonala.
- Etxeko ekipamendua.
- Osasuna.
- Aisialdiko jarduerak eta bestelakoak.

Gastuaren zati handiena etxebizitza eta honen mantenuari bideratzen zaio, gertutik jarraitzen diote elikadura, garraioa eta komunikazioa. Hala ere, adin taldearen arabera, zenbait desberdintasun antzematen dira, hala nola,

etxebizitzan edo garraioan, nahiz eta kasu gehienetan gastuen banaketa nahiko antzekoa izan.

Hainbat ikerketei esker eskuratu diren datuen azterketaren arabera, erretiroa hartzeko unean kontsumo gailurra gertatzen da, aurretik burutu ezin izan zituzten bidaiak edo kapritxoak direla eta, baita ere momentu horretan duten diru kantitate puntualagatik. Baina, tontor hori igaro ondoren, kontsumoa jaitsi egiten da pixkanaka. Adineko pertsona bat kontsumitzaile bezala kontsideratutako definizioan, beharrezkoa da ikuspegi zabal bat edukitzea, biztanleria-profil edo -azpi-segmentu desberdinak identifikatu ahal izateko hain zuzen ere. Ikuspegi zabal horrek, halaber, bizi-estiloa bezalako kontzeptuei buruz ere hitz egitea dakar.

Kontsumitzaile zikloaren ikuspegitik, honako parametro hauek konbinatzeak baldintzatzen du bizi-estiloa: prestakuntza, egoera ekonomikoa, egoera funtzionala eta belaunaldien balioak.

Prestakuntza, batez ere lortutako ikasketa formalen arabera neurtua, lehen hurbilketa gisa balio du erosketara egiteko unean gaitasun kritiko handiago bati lotutako gaitasun eta trebetasun jakin batzuetara, eta gainera, produktu teknologikoen esparruan isla espezifikoa izango du. Prestakuntza informala ere aipa dezakegu, esperientzia eta bizipenen pilaketarekin zerikusia duena. Egoera ekonomikoa funtsezko alderdia da eta kasu gehienetan produktu edo zerbitzu jakin batzuk eskuratzeko edo ez eskuratzeko aukera zehazten du.

Gaitasun funtzionalari dagokionez, pertsonen bizi-zikloan zehar aldatu egiten dira haien gaitasunak. Helduaroa gaindituta, aipatutako gaitasunen narriadura ematen da, honek produktu eta zerbitzuen erabilera baldintzatu dezake eta baita ere hauen erosketara.

Belaunaldien balioei dagokionez, belaunaldi guztiak markatuak bizi izan dira gizarte-balioetan islatutako une historikoengatik, ekonomiaren egoera globalagatik, etxeko ekonomiatik haratago, edo egoera politiko-sozialagatik. Hauek, pertsona bakoitzaren bizipen indibiduala baldintzatu dute, izan ere, belaunaldi guztiak desberdinak dira.

Zentzu horretan, egungo adinekoen belaunaldia osatzen duten pertsonak egoera garrantzitsuak bizi izan dituzte, hala nola, gerraostea, erregimen diktatorialaren erortzea, etab.

Belaunaldi honetan, austeritatea edota aurrezkoa bezalako balioak espero dira, eta etorkizuneko belaunaldientzat ez da gauza guztiz desberdina espero izango.

Ondoren banaka aztertu ditzakegu lehenago aipatutako produktu eta zerbitzuak, horrela gehiago sakonduko dugu adineko pertsonen kontsumo ohituretan.

## **1. Etxebizitza**

Adinekoen gastu nagusia da. Etxebizitzaren etiketan honako gastu hauek sartzen dira:

- Alokairua, lehenengo etxebizitzarena, baita bigarrenarena ere.
- Etxebizitzaren mantentzea eta konponketak.
- Estolderia eta zabor-bilketa zerbitzua eta ur eta energia (gas eta elektrikoa) hornikuntza.

Etxebizitzarekin zerikusia duten gastuak handitu egiten dira adinarekin. Hori justifikatuta geratuko litzateke ohiko etxebizitzan mantenu eta jarduerak etxebizitza hondatua egoteagatik baldin badira edota irisgarritasunaren hobekuntzagatik egiten badira, izan ere, adineko pertsonak haien gaitasun funtzionalak gaizkituak izan ditzakete eta garrantzitsua da etxebizitza ondo egokitzea arazorik ez edukitzeko. Hala ere, batzuetan gerta liteke, erretiroaren ondoren aldaketa bat eman nahi izatea etxebizitzari arrazoietatik. Kasu batzuetan, irisgarritasun falta, adibidez, igogailurik gabeko hirugarren pisua, etxebizitza berri baten erosketa eragin dezake. Pisuz aldatzeko beste motibazio bat ere izan daiteke, beste etxebizitza txikiago eta erosoago bat bilatzea, seme-alabak etxetik irten ondoren, edo semeren baten etxebizitzara hurbiltzeko asmoz. Bigarren etxebizitza baten alokairuak eta erosketak, adibidez, hondartzan apartamentu bat, partida hau handitzen laguntzen du.

## 2. Elikadura

Adinekoen bigarren gastua da. Elikaduraren etiketan erosketa gastu hauek sartzen dira:

- Elikagai eta edari ez alkoholikoak.
- Edari alkoholikoak.
- Tabakoa
- Narkotikoak

Adin-taldeak erreparatuz gero, ez da alde handirik ikusten. Talde guztiek diru kopuru antzekoa zuzentzen diote elikaduraren atalari. Elikadura-arazoak eta elikadura-segurtasuna berberak dira adin guztietan eta desnutrizioa eta kalorien gehiegizko kontsumoa barneratzen dituzte.

Elikadura okerraren arrazoi nagusiak honako hauek dira: elikagaietara sarbide mugatua izatea, eskasi sozioekonomikoak, elikadurari buruzko ezaguera eta informazio eza, elikadura aukeraketa okerra (adibidez, gantz ugari duten elikagaiak jatea), osasun arazoak eta botika desberdinen erabilera, hortzen galera, isolamendu soziala eta elikagaiak erosteko eta hauek prestatzeko berezko ahalmena eragozten duten ezgaitasun kognitibo edo fisikoak, larrialdi-egoerak eta jarduera fisiko eza.

Gainera, energia gehiegi kontsumitzeak nabarmen handitzen du gizentasuna eta gaixotasun kronikoak eta ezgaitasunak pairatzeko arriskua pertsonak adin altuago bat duen heinean. Adinekoek, gainera, elikadura-produktuen etiketak ulertzeko zailtasunak aurki ditzakete, behar bezala aurkezten ez badira (tamaina eskuragarriko letrekin eta erraz uler daitekeen hizkera batekin). Bestalde, Espainiako Nutrizio Fundazioaren ikerketa batek adierazi du, 70 urtetik gorako lau pertsonetatik bat elikatu gabe dagoela edo elikadura-gabezia handia pairatzen duela.

Elikadura desegoki bat edukitzean, eragin handia dauka adineko pertsona bakarrik bizi behar izana. Motibazio eza edo sukaldaritzako ardurarik eza bezalako alderdiak hori azal lezakete, izan ere, bakarrik bizi diren adinekoek ez dute elikagaik prestatu behar beste inorentzat. Adineko pertsonak kontsumitzen dituzten elikagaien tipologian produktu fresko eta naturalek beste produktuek baino presentzia handiagoa dute.

Adinekoen erosketa egiteko modua eta tokia gainerako biztanleen modua eta tokiagatik bereizi egiten da. Oro har, nahiago dute kopuru txikitik erosi, maiz eta goizean zehar. Aukeratutako erosketa leku bezala nahiago dituzte betiko saltokiak edo supermerkatu txikiak, seguruenik hurbiltasunagatik eta tratu pertsonalizatu batengatik. Aipatutako establezimenduak aukeratzeko arrazoia, halaber, adinekoen ezaugarri bereizgarriei zor zaie, kasu honetan fideltasuna izango litzateke, produktuen hautaketan ere islatuta ikusi dezakeguna. Bere haurtzaroan kontsumitzen zituzten markak erosten dituzte eta, oro har, marka berriak baztertzen dituzte. Generoaren arabera, emakumeek erosketaren ardura hartzen jarraitzen dute, baina etorkizunean desberdintasun hori murriztea espero da.

### **3. Garraioa**

Garraioaren etiketan ondorengo gastu hauek barneratzen dira:

- Norberaren ibilgailua erabiltzearen ondoriozko gastuak.
- Garraio publikoa erabiltzearen ondoriozko gastuak.
- Egindako bidai luzeek eragindako gastuak, hala nola, itsasontziz, hegazkinez, trenez, etab.

Urteek aurrera egin ahala garraioan inbertitutako gastuak behera egiten du nabarmenki. Hau horrela izanda, 65 urte baino gehiago dituzten banakakoek, 56 eta 60 urte bitartean dituzten banakakoek inbertitzen duten diruaren erdia inbertitzen dute haiek garraioan. Inbertsio honen murrizketa oso lotuta dago gaitasun funtzionalen galerarekin, izan ere, honen ondorioz egin daitezkeen joan-etorriak murriztu egiten dira eta gainera, kasu batzuetan, gerta liteke norberaren ibilgailua gidatu ahal ez izatea.

Errentaren murrizketak ere lotura dauka garraioan egiten den inbertsioarekin, izan ere, pentsioa baxuak izanez gero, dirua beste produktu edo zerbitzu batzuetara bideratzen da, hau da, lehentasunezko produktu eta zerbitzuetara. Ibilgailu partikularraren ikuspegitik, hurrengo belaunaldietan garraio hau gehiago erabiltzea espero da, baita gidatzen duten emakume eta gizonezkoen kopurua handitzea eta parekatzea ere.

Kasu batzuetan gertatu ohi da, norberaren ibilgailua adin aurreratuenetan gidatzea ezinezkoa denez gaitasun funtzionalen galeraren ondorioz, batzuetan

gerta liteke frustrazio-sentimendua izatea, autonomia galdu dutela eta baliagarriak izateari utzi diotela sentitzea.

Ibilgailu propioetatik eratorritako gastuak, alde batetik, autoa mantentzeko sortzen diren gastuetatik datoz, hala nola, aseguruak, konponketak eta erregaiaren gastua. Bestetik, ibilgailu berriak erosteagatik dator. Kasu batzuetan, ibilgailua auto txikiago batengatik ordezkatzan da, beste batzuetan bestalde, ibilgailu handi batengatik. Honek ez du zerikusirik familia kideen kopuruarekin, erosketaren arrazoia orain arte erosi ezin izan den desiratutako ibilgailuaren nahia da.

Garraio publikoari dagokionez, batez ere hiriguneetan eta metropoli-inguruetan, garraio publikoa adineko pertsonen erabiltzen duten gehien bat. Normalean tarifa bereziak izan ohi dituzte, tarifa berezi hauek dira garraio publikoa erabiltzea sustatzen dutenak. Gaitasun funtzionalen galerak, garraio publikoak erabiltzeko ezintasuna ekar ditzake. Baina gaur egun esan daiteke garraio publikoak, batez ere hiri-eremuan, bilakaera handia izan duela adineko pertsonen beharretara egokitzeko, eta neurri handi batean, gero eta zorrotzagoa den legeria baten ondorioz, irisgarritasunari dagokionez lan handia egin dela.

#### **4. Komunikazioa**

Komunikazioaren etiketaren barruan ondorengo gastu hauek barneratzen dira:

- Telefonia finkoaren erabilera.
- Telefonia mugikorraren erabilera.
- Ordenagailuaren erabilera.
- Internetera sarbidea.
- Merkataritza elektronikoa.

Talde honetan ez da telebista barneratzen, etxebizitzarako ekipamendu bezala aztertu behar izango litzatekeelako. Hala ere, komunikazioarekin oso erlazionatua dago, gehien bat azken urteetan egon diren aurrerapen teknologikoengatik, haien artean TDTa. Gero eta urte gehiago eduki, komunikazioan egiten den inbertsioa murriztu egiten da. 65 urteak betetzen direnean komunikaziora bideratzen den inbertsioak %30ean behera egiten du. Dirua komunikaziora ez bideratzearen bi arrazoi ondorengo hauek dira. Alde

batetik, prestakuntza maila baxua eta bestalde, esperientzia maila baxua edo nulua teknologia mota berri horietan. Ikuspegi funtzional batetik, sistema horiek erabiltzea zaila edo ezinezkoa da adineko pertsonentzat, batez ere entzumenarekin eta ikusmenarekin zerikusia duten arazoak dituztenentzat, izan ere, aipatutako bi arazo hauek ezgaitasun ohikoenak dira adineko populazioaren artean.

Prestakuntza-maila eta esperientzia desberdina da adineko pertsona gazteagoentzat, adin horietan prestakuntza-maila pixka bat handiagoa izan ohi da, batez ere, horrelako teknologiekkin esperientzia izan dutelako eta entzumen eta ikusmenarekin lotutako arazo gutxiago dituztelako, izan ere, aipatutako bi zentzumen hauek produktu horiek erabiltzeko funtsezkoak baitira.

Interneti dagokionez, azken urteetan egindako inkesta desberdinen arabera, gero eta adineko pertsona gehiago, hau da, 65 urtetik gorakoak dira Interneten erabiltzaile. Nahiz eta adinarekin normalean alde batera uzten den teknologia hau.

## **5. Ekipamendu pertsonala**

Ekipamendu pertsonalera bideratutako gastua murriztu egin da azken urte hauetan zehar, nahiz eta gaur egun adineko pertsonen interesa handitu egin den haien itxura fisikoari eta janzkerari dagokionez. Ekipamendu pertsonalaren etiketaren barruan ondorengo erosketa gastu hauek barneratzen dira.

- Arropa
- Oinetakoak
- Kosmetikoak.

Urteak aurrera egin ahala, ekipamendu pertsonalera zuzentzen den diru kantitatea murriztu egin ohi da. Honen inguruan egin daitekeen azterketa, garraioaren azterketaren antzekoa da, izan ere, errentaren arabera egin daiteke. Gero eta adin handiago bat izan, pentsioak baxuagoak dira; beraz, dirua lehentasun handiagoko produktuetara bideratzen da. Generoari erreparatzen badiogu, emakumeek arropan eta oinetakoetan egiten duten gastua gizonezkoena baino pixka bat handiagoa da, baina diferentzia hori gaur egun ez da hain nabaria, izan ere, gizonezkoek gero eta garrantzi handiagoa ematen diote haien irudi estetikoari eta hau zaintzeari. Adineko pertsonak



ekipamendu pertsonalarekin duten arazo nagusia da produktu hauek haien beharretara, ezaugarrietara eta lehentasunetara ez daudela egokituak. Horrela, adineko pertsonak hainbat jantzien erabileran arazoak dituzte (galtzerdiak edota bularretakoekin, adibidez) Valentziako Biomekanika Institutuak (IBV<sup>3</sup>) aurrera eramandako txostenaren arabera. Gainera, konforta edo adinekoentzako egokia kontzeptuak produktu "ortopedikoarekin" edo "zaharrentzako" produktuekin lotzen dira. Kolore gutxikoak ere izan ohi dira produktuak eta diseinuari dagokionez, diseinu zaharkituak izaten dituzte.

Adinekoen merkatura heldu nahi bada, beharrezkoa izango da ekipamendu pertsonala egokitzea, bai ikuspegi funtzional batetik (erosotasuna, erabiltzeko erraza izatea, irismenarekin lotutako zailtasun fisikoetara egokitua, etab.), bai ikuspegi estetiko batetik ere.

## **6. Etxeko ekipamendua**

Etxeko ekipamenduaren etiketan barneratzen direnen artean etxetresna elektrikoek erosketarekin zerikusia dutenak dira pisu gehien dutenak.

Gastuak adinaren arabera aztertuz gero, ez da alde handirik ikusten adin-talde bakoitzaren arabera (400 euro inguru adin-talde guztientzat). Generoaren ikuspegitik, "El consumo de la tercera edad" azterketaren arabera, gastu handiena gizonezko ezkongabeei dagokie.

Era berean, ikuspegi horretatik, adineko pertsonak zenbait ekipamenduei ematen dieten erabilera desberdina nabarmentzen da. Labea eta garbigailua adibide ona dira; hauek hein handi batean emakumeengatik erabiliak dira.

Ekipamendu mota hauekin adineko pertsonak duten arazo nagusia hauek maneiatzeko konplexutasuna izan ohi da. Haien funtzionamendua ulertzeko zailtasunagatik, adibidez, mikrouhin digitala, bitrozeramika plaka edo ontzi-garbigailua. Bestalde, arazoak izaten dituzte egokitasun ergonomikorik ez dagoelako, ondorioz makurtzeko edo jarrera behartuak hartzeko beharren aurrean aurkitzen dira, adibidez, arropa zikina garbigailuan sartzeko edota arropa garbigailutik ateratzeko. Produktu horien eskuliburuek erabiltzen duten

---

<sup>3</sup> IBV (Instituto de Biomecánica de Valencia): Zentro teknologiko bat da, giza gorputzaren portaera eta honek pertsonak erabiltzen dituzten produktu, zerbitzu eta inguruneekin duen lotura aztertzen duena. <https://www.ibv.org/>

hizkuntzaren konplexutasunagatik, oro har, erabiltzeko zailtasuna handitu egiten dute. Zenbaitetan, eskuliburu horiek ingelesez bakarrik daude edo oso kalitate gutxiko itzulpenak aurkezten dituzte, ondorioz horrek bere ulermena zaildu egiten du.

Merkatu hau hobekien ulertzen duten enpresek eta adineko bezeroei zuzendutako produktuak eskaintzen dituztenek, merkatuan lehiatzeko baldintza hobeak izango dituzte.

## **7. Osasuna**

Osasunaren etiketaren barnean ondorengo erosketa gastu hauek barneratzen dira:

- Botikak eta beste farmazia-produktu batzuk.
- Medikuz-zerbitzuak.
- Tresna eta material terapeutikoak, laguntza teknikoak barne.

Adinak gora egiten duen heinean, normalean botiken kontsumoak ere gora egiten du, ondorioz gastua gero eta handiago izan ohi da. Botiken kontsumoaren prozedura aztertuz, antzeman dezakegu adineko pertsonen haien medikuek aholkatuko eta errezetatutako botikak kontsumitzen dituztela, izan ere, disziplina handiagoa dute botikak hartzerako momentuan.

Adinekoen %60ak baino gehiago laguntza teknikoaren beharra du. Laguntza tekniko hedatuenak adinekoen artean betaurrekoak (%75), audiofonoak (%5) eta bastoiak (%12) dira. Gainera, aipatutako laguntza teknikoak behar izaten dituzten adineko gehienek erabili egiten dituzte haien eguneroko bizitzan, baina, audiofonoen kasuan, erosotasunagatik edota erabilgarritasunagatik ezin direnez ondo doitu entzumen arazo zehatz batzuetara ez dira erabiltzen.

Adibidez, gerta liteke audiofonoak ondo ez egokitzea adineko pertsona toki zaratatsu batetik, toki lasaiago batera pasa denean.

## **8. Aisialdiko jarduerak eta bestelakoak.**

Aisialdia etiketaren barnean aisiarekin, kulturarekin edo ikasketekin zerikusia duten gastuen multzo oso heterogeneoa sartzen da. Generoaren arabera jarduerak aztertzean, gizonezkoek gehiago irakurtzen dutela esan daiteke, irratia ere gehiago entzuten dutela eta etxetik kanpoko jarduera gehiago egiten

dituztela, hala nola, paseoan ibiltzea, taberna edo kafetegi batera joatea edota maiztasun handiago batekin lagunekin elkartzea. Emakumeak, aldiz, telebista gehiago ikusten dute, sarriago egiten dituzte erosketak eta bilobekin denbora gehiago pasatzen dute, zaintzaile gisa neurri handi batean.

Aipatutako azken jarduera honek sindrome berri bati izena eman dio azken urte hauetan: "Sindrome de la abuela esclava", hain zuzen ere.

Adinekoek egiten dituzten jardueraz gain, interesgarria da jakitea zeintzuk diren benetan aurrera eraman nahi dituzten jarduerak. Izan ere, adinekoek interesa izan ohi dute ere jarduera desberdinak burutzeko, adibidez, lagunekin bildu nahi izana edo ikuskizunetara edota dantzatzera joan nahi izana. Hala ere, desio hori baldintzatuta dago benetan existitzen den eskaintzarekin eta adineko pertsonak ezagutzen dutenarekin.

Adinekoen artean aisialdi jarduera nabarmenena turismoa eta bidaiak dira. Alde batetik, tradizio handia dago turismo sozialari lotutako gaiekin, talde honetan osasun turismoa barneratzen da, adibidez, bainuetxeetako egonaldiak. Bestalde, aurreko taldetik kanpo, beren bidaiak antolatzen dituzten adineko pertsonen taldea ere badago. Aurreko hau era nabarmen batean ematen da erretiroa hartu ondoren eta familia-kargak jada ez dituzten lehenengo urteetan. Adinekoen alderdi nabarmenetako bat turismoari dagokionez ondorengo hau da. Helduei dagokienez, oro har, bidaia gehiago eta luzeagoak egiten dituzte, baina 65 urtetik gorakoak dira, aldiz, hilabete edo hilabete baino gehiagoko bidaiak egiten dituztenak.

### **2.3.3. Eragina gizartean**

Gizartearen zahartzeak 21. mendean dakartzan aukera, erronka eta kezka, faktore erabakigarria izango da herrien garapenerako, izan ere, jada lanean aipatuak izan diren bi osagai demografikoen murrizketari aurre egin beharko diote, emankortasuna eta hilkortasunari hain zuzen ere. Honekin batera, gizartearen adinengatiko egitura ere aldatu egiten da eta honek eskari desberdinak ekarriko ditu osasun zerbitzuetan eta ekonomia eta segurtasun sozial sistemetan, horrela adineko pertsona gehiago eta familia egitura desberdinak zaindu daitezke. Aldaketa hauei ondo moldatzen jakinez gero,

arrakasta ziurtatua egongo da. (Cardona Arango & Peláez, 2012) Horregatik hurrengo puntuan gizarteak pairatuko dituen aldaketak ezagutuko ditugu.

### **2.3.3.1. Eragin soziala, erronkak eta aukerak**

Cardona Arango eta Peláez-en (2012) arabera, ondorengo hauek dira gizartearen zahartzeak gizartean eragiten dituen aldaketa desberdinak:

- o Adinen egituraren aldaketa sozial esanguratsua

Bizitzak “denbora” irabazi du garatu ahal izateko eta ez bakarrik adin handietan. Zentzu askotan, zahartzaro baino lehen dauden aroak dira handitu egin direnak.

Bizi ziklo guztia patxadatsuagoa bihurtu da eta harritzekoa da nola orain dela hamarkada ez oso gutxi, gizabanakoek haien haurtzaroa agortzen zuten eta helduak izaten hasi behar ziren bizitzagatik behartuak. Seguru asko, zahartze demografikotik eratorritako berrikuntzarik handienetakoa da, haurtzaroa eta gaztaroa gaur egun herrialde garatuetan ezagutzen ditugun bezala izatea. Zahartze demografikoak duen ironia handienetakoa bat da, ez ditugula zahartzaroan urteak irabazi, baizik eta gaztaroan irabazi ditugula. Honek suposatzen du, gaur egun denbora gehiago daukagula baliabideak, prestakuntza, ezaguera, esperientziak eta akatsak pilatzeko, bizitzako ibilbidean atzeraezinak diren erabakiak hartzeko. Arrazoi berdinegatik gainera, bizitza ziklo guztia oinarri eta baliabide ondo hornituekin garatzen da.

- o Ondorioak familian

Zahartze demografikoa familiako kideen biziraupenerako segurtasun gero eta handiago bati lotuta joan da, kideak zahartzaro heldu arte. Segurtasun honek posible egiten ditu jokaera eta portaera berriak familia taldeetan, lehenago ezinezkoak zirenak heriotza edozein adinetan ematen zelako. Heriotza goiztiar honek posible egiten zuen zurtasun goiztiarra, haurren galera adin goiztiarretan edota alarguntza zahartzaro baino lehen. Gaur egun, 40 urteko pertsona bati gazte egiten diona da, bere gurasoak bizirik daudela eta posible da ere, bere aiton edo amon bat bizirik jarraitzea. Hemen ikusi dezakegu adinekoek gaztetasun soziala sortzen dutela.

Izan ere, familiak ia bi belaunaldi edukizetik, lau belaunaldi edukitzea pasatu dira eta litekeena da, gaur egun mundura datozen hurrek haien berraiton-amonen presentziarekin egitea.

Familia adineko pertsonen zaintzen hornitzaile nagusia da, orokorrean gaitasun funtzional eta kognitibo murriztuak dituztenentzako. Gehienetan, adineko pertsonaren familiak laguntza soziala, funtzionala, ekonomikoa edo materiala, afektiboa eskaintzen du, nahiz eta adineko pertsona erlatiboki mendekotasunik gabekoa izan eta fisikoki eta funtzionalki gaituak izan. 80 urte baino gehiagoko pertsonak, mendekotasun gehiago izan ohi dute, gainera gerta liteke haien maila ekonomikoa eta osasun maila mugatuak izatea, kasu horretan mendekotasun handiago dute.

Zahartzeak familiak ekonomian eragina dauka, arreta eta zaintza hurrei eta adineko pertsonari eskaini behar zaie, hau da, baliabideak norabide desberdinetan banatuak izan behar dira. Lehenago esan bezala, bizitza-luzerak posible egiten du lau belaunaldi batera bizitzea, baina baita lan zikloan eta erretiroan aldaketak egitea eskatzen du.

Gainera, erakundeei gizarte zerbitzuak eskainiko dituztenei ezagutzez eta trebetasunez hornitzeko beharrezko inbertsio egitera behartzen die, horrela bizitza ziklo gero eta luzeago batean laguntza eskaini ahal izango dute.

- o Osasun kolektiboan ondorioak

Zahartze demografikoak osasun zerbitzuak kolapsatuko zituela pentsa dezakegu eta bide batez, osasun kolektiboaren maila murriztu. Baina ez da horrela izan, aurreko hau gerta izan balitz, zahartzearen fenomenoak geldituko litzateke. Errealitatean, kontrakoak gertatu da, zahartzea faktore bultzatzaile garrantzitsua izan da osasun sistemak hobetzeko.

Osasunak, gaur egun, herrialde garatuetan gero eta leku nagusiago bat dauka. Azkeneko mendeetan adineko pertsonen osasunak hobekuntza ikaragarri bat jasan du, edozein espezialistak urte horietarako zituen itzaropenak gaindituz.

Sortzen hari den osasun produktu eta zerbitzuen eskaria, sektore hau ikerketari dagokionez punta puntako sektorean bihurtzen hari du. Badaude zenbait pertsona “belaunaldien arteko desberdintasunaren” kontra daudenak, baina

pertsona multzo honi esan behar zaiona da, zahartzaroaren inguruan egiten hari diren aurrerapen guztiak edozein adinerako direla onuragarriak, izan ere, horrela gazteek haien biziraupena ziurtatua izango dute adin handietara arte.

Pertsona proportzio garrantzitsu batek, oraindik ezagutzen ez diren edota ikertu ez diren gaixotasunak jasaten ditu, orain dela hamarkada gutxi, pertsona kopuru txiki bat zen. Horregatik garrantzitsua da gaixotasun hauentzako sendabidea aurkitzea eta guztiz seguru, gaur egungo gazteek etorkizunean, gaur egun egiten hari diren ikerketa eta esperimentazio guztietatik probetxua aterako dietela.

Adineko pertsonen osasun egoera txar batek, arreta eta zaintza handiago bat eskatzen du. Hainbatetan, familiagatik eratorria izan daiteke, baina beste batzuetan, horrela ez bada, gizartera pasatzen da obligazioa. Hemen boluntariora sartuko litzateke. 1950 urtean, 65 urtetik gorako 100 pertsonako, 35,3 zaindari behar ziren. 2050 urterako bestalde, eskaria hau %46,9 handituko da.

- o Gizarte Segurantzaren Sistema Orokorren eskaera handiagoa

Herrialdeetako gizarte segurantzak gaur egun dagoen egoerarekin, laguntza koordinatu eta eraginkor bat eskaini behar du. Ondorioz, osasun sistemen orientazioa aldatzea beharrezkoa izango da, izan ere, gaur egun gaixotasun larri eta episodikoen esperientzien inguruan antolatuta daude eta ez da egokia populazio zahartuaren osasun beharrei erantzuteko.

Gizarte segurantzako eta osasun sistemak adineko pertsonentzako zerbitzu sare garrantzitsuenak bihurtu dira, osasun zerbitzuen estaldura, sarbidea eta kalitatea eskainiz eta belaunaldien arteko "diru-laguntza" ahalbidetuz, non ekonomikoki aktiboak diren pertsonak adinekoen pentsioak babesten dituzte. Egoera hau funtsezkoa da, izan ere, pentsio-sistemak biztanleria talde horrentzako sarrera ekonomikoak lortzeko mekanismoa bilakatu baita.

- o Sistema ekonomikoan

Herrialdeetako gizarte segurantzak gaur egun dagoen egoerarekin, laguntza koordinatu eta eraginkor bat eskaini behar du. Ondorioz, osasun sistemen orientazioa aldatzea beharrezkoa izango da, izan ere, gaur egun gaixotasun

larri eta episodikoen esperientzien inguruan antolatuta daude eta ez da egokia populazio zahartuaren osasun beharrei erantzuteko.

Gizarte segurantzako eta osasun sistemak adineko pertsonentzako zerbitzu sare garrantzitsuenak bihurtu dira, osasun zerbitzuen estaldura, sarbidea eta kalitatea eskainiz eta belaunaldien arteko "diru-laguntza" ahalbidetuz, non ekonomikoki aktiboak diren pertsonak adinekoen pentsioak babesten dituzte. Egoera hau funtsezkoa da, izan ere, pentsio-sistemak biztanleria talde horrentzako sarrera ekonomikoak lortzeko mekanismoa bilakatu baita.

Pentsioak zahartzaroan bizi-kalitatea hobetzeko mekanismoa dira, beharrezkoa izanaz aurreikuspen sozialaren sistema bat, zeinek diru sarreraz gain, osasun-estaldura oso bat eta adineko pertsonak behar dituzten zerbitzu sozialak eskaintzen dituena. Bizitza-luzeraren hazkundeak prebentzio mailak zehazten ditu bizi-kalitate duinte, errespetagarri, baketsu eta lasai bat izateko. Pentsioek bizi kalitatea hobetzen laguntzen dute, izan ere, diru sarrera horiek adineko pertsonak haien familiengandik edo gizarteagandik duten mendekotasuna murrizten laguntzen dute.

### **3. Zilar ekonomia: etorkizuneko ekonomia**

Gaur egungo gizartea, kontsumismoak menderatzen duena, itsututa ematen du gaztetasunaren eta edertasunaren etengabeko bilakaerarekin, izan ere, hori da ia egunero hedabideen bitartez eta publizitate eta marketin kanpainen bidez eskaintzen diguten irudia. Zahartzaroak izutu egiten gaitu, eta are gehiago zahartzaroan jasan ditzakegunak beldurtzen gaitu, hala nola, gaixotasun fisikoak edota psikikoak.

Testuinguru horretan eta gizartearen zahartzean zehar azaldu bezala, 50 urtetik gorakoak hainbat esparrutan ikusezintasun sozialera kondenatuak dirudite. Egoera hori desesperagarria izan daiteke, baina zoritxarrez, azken urteotan ohitu egin gara. Hala ere, populazioaren segmentu hau ondasun eta zerbitzuen kontsumitzaile gisa protagonismo ukaezina aldarrikatzen hasi da azken urte hauetan.

Enpresak ahaleginak egiten hasi dira biztanleria-segmentu honen beharrak ezagutzeko eta asetzeko. Seniorren eta batez ere adinekoen ustez, enpresek ez dituzte kontuan hartzen haien beharrak eta lehentasunak produktuak eta

zerbitzuak diseinatzeko momentuan, neurri batean, biztanleria segmentu hau zorrotzagoa da eta modarekin zerikusia duten arrazoiengatik baino, erabilgarritasun irizpide praktikoez baliatzen da.

Esan bezala, segmentu hau protagonismo ukalezina aldarrikatzen hari da azken urteotan, izan ere, zerbait aldatzen ari da seniorren eta adineko pertsonen erosketa ohituretan, eta hori sektore oso erakargarria bihurtzen ari da enpresamunduan. Gero eta urte gehiago bizi gara eta, oro har, zahartzarora gero eta osasun egoera hobeto batean iristen gara, autonomia handiago batekin eta egoera ekonomiko hobetoarekin. Beraz, aukera handiagoak ditugu era guztietako ondasun eta zerbitzuak kontsumitzen jarraitzeko eta ekintza desberdinak egin ahal izateko adin aurreratuenetaraino. (Instituto de Biomecánica de Valencia, 2006)

Jada badakigu, 2031. urtean Gipuzkoan populazioaren %43ak 55 urte baino gehiago izango dituela Gipuzkoako Foru Aldundiaren (2020) arabera, datu oso erakargarri bat zalantzarik gabe. Esan daiteke ondorioz, arrazoi honengatik sortzen dela zilar ekonomia eta honek dakartzan aktibitate edo ekimen desberdinak, ondorengo puntuetan sakonki aztertuko ditugunak.

Hasi baino lehen esan, aurreko guzti hau zilar ekonomia ulertzeko bide bat dela, ondoren aztertuko dugun bide hertsia hain zuzen ere. Hau da, zilar ekonomia ulertzen dugu, 50 urtetik gorako pertsonak dituzten beharrak asetzeko dauden negozio aukerak sortzen duten tartea bezala. Baina lan honetan hortik haratago aztertu nahi da zilar ekonomia. Pertsona hauek erakunde desberdinengatik "senior" bezala identifikatzen dira.

Horregatik, ezin dugu alde batera utzi zilar ekonomia ulertzeko dagoen beste bidea, hau da, pertsona hauek duten adinagatik eta gaitasunengatik berain kabuz ekintzaile izateko duten aukera. Hau da, zilar ekonomia ulertzen dugu, 50 urtetik gorako pertsonak ekimenak martxan jartzeko, hau da ekintzaile izateko, duten gaitasuna bezala.

Zehazki, jarraian datozen puntuen helburua ondorengoa da, lehenik eta behin zilar ekonomia zentzu hertsian azaldu eta aztertzea, kontzeptua argi gelditu dadin. Horrela, ondoren, lanaren muinean zentratuz, seniorrak ekintzaile bezala aztertuko ditugu, ahal den neurrian ahalik eta gehien errealitatera hurbilduz.



### **3.1. Zilar ekonomia: Kontzeptu hertsia**

Azken hamarkadatik aurrera, jaiotzen kopuruak behera egiten jarraitu du. Hau ez da soilik Espainia mailan eman, baita mundu mailan ere jaiotza-tasaren beherakadak eta bizi-itxaropenaren areagotzeak piramide demografikoa alderantzikatu egin dute, gorago ikusi ahal izan ditugun irudietan islatzen den moduan. Izan ere, 50 urte baino gehiago dituzten herritarrak segmentu ugariena irudikatuko dute. Horrek guztiak, zilarrezko ekonomia bezala ezagutzen dena bultzatzen du.

Zilarrezko Ekonomia 50 urtetik gorako beharrek eta eskaerekin lotuta dago. Honela definitzen du Europako Batzordeak Grupo Technopolis eta Oxford Economics aurrera eramandako Silver Economy txostenean:

“Jarduera ekonomiko guztiaren batura da, 50 urtetik gorako pertsonen beharrei erantzuna ematen diena. Zuzenean erosten dituzten produktu eta zerbitzuak eta gastu hau sortzen duen jarduera ekonomiko gehigarria barne.”

Baiezta dezakegu, definizioa irakurri ondoren, zilar ekonomia ulertzen dela 50 urtetik gorako pertsonen dituzten beharrak asetzeko dauden negozio aukerak sortzen duten tarte bezala. Azken batean, kontsumoarekin, produkzioarekin eta 50 urtetik gorako ondasun eta zerbitzuen merkataritzarekin lotutako jarduera ekonomiko ugari biltzen ditu, bai publiko zein pribatuak. (Gheorghiu, 2019)

Baina, Gipuzkoako unibertsitateak Aldundiari aurkeztutako txostenak (2019) dioten moduan, Enste eta konpainiak (2008) baieztatzen dute, zilarrezko ekonomia ez dela sektore ekonomiko propiotzat hartu behar, baizik eta industria-sektore ugari dauden zeharkako eremu gisa.

Gainera, zilar ekonomiaren sorrerarekin ere hainbat aukera ekonomiko garrantzitsu aurkezten dira, kontuan edukiz noski, aldi berean, erronka ekonomiko eta sozialak ekarriko dituela.

Hua da, kontzeptua oraindik haratago doa, esan bezala, biztanleriaren zahartzeak dakartzan erronkak eta aukerak barne hartzen ditu. Bizitza-luzera handiago batek hainbat erronka sortzen ditu sektore publikoetan, izan ere, gizarte-sistemen egiturak sortu behar dira, hala nola, pentsioenak, osasuna

hobetzeko irtenbideak eta zaintza-lanenak ere, gero eta jende gehiagori lagundu ahal izateko.

Europako Batzordearen txostenean adierazi dutenez, 50 urtetik gorako herritarrek gero eta gehiago moldatzen dituzte ekonomiak, segmentu handia osatzen dute eta kontsumo-eremu askotan hazten ari dira, gainera, hedapen demografikoak sektore askotan eskaria bultzatzea eta premia horiek betetzeko lanpostuak sortzea espero da. Orduan, pertsona hauek azken urteotako merkatu errentagarrienetako eta dinamikoenetako bat bultzatzen ari dira, erronka handi bat aukera bihurtu dadin. Honen moduko gertaera batek erakarpen-efektua izan dezake jada existitzen diren zenbait merkatuetan, eta horrek mesede egingo dio zahartzeari.

Ildo beretik, Munduko Bankuak argudiatu zuen zahartzen ari diren gizarteek ez dutela zertan geldialdi bat pairatu behar edo haien bizi maila jaitsi behar.

Azken batean, zilarrezko ekonomiak "berebiziko garrantzia" du sektore sorta zabal baten jarduerari laguntzeko Europako kide den edozein estatutan. (Gheorghiu, 2019)

Peter Wintlev-Jenssen-ek, Europako Batzordearen Komunikazio, Eduki eta Teknologia Sareen arduradunak, etorkizun handieneko sektoreak osasuna eta zainketak, etxebizitza, turismoa eta ekintzailatza direla baieztatu zuen. Puntu hau geroago aztertuko dugu, zein sektore diren zilar ekonomiari probetxu gehien aterako diotenak jakin ahal izateko. Gainera, gomendio garrantzitsuenak osasun eta zainketa sektoreak digitalizatzea, bizitza independenterako produktuak bultzatzea eta bizitza osasuntsua sustatzea direla baieztatu zuen.

Dena, Zilar Ekonomiaren kontzeptutik abiatuta, Europar Batasunak honela definitzen du: "Gastu publikoaren eta kontsumitzaileen gastutik abiatuta loratzen hasten diren aukeren multzoa da, biztanleriaren zahartzearekin eta 50 urtetik gorako pertsonen merkatuaren beharrak eragiten duen trantsizio demografikoarekin lotuta daudenak". Ondorengo hau kontuan hartuz: "Pertsona hauek ezagutza, lan iturri eta kontsumo-sektore garrantzitsu bat kontsideratzen direla, ez soilik produktuen inguruan, baita ere, zerbitzu tradizionaletan – Gizarte-laguntza, osasuna edo garraio egokitua – eta beharrian berrietara

egokitutako zerbitzu berrietan – Aisia, boluntariora edo ezagutzaren transferentzia –".

Vicente Rodríguez Ikerkuntza irakasleak, CSIC-en Zahartzeari buruzko Ikerketa Taldeko zuzendariak, ondorengo esan zuen, "Ikerketaren munduan, Zilar Ekonomiak, kuantifikatu gabeko ondasun eta zerbitzuak barne hartzen ditu, zainketen mundua bezain garrantzitsuak direnak".

Vicente Rodríguez-en esanetara bueltatuz, ondoregoa dio: "Espainiako politika publikoek uste dute berrikuntza-faktore bat dela, ebidentzietan oinarrituz, hala nola, 50 urtetik gorako pertsonak talde heterogeneo bat direla bai demografikoki eta baita ekonomikoki ere, eta horrek areagotu egiten du haien autonomia eta boterea, erosteko gaitasuna, osasun zerbitzuetara sarbidea eta mobilizazio ekonomikorako potentzial handia kontsumo handiko sektoreetan eta baita lan merkatuan ere. (Fundación Empresa & Sociedad)

Talde heterogenoaren kontzeptuaren inguruan, Gipuzkoako ekonomia eta enpresa unibertsitateak Aldundiari aurkeztutako txostenean (2019) azalera da, Vernai eta konpainiak (2018) "adinekoak" definitzen dituztela 50 urte edo gehiago dituzten pertsona guztiak bezala. Pertsonen nahasketa heterogeneoa barne hartzen duen kohorte handi bat da, eta, datuek ahalbidetzen dutenean, are gehiago mugatzen dute segmentua talde diskretuagootan; talde horien artean daude, adibidez, lanean jarraitzen duten adinekoak eta erretiratzeko adina gainditzen dutenak.

Horrexegatik, kontuan hartu beharra dago ez dela berdina 50 urte edukitzea edo 80 urte edukitzea, batak edukiko dituen beharrak eta nahiak, ez dute zertan bestearenak izan behar. Lehen determinismoen inguruan aipatu denaren harira, unibertsitateak burututako txostenera (2019) itzuliz, orokortzeko joera ere antzeman da, eta kategorizazio egokirik ez egiteko ere bai.

Adibidez, Rolf G. Heinze eta Gerhard Naegele (2009) adierazten duten moduan, adineko pertsonak, gaur egun, ez dira talde soziokultural homogeen bat. Hau oso kontuan hartu behar da edozein azterketa-mota burutzean.

Gipuzkoako ekonomia eta enpresa unibertsitateak Aldundiari aurkeztutako txostenak (2019) baita azalera du zilar ekonomiaren inguruan lan

akademikoen behar argi bat dagoela gaur egun, gaia aztertzen dugunean determinismoetan erortzen ez diren horiek hain zuzen ere.

Zilar ekonomiaren kontzeptuaren genealogia aztertzean, erabaki publikoen eremuan erabiltzen den terminoa da. Hau da, ez da esparru akademikotik sortzen den terminoa. Izan ere, salbuespen batzuk alde batera utziz (ikus, adibidez, Kohlbachery Hang 2011; Klimczuk, 2012; Matsuno y Kohlbacher, 2019), oso gutxi dira gai honen inguruan aztertu diren literatura akademikoaren ekarpenak, eta gainera, kasu gehienetan (ikus adibidez Bran eta konpainia, 2016), lanen helburua kontzeptuaren artearen egoera eta bere inplikazioak, literatura grisaren aurrerapenetan oinarrituz, sintetizatzea da.

Horrenbestez, lan akademiko zorrotzak eta integratzaileak egiteko premia nabarmena dago, kontzeptu honen inplikazio teknologikoak, ekonomikoak eta sozialak kontuan hartzen dituztenak, eta funtsezko analisi-akatsetan erortzen ez direnak, hala nola, ekonomia- edota teknologia-determinismoetan.

Normalean erraza izaten da zilar ekonomia teknologiarekin lotzea, izan ere, teknologia zilar ekonomiaren adar garrantzitsuenetariko bat da, hein handi batean, produktu eta zerbitzu berriei eskaini diezaiokeen erabilgarritasun eta erraztasunagatik. Unibertsitateak egindako azterketak dioten moduan (2019), zilarrezko ekonomia deiturikoari gehien lotzen zaion gaietako bat garapen teknologikoarekin zerikusia duena da.

Hain zuzen ere, 50 urtetik gorako pertsonentzako produktuen eta teknologien garapenari eta merkaturatzeari buruzko erreferentzia zehatzago bat egiten da, haien bizi-kalitatea hobetzeko eraginkortasun eta eraginkortasun handia izan dezaketelako (Kohlbacher eta konpainiak, 2011).

Guzti hau barneratu ondoren, badago jendea oraindik ere lanean zehar aipatu den bezala, gizartearen zahartzearen eta zilar ekonomiaren kontzeptuak oker barneratzen dituztela. Garrantzitsua da modu egoki batean barneratzea eta benetan kontziente izatea kontzeptu honek duen garrantziaz. Vernai eta konpainiak (2018), Technopolis Group aholkularitzako kideak, Europako Batzordearentzat txostena burutu zuten. Dokumentu honetan adierazten denez, "Europako Batzordeak Europako zilarrezko ekonomiaren garapena babesteko eskatu zen txosten hau. Europako Batzordeari funtsezko informazio

estrategikoa ematea da helburu nagusia, baita Europar Batzarren ekonomia-estrategia garatzeko erreferentzia-esparrua ere.

Estrategia honen helburua Europar Batzarren hazkunde ekonomikoa sustatzea da, zahartzen ari den populazio baten merkatu teknologikoetan eta lan-merkatuetan zentratuz, ete bide batez ere, dakartzan aukerak aprobetxatuz eta aldaketa demografikoaren erronka sozialari aurre eginez. (Allur, Barandiaran, & Heras, 2019)

Europar Batzarren lehentasuna den gaia da zilar ekonomia, oraindik ere pentsatzen jarraituko dugu ez duela garrantzirik?

### **3.2. Zilar ekonomia-estrategia baliokideak**

Gipuzkoako ekonomia eta enpresa unibertsitateak Aldundiari aurkeztutako txostenaren (2019) informazioaren arabera, Klimczuk (2012) adierazten duen bezala, 2007 izan zen Europar Batzarren Zilar ekonomia-estrategia proposatu zuen lehen aldia. Bere gain hartu zen erabakiak hartzeko printzipio batzuk onartzearekin zerikusia duen kontzeptu bat dela: hornidura-baldintza onen konbinazioa (hezkuntza, ikerketa eta garapen maila altua, merkatu harkorrak eta malguak) eta adin handieneko kontsumitzaileen erosteko ahalmena, hazkunde ekonomikoko potentzial handia eta itzela eskaintzen duela.

Termino hau beste batzuen antzeko termino gisa erabiltzen da, hala nola, silver market "Mercado de plata" delakoa. Klimczuk (2012) dioenez, 70eko hamarkadaren hasieran erabiltzen hasi zen Japonian.

Baina, zilar ekonomia bezala ezagutzen dugun kontzeptu ez da egoera hau adierazteko dagoen kontzeptu bakarra. Urteetan zehar beste hainbat kontzeptu sortu eta erabili dira.

Gipuzkoako unibertsitateak Aldundiari aurkeztutako txostenera (2019) itzuliz, Silver Economy edo zilar-ekonomia kontzeptuak beste kontzeptu baliokide batzuk ere baditu zentzu laxoan. Adibidez, hainbat autorek erabiltzen duten "silvermarket" terminoaren kasua da (ikus Kohlbacher eta Herstatt, 2016).

Egile batzuen arabera, beste kontzeptu bat, zentzu oso laxoan, kontuan har daitezkeen kontzeptu antzeko bat da gerontekologia (Gerontechnology) (ikus

Klimczuk, 2012; ClaBen eta konpainia, 2013 eta Kohlbacher eta Herstatt lanen adibidea, 2016; eta Woolrych, 2016). ClaBen eta konpainia (2013) azpimarratzen dute geronteknologia kontzeptua 90eko hamarkadan agertu zela, diziplina arteko ikuspegia deskribatzeko, teknologia berriak garatu eta zaharrak 50 urtetik gorako beharretara egokitzeko. Geronteknologia terminoa azpiko teknologiako zientzien oinarrietan oinarritzen da (informatika eta elektronikak, adibidez) eta zahartzearen azterketa zientifikoan (gerontologia).

Gerontologia eta teknologia uztartzen dituen eremua bezala definitu ohi da, eta zahartze-prozesuen ezagutzan oinarritutako teknikak, produktuak, zerbitzuak eta ingurune teknologikoak ikertu eta garatzea eskatzen du.

### **3.3. Zahartze aktiboa eta osasungarria**

Zilar ekonomiarekin martxan dagoen eta era berean bultzatu egiten duen mugimenduetako bat zahartze aktiboa da, lehenago zahartze osasungarria bezala ezagutzen zena. Ondorioz, lehenik eta behin zahartze aktiboa zer den ezagutu beharra dago.

Zahartze aktiboa, XX. mendearen amaieran Munduko Osasun Erakundeak hartu zuen, "Zahartze osasuntsua" baino mezu osatuagoa bat helarazteko eta gizabanako eta populazioen zahartzeari eragiten dioten osasun arreta hutsaz gain, faktore eta esparruak ezagutzeko asmoz.

Adierazpen hori Munduko Osasun Erakundeak proposatu zuen eta Madrilen ospatutako Zahartzearen Munduko Asanbladan parte hartu zuten herrialdeek onartu zuten, 2002. urtean.

Munduko Osasun Erakundearen arabera, zahartze aktibo bezala ulertzen da "osasun, partaidetza eta segurtasun aukerak optimizatzeko prozesua, pertsonak zahartu ahala bizi-kalitatea hobetzeko asmoarekin. Zehatzago esanda, pertsonak beren bizi-ziklo osoan zehar beren ongizate fisiko, sozial eta mentala errealizatzeko aukera ematen duten prozesua dela adierazten du, baita gizartean parte hartzea ere, beren premien, desioen eta gaitasunen arabera. Era berean ondorengoa errazten zaie: babesa, segurtasuna eta zaintza behar dutenean."

Horrela, zahartze aktiboaren oinarritzko hiru zutabeak kokatzen dira: parte-hartzea, osasuna eta segurtasuna.

Teresa Martínez Rodríguezek, Osasun Zientzietan doktorea, Psikologian lizentziatua eta Gerontologian diplomatua, adierazi zuen 2006. urtean, modu egoki batean zahartzea, aktiboki zahartzea dela, eta horrek, funtsean, hiru baldintza ditu: rol soziala batekin, osasunarekin eta segurtasunarekin zahartzea. Hiru zutabe horiek garrantzitsuak badira, are garrantzitsuagoa da "aktibo" terminoari ematen diogun esanahia eta horrek dakartzan ondorioak.

Labur-labur, "Aktibo" terminoa zer den adierazi dezakegu:

- Gai sozial, ekonomiko, kultural, espiritual eta zibikoetan pertsonak parte hartzeko ideia adierazten du, fisikoki edo lanean aktibo egoteko gaitasunean soilik jarri gabe arreta.
- Gizarte-eredu berri bat ezartzen du, betan pertsonak zahartzeko aukera izan behar dute, beren bizitzako protagonista izanik, zeregin proaktibo batean, eta ez produktu, zerbitzu edo zainketen hartzaille huts gisa.
- Ikuspegi komunitario bat eskatzen du, bertan herritar helduek aukera izan behar dute berezkoa duten orotan parte hartzeko, hau da, beren aisiara edo beren adinerako zerbitzu edo entitateetara mugatzen dena ez ezik, beren komunitateari dagokion edozein esparrutara.
- Gizarteak bermatu behar du 50 urtetik gorako pertsonak informatuta jarraitu ahal izatea, eta, aldi berean, haien eskubide guztiak onartzen direla zaindu behar du.
- Belaunaldi arteko ikuspegia hartzen du bere gain, familia bateko kideek eta belaunaldi desberdinek beren artean eskaintzen dituzten harremanen eta laguntzaren garrantzia onartzean.
- Ikuspegi tradizionalari desafio egiten dio, zehazki ondorengoa zalantzan jartzen du: ikaskuntza haurren eta gazteen kontua dela, lana helduen kontua dela eta erretiroa zahartzaroaren kontua dela. Pertsonaren garapena sustatzen du, egunak amaitu arte.
- Ikuspegi integrala behar du, pertsonen eta haien zahartze-prozesuaren ikuspegi osoagoa eta globalagoa eskaintzen baitu.

Horregatik, ezinbestekoa da zahartze aktiboaren garapenean eragina duten esparru eta faktore guztiak berrikustea: sozialak, sanitarioak, ekonomikoak, baina baita psikologikoak, afektiboak, hezkuntzakoak, kulturalak eta abar ere.

Horrek guztiak, zalantzarik gabe, eragin positiboa izango du norbanakoaren zahartze-prozesuan, baina baita gizarte hobeago bat eraikitzean ere.

Zahartze aktiboaren paradigmak, herritar guztiei egiten die mesede.

50 uretik gorako pertsonen beren independentzia eta autonomiari denbora gehiago mantentzen laguntzen die (kontzeptu nagusiak gerontologian), eta era berean, denbora luzeagoan giza potentzial handia izan daiteke gizartearentzat. Baita, pertsonen balioak eta eskubideak guztiontzat posible egiten dituen gizarte bat eraikitzen duelako ere. (Limón & Ortega, 2011)

Zahartze aktiboa gehien sustatzen dituzten esparruak ondorengo bi hauek dira:

1. Aisia
2. Ekintzailtza

Azken urteetan ekimen desberdinak eraman dira aurrera aipatutako 2 kontzeptu hauek sustatzeko. Ondoren bi hauen garrantzia azalerratu dugu.

Aisiari dagokionez, adin batera iritsiz gero, familiako ardurak, konpromisoak eta lana alde batera utzi ahal izaten ditugu. Seme-alaben emantzipazioa eta erretiroa egoera egokia da aisialdirako denbora izateko. Baina, benetan badakigu aisialdiak nagusiengan daukan eraginaz eta garrantziaz?

Bizitzako etapa bakoitzean aisialdiko jarduera egokiak, gure behar eta gustuen araberrako zaletasunak eta entretenimenduak daude, estresa bideratzen laguntzen digutenak, asetzen eta dibertitzen gaituztenak eta endorfinak askatzen laguntzen digutenak.

Adin jakin bat edukitzeak ez du esan nahi aisialdiari uko egin behar diogunik, baizik eta egokitu egin behar garela, bizitzako beste edozein etapatan bezala, ahalik eta gehien gozatzeko.

Adin jakin batera iristean pertsonak askok eta pertsonak horiek zaintzen dituztenek, aurreiritzi asko dituzte adinaren inguruan. Ez dute uste jarduera batzuk egitea komeni denik edota era desegokian egiteko beldur dira. Beste batzuek denbora eduki nahiko lukete, baina ez dakite nola egin.



Horregatik, beren gustuen, aukeren eta irismenaren arabera jarduerak eskaini behar zaizkie.

Jarduera ugari egin ditzakete:

1. Sozialak: Atseginenak izaten dira, beste pertsona batzuekin denbora pasa eta haiekin elkarreraginean aritzea baita kontua. Lagunekin denbora paseatzea, haiek bisitatzea, familiarekin egotea, bilobak zaintzea, lagun edo elkarteren bateko kide izatea, dantzetara edo festetara joatea. Gizarte jarduerak funtsezkoak dira.
2. Fisikoak: jarduera fisikoak, zahartzea atzeratzeaz gain, ongizate fisiko eta mentala bultzatzen du. Endorfinak, zorionaren hormonak, askatzen laguntzen du, eta aktiboago egoten laguntzen digu.

Ariketa programak diseinatu daitezke pertsona bakoitzari egokitzeko.

Gaur egun, parke askotan aire zabaleko ariketak egiteko guneak ezarri dituzte, hauek adin jakin bat gainditzen dutenei laguntzen diete ariketak egiteko.

3. Jolas jarduerak: Jolas jarduerak dira ondo pasarazten gaituztenak eta berehalako gogobetetasuna sortzen digutenak. Pintatzea, landareak eta lorezaintza zaintzea, zeramika egitea, jostea, kartetan jolastea, dominoa, etab. izan daitezke jarduera horiek. Jolas-jarduera ugari daude, bakoitzari gehien gustatzen zaizkionak aurkitzea besterik ez da.
4. Kulturalak: kontzertutara, antzerkitara, museotara, hitzalditara, ikastarotara eta mintegitara joatea. Segun eta non bizi garen agenda kulturala izango dugu, zabalagoa edo txikiagoa, baina garrantzitsuena da informatuta egotea eta eskura ditugun proposamenez gozatzen jakitea.
5. Turismoa: Adin jakin bat gainditzen dutenentzat egokitutako bidaiak eskaintza zabala dago. Spa duten lekuak, mugikortasun urriko pertsonentzako sarbideak, inguruko osasun-zerbitzuak eta abar.
6. Boluntariora. Kasu honetan, adin jakin bateko pertsona izatea ez da laguntza jasotzearen sinonimoa, laguntza baita eskaini daiteke ere.

Elkarte eta erakunde askok laguntza handia aurkitzen dute adin altuetako pertsonetan beren helburuak betetzeko.

Aisialdiaren onurak, gehien bat adineko pertsonengan:

1. Autoestimua hobetzen du: integratuak, erabilgarriak eta prest sentitzean, guregan daukagun segurtasuna hobetzen dugu.
2. Integrazioaren alde egiten du: jarduera desberdinek talde desberdinekin elkarreaginean aritzeko eta jende berria ezagutzeko aukera ematen diote. Beste pertsona batzuekiko komunikazioa eta elkarreagina areagotzen ditu.
3. Autonomia bultzatzen du: norberaren buruan segurtasuna edukitzeak, osasun mentala eta fisikoa hobetzen ditu, baita independentzia pertsonala ere.
4. Gogobetetze-maila handiagoa: bizi-kalitatea hobetzean, gizabanakoa zoriontsuagoa da eta horrek bizitzaren alderdi guztietan eragiten du.

Aisia ezinbestekoa da gure bizitzan. Oso garrantzitsua da ahalik eta gehien sustatzea eta motibatzea, aukera desberdinak eskaintzea eta bera izatea, bere aukeretara, gustuetara eta nortasunera ondoen egokitzen direnak aukeratzeaz arduratzen dena. (CasaLista, 2016)

Aisiarekin bukatu baino lehen, adineko pertsonen kontsumoa eta eros-ahalmena aztertu dugunean azaleratu dugun bezala, hauen artean aisialdi jarduera nabarmenena turismoa eta bidaiak dira. Ondorioz honetan pixka bat sakontzea interesgarria da, izan ere, turismoak berebiziko garrantzia dauka zahartze aktiboan.

Turismoak ondorio positiboak ditu herritarren osasuna eta ongizatea sustatzera bideratutako politiketan, eta, horrela, sistema publiko eraginkorra sortzen lagundu dezake, Gizarte Iraunkortasunaren Teoriak defendatzen duen bezala.

Ildo horretan, egileek bidaiatzen duten 65 urte baino gehiago dituzten pertsonen osasun-profila aztertzen dute, bidaiatzen ez dutenen aldean, baita baliabide soziosanitarioen kontsumoan dauden aldeak ere, turismoaren eta zahartze

aktibo eta osasungarriaren arteko harremana aztertzen laguntzeko, bai eta turismoaren eta baliabide soziosanitarioen kudeaketa eraginkorragoaren artekoa ere.

Horretarako, ikerketa korrelatibo bat egin zen 189 pertsonarekin, bidaiatzen duten 149 adineko pertsona (%78,84) eta bidaiatzen ez duten 40 adineko pertsona (%21,16) konparatuz.

Ebaluazio-tresna desgaitasunaren eta osasunaren funtzionamenduaren nazioarteko sailkapena ereduari jarraituz egin zen. Eredu horretan oinarrituta, neurtu beharreko osasun-aldagaiak eta erabili beharreko tresna estandarizatuak hautatu ziren: SF-12 Health Survey-ren bertsio espainiarra norberaren osasunerako, Lawton eta Brody-ren indizea eguneroko bizitzako jarduera instrumentalak egiteko gaitasunerako eta Berkman-Syme indizea, gizarte babeserako.

Gainera, gizarte- eta osasun-baliabideen kontsumoarekin lotutako aldagaiak gehitu ziren. (Ferri Sanz, Durá Ferrandis, & Garcés Ferrer, 2015)

Ferri Sanz, Durá Ferrandis eta Garcés Ferrer-ek (2015) lortutako emaitzek bidaiatzen duten adineko pertsonen osasun-profila honela definitzen dute, bidaiatzen ez dutenekin alderatuta:

1. Bidaiatzen duten adineko pertsonak osasun fisiko eta mental handiagoa dute.
2. Bidaiatzen duten adinekoek gaitasun handiagoa dute DBEak (eguneroko bizitzako jarduera instrumentalak) betetzeko.
3. Baliabideen kontsumoari dagokionez, bidaiatzen ez duten adinekoek erresonantzia eta OTA (Ordenagailu bidezko Tomografia Axiala) gehiago egiten dituzte

Bukatzeko eta ekintzailtzari dagokionez, senior eta adineko pertsonen ekintzailtza lanaren muina denez, azken puntuan aztertuko dugu, hain zuzen ere sakon eta luze arituko gara gai honen inguruan. Solik esan, zahartze aktiboaren esparru garrantzitsu bat dela.

### 3.4. Zergatik apustu egin adineko pertsonengatik?

Jada kontziente gara mundua zahartzen ari dela eta proiektzioen arabera, 50 urtetik gorakoek taldeak osatuko dutela datoen hamarkadetan populazioaren segmentu nagusietako bat, lanean aipatutako arrazoi desberdinengatik. Hurrengo lerroetan hauengatik apustu egitearen garrantzia eta zergatik ez den haiengatik apustu egiten aztertuko dugu.

Jérôme Pigniez-en arabera, SilverEco.fr-ko lehendakari eta autonomia pertsonalerako, gerontoteknologiarako eta zilarrezko ekonomiarako teknologiaren arloko aditua, ez dago sektore ekonomikorik zahartze demografikoagatik eragina jasango ez duenik etorkizunean. (Fundación Ageing Lab, 2018)

Bestalde, Felipe Martín Morenok dio, Adinekoen Estatuko kontseilariak, oraindik aztertu gabeko aukerak irekitzen ari direla martxan dauden enpresentzat eta ekintzaile berrientzat.

Martín Moreno jaunaren hitzekin jarraituz, honen esanetan, adineko pertsonak profil jakin bat dira, eskaera espezifikoak eskatzen dituztenak, eta hori bera erronka bat suposatzen du enpresa guztientzat, negozio-eredu berriei atea irekitzean hain zuzen ere. Ondorioz, Marketin Estrategikoa funtsezkoa da enpresa guztietan, aukera berrien bila merkatu-nitxo berriak aurkitzeko. Izan ere, lehentasunezkoa da enpresek estrategia ona edukitzea eta espezializatzen jakitea merkatu-nitxo garrantzitsu honi heltzeko. (Foromarketing, 2016)

Aipatutako aurrekari hauek argi edukiz, garrantzitsua da kontuan hartzea gero eta garrantzitsuagoa bilakatzen ari den merkatu-aukera bat: grey market-a. Silver market edo senior market gisa ere ezagutzen da. Grey market-ak 60 urtetik gorako pertsoneri, hau da, adinekoei, zuzendutako produktu eta zerbitzuak irudikatzen ditu. (Ovalle, 2019)

Illo berean, estatistikek ere hurrengoa frogatu dute: hirugarren adinekoen sektorea gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dela, eta, biztanleria-sektore bakoitzak bezala, kontsumo-behar eta -ohiturak dituela. Baina orduan, galdera hurrengoa da: markek "grey market" deritzonari zuzen erantzuten ari al diote? Edo bigarren maila batean uzten dute? (Rodríguez, 2018)

Merkatu-premisa honek funtsean bi ideien arabera funtzionatzen du: alde batetik, adineko pertsona gehienak ekonomikoki aktiboak diren pertsonak dira, erosteko gaitasun ona dutenak, eta, bestetik, gaur egungo merkatuko markek ez dituzte adineko pertsonak beren helburuaren barruan izaten. Horrela, merkatu-nitxo oso bat ireki daiteke bezero leial bihurtzeko pertsonen artean. Pertsona horiek jada ezarritako zerbitzuak zein haientzat sortutako zerbitzu berriak aprobeitatu ditzakete. Azken finean, 50 urtetik gorako pertsonak bizi itxaropen altua dute, ahalmen ekonomiko eta autonomia haien bizi kalitatearen gain erabakiak hartzeko. Hau aukera izugarria da sektore desberdinetako enpresentzat. (Ovalle, 2019)

Sofía Zacarías De la Riva Group merkatu-ikerketako agentziako Azterlan Sindikalen kudeatzailearen ustez, grey market-a “ahaztuta eta gutxietsita” dago, eta hori ulertezina da, beste batzuk baino denbora libre eta diru gehiago duen segmentua baita:

“Gogora dezagun horietako askok erretiroa jada hartu dutela, ekonomikoki aktiboak izaten jarraitzen dutela eta dagoeneko ez dutela hainbeste mendekotasun ekonomiko. Bere denborarekin produktiboak izan nahi dute eta haien dirua lanean ikusi nahi dute”.

Kantar Worldpanel aholkularitza-enpresako zuzendari den Jorge Gómezek “merkatu griseko” kideak “senior berri” gisa deskribatzen ditu: pertsona oso aktiboak dira, gozamen pertsonalerako eta entretenimendurako denbora gehiago dute, eta “premium” produktueterako joerak dituzte, baita osasun ona eta bizi-kalitate egokia edukitzeko itxaropena ere.

Bi espezialistak bat datoz, nahiz eta segmentu honek potentzial handia izan, markek ez dute jakin haien ahaleginak zuzentzen nitxo horrekin konektatzeko eta behar bezala sartzeko.

“Normalean adinekoei hitz egiten dieten markak, adinekoentzako pixoihalak, botikak, laborategiko azterketak, eta abar eskaintzeko izaten da, estereotipoei dagozkien produktuak hain zuzen ere. Orduan, adinekoek abandonua sentitzen dute, ez dagoelako markarik haiekin konektatzen duenik. Zaharrak sentiarazten dituzte eta haiek ez dute bere burua horrela ikusten”, azaltzen du Sofiak.

De la Riva Group-en exekutiboaren ustez, ahanztura horren arrazoietakoa bat “sukar millennial-a” da. Belaunaldi hau erreferentzia bihurtu da enpresa handientzat, ahalegin gehienak haietan zentratzen dira, baina, azkenean eta lehenago esan bezala, merkatu bakoitzaren beharrak eta aukerak desberdinak dira.

Ez daki akats gisa kalifikatu edo ez, baina Jorge Gómezi ez zaio egokia iruditzen enpresek haien arreta “millennial” edo “centennial” belaunaldietara bakarrik bideratzea. Izan ere, senior berriak bezalako nitxo handi bat pasatzen uzten ari baitira, aukera bat dira gaur egun, baina batez ere epe ertainean.

Bere ustez, markek grey market-eko kideak “kutxa batean ezkuturazteari” utzi beharko lukete, “adin bat pasatu dutelako” bakarrik, eta merezi duten lekua eman beharko liekete, “gehien gastatzen duen segmentuetako bat baita, etiketak berrikusten denbora gehien ematen duena, produktuak zer eta nola kontsumituko dituzten pentsatzen duena. Oraintxe haiengana hurbiltzen ez badira, oso zaila izango dute epe ertain edo luzean. Joera batera denboraz kanpoko igotzeak ez du funtzionatzen”.

Dakigun bezala, gizartearen zahartze prozesu “prozesu saihestezina eta itzulezina” da.

Eta badakigu ere, adineko pertsonak negozio aukera bat direla gaur egun. Horren inguruan Jorge Gómezek hurengo hau dio:

“Ikusten ari gara bizi-itxaropena nabarmen hazten ari dela, eta, beraz, grey market-a asko haziko da. Biztanleria-piramidea irauli egingo da, gero eta adineko pertsona gehiago egongo da. Ondorioz, orain da haiengan erreparatzeko unea, haien beharrak zeintzuk diren eta nola konpon ditzaketen ikustekoa.

Ekintzaile edo inbertitzaile batek merkatu honetan sartu nahi badu, bere xede-publikoarekin nola komunikatu beharko litzatekeen aztertu beharko luke lehenik eta behin. Kantar Worldpanel-en azterketa baten arabera, senior berrien %85ak WhatsApp erabiltzen du, eta %70ak Facebook du bere smartphone-ean. Hurbilketa desberdina izan daiteke, ez baita nahikoa saltokira mugatzea”, dio Jorge Gómezek. (Rodríguez, 2018)

Aipatutako guztia adineko pertsonak kontsumitzaile ikuspuntutik aztertuta azaldu da. Baina pertsonak batek, 55, 65 edo 70 urte dituenean, daukaten esperientziagatik, bizipenengatik eta jakituriagatik, oraindik ere gizarteari edota merkatuari hainbat ekarpen egin diezaiokete. Haiengatik apustu egin dezakegu, ez soilik kontsumitzaile moduan, baizik eta langile moduan ere.

Felipe Martín Morenoren arabera, batez ere, esperientzia, ezagutzak eta denbora da gizarteari eman diezaioketena.

Askotan hurrengoa galdetzen dio bere buruari: zergatik ez dugu orduan ibilbide luzeko profesionalik eta erretiratu nahi ez dutenak? Kontuan hartu behar da lehen aukera bat zena, denborarekin, inperatibo bihur daitekeela.

Zoritxarrez, atzeraldi-urte hauetan, enplegua eta talentua asko suntsitu dira. Milioika senior langile aurre-erretiroa hartzera behartuak izan dira.

Talentua erabat galdu da, izan ere, kasu gehienetan ez baitzen aurreikusitako pertsona horien guztien esperientzia izugarria berreskuratzeko inolako ondorengotza- edo kudeaketa-planik.

Gainera, zegoen lan-merkatuko egoera hurrengoa zen, kasu askotan 50 urte betetzen zituzten pertsonak baztertzeko egiten ziren. Gizabanako horiek beren bizitza profesionalean unerik onenean zeudela ahaztuz.

Adinekoen kolektibo honetan, ekarpen baliotsu asko ez dira ekonomikoki neurtzen, hala nola, familiako kideei emandako zainketak, etxeko mantentze-lanak edo komunitatean egindako borondatezko jarduerak. Hala ere, aitortu egin behar dira, gizarte-, ekonomia-, kultura-, kirol-, jolas- eta boluntario-jardueretan parte hartzeak ongizate pertsonala handitzen eta mantentzen eta belaunaldien arteko elkarreragina sustatzen laguntzen baituelako.

Laburbilduz, adin guztietarako gizarte baten helburua da adinekoek gizarteari laguntzen jarraitzeko aukera izatea. Izan ere, senior talentuak ez du ahaztu behar adimena, jakinduria eta esperientzia ez daudela gertatzen den horretan, gertatzen denarekin egiten dugun horretan baizik. (Foromarketing, 2016)

Adinekoengatik apustu egitearen harira ondoren azalduko dugu zeintzuk eta zergatik diren zilar ekonomia gehien aprobezia dezaketen sektoreak.

### **3.5. Zilar ekonomia gehien aprobetxa dezaketen sektoreak**

Zein sektore izan daitezkeen zilar ekonomiaren onuradun nagusiak planteatzen dugunean, Felipe Martín Moreno, Adinekoen Estatuko kontseilariaren arabera, kontuan hartzen badugu adinekoak gero eta gehiago sartzen ari direla merkatuan, sektore edo arlo guztiak izan daitezke onuradun nagusiak.

Merkataritzako eta industriako sektore guztiak kolektibo honentzako ondasun eta zerbitzuak bilatzen ari dira, baina egitura berrantolatu beharrean espezializatu egin beharko liratekeela dio Marín Moreno jaunak. Kolektibo honetan jardun nahi duten ekintzaile berriek 50 urtetik gorakoetan pentsatzen saiatu behar dira, kolektibo horren behar berriak modu egoki batean identifikatzeko eta populazio horrentzako zerbitzu-estrategia bat ezartzeko.

Ahalegin guztiak antolatu eta bideratu behar zaizkie gizarteko kide aktibo hauei, modu desberdin eta sortzailean erantzun bat eman ahal izateko, eta, gainera, balio sozial erantsia eman dezaketen produktu eta zerbitzu berriak eskaini behar zaizkie, eta, hala, ideia berritzaile bihurtuz.

Izan ere, dagoeneko industriak eta merkataritzak 50 urtetik gorakoentzat, gehien bat adinekoentzat produktu espezifikokoak sortzeko ahaleginak egiten ari dira. Beraz, Martín Moreno jaunak dio, arreta berezia eskaini beharko litzaiokeela lanbide eta lan-nitxo berrien arloko prestakuntza-arloari, gero eta erakargarriagoa den kolektibo bati zerbitzuak eta zaintza emateari dagokionez.

Osasunaren, elikaduraren edo turismoaren sektoreak dira, besteak beste, senior sektorearen aldeko apustua egiten dutenentzako etorkizuna, betiere behar funtzional eta emozionalak asetzen badira. Hiru gakotan lan egiten jarraitu behar da: produktuari buruzko informazio argia ematea, erraz irakurtzeko etiketak eskaintzea eta marketin-kanpainetan islatuta sentiaraztea, adinekoetan pentsatzea, etab. (Foromarketing, 2016)

Jérôme Pigniez-en arabera, SilverEco.fr-ko lehendakari eta autonomia pertsonalerako, gerontoteknologiako eta zilarrezko ekonomiarako teknologiaren arloko aditua, sektore tradizionalenak ongi ezarriak eta garatuak daude, hala nola, etxez etxeko laguntza eta zaintza, adinekoentzako egoitzak, etab.



Hala ere, ikerketarako eta garapenerako potentzial handia dago oraindik ere, segmentu honi lotutako produktu eta zerbitzu askotan dagoen hutsune handiagatik hain zuzen ere.

Berrikuntzari dagokionez, dagoeneko existitzen dira domotika-, robotika-, etab. proiektuak, baina hortik haratago, sektore batzuk ahaztu egiten dira maiz, hala nola kulturaz, aisiaz, desplazamendu-irtenbide alternatiboaz edota turismoaz. Azken horrek, adibidez, jada lanean zehar aipatu dugun bezala, potentzial handia du Europar Batasuneko herrialdeen artean.

Ukaezina da, sektore ekonomiko tradizionalenetatik haratago, hazkunde-joera eta potentzial izugarria duen merkatua dagoela.

Enpresa-ikuspegitik, zailtasun ekonomiko handienak izango dituztenak zilarrezko ekonomiaren trena atzerapenarekin hartzen dutenak izango dira, hau da, gaur egun bizi dugun trantsizio demografikora egokitzeko denbora gehiago beharko dutenak. Zenbat eta denbora gehiago behar izan beren produktuak edo zerbitzuak egokitzeko, orduan eta zailagoa izango zaie bide horri lehenago eustea erabaki zuten enpresa aitzindariari harrapatzea. Bestalde, lan-merkatuak ere zailtasunak ditu aldaketa demografiko honetara egokitzeko.

Pigniez jaunak zilar ekonomiaren etorkizuna idealizatzeko daukan moduaren arabera, egokitzeko zailtasun handiena izango duten aktoreak oraindik ere “adinaren-aurka” (“anti-edad”) kontzeptuarekin identifikatzen direnak izango dira, hala nola kosmetika, makillajea, kremak, etab. Laburbilduz, biztanleriaren zahartzea modu positiboan onartzeko filosofiaren aurka doan oro. (Fundación Ageing Lab, 2018)

El Pais egunkariaren arabera zahartzearen arloan inbertsioak gora egiten ari dira. Adibide bat jartzekotan, Amundi-k, aktiboak kudeatzen dituen enpresa frantziarrak, zahartzearekin lotutako negozioak dituzten enpresetan inbertitzen dituzten funtsak dituzte. Hala nola, farmazeutikoak, osasun-sektoreari lotutako teknologikoak, egoitzen enpresak, turismo- edo kosmetiko-konpainiak eta ohitura osasungarriekin lotutako negozioak, hala nola elikadura eta kirola. (Elices, 2019)

Aipatu dugu jada, ez dela egongo sektore ekonomikorik etorkizunean zahartze demografikoak eragingo ez duenik, baina badakigu nahiz eta sektore guztiei

eragin, batzuk besteek baino erraztasun eta aukera gehiago izango dituzte. Aipatutako guztia laburtzekotan ondorengo hauek dira hazten hari diren sektore nagusiak eta probetxu gehien atera diezaioketenak: (Vittalias , 2019)

- Teknologia eta digitalizazioa: Telelaguntza, osasuna eta autonomia hobetzeko produktuak. Baita, ikerketa eta garapena ere barneratu ditzakegu teknologiaz ari garenean. Teknologia egokituak, nitxo honek eskaintzen dituen aukera guztien hasiera besterik ez da.
- Osasun arloa: Bai maila publikoan baita pribatuan ere. Aldaketak hasi besterik ez dira egin, bai mendekotasunarekin bukatzeko, baita eskakizun klinikoak betetzeko ere. Bertan adinekoentzako egoitzak, elikadura, laguntza eta zainketa barneratu ditzakegu
- Aisialdi egokituak: Gure herrialdean IMSERSO bezalako laguntzarekin, aisialdia independentziari eta hobekuntza emozionalari laguntzen dion ardatza da. Lehen aipatu dugun bezala, turismoak berebiziko garrantzia dauka.
- Higiezinaren sektorea: Adinekoen merkatua tranpolina izan da higiezinaren agentziek beren negozio-ereduak dibertsifikatzeko, eta soilik adineko pertsonen zuzendutako etxebizitza-segmentuak sortzeko, hala nola mugikortasun osoa edo partziala dituzten etxebizitzak edo geriatrikoak. (Instituto de capacitación hipotecaria e inmobiliaria, 2018)
- Hezkuntza arloa: Inoiz ez da berandu ikasteko, eta hau ongi dakite programa eta ikastaro egokituak eskaintzen dituzten hezkuntza-erakundeek. Haien zaletasunarekin konektatzeko aukera aparta da.

### **3.6. Gipuzkoa erreferente bezala: Etorkizuna Eraikiz**

Etorkizuna Eraikiz, Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratutako liburuak (2019), argi uzten du zer den eta zer testuingurutan abiarazi zen ekimen garrantzitsu hau.

Liburuan murgildu baino lehen argi utzi behar da azken urte hauetan Etorkizuna Eraikiz bezalako ekimen batek bere proiektu desberdinekin lortu duena. Izan ere, gaur egun erreferente bat bilakatu da.

Aldundiak bere web orrian argitaratu duen bezala, United Cities and Local Governments (UCLG) erakundearen txosten batek Gipuzkoako Foru Aldundia jardunbide egokien adibide gisa jarri du, Nazio Batuen 2030 Garapen Iraunkorreko Helburuen esparruan egindako lanagatik.

Esan bezala, Etorkizuna Eraikiz aterkiaren azpian egindako lan honek izugarrizko inpaktua izan du.

Orain bai, liburuan zentratuz, Etorkizuna Eraikiz ekimenak Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2015-2019 aldirako Kudeaketa Plan Estrategikoan du bere jatorria, Gipuzkoako Foru Aldundiaren gobernuaren eta gipuzkoar gizartearen artean erlazionatzeko prozedura berritzailea proposatu zen. Kudeaketa Plan Estrategikoa gobernuaren ekintza bideratzeko tresna nagusia da.

Proiektuaren ikuspegiari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren gobernutik “politika egiteko” modua aldatu nahi du, ildo beretik, “politika egiteko”, Gipuzkoako Foru Aldundiaren gobernuaren eta lurraldeko eragile eta agentzia sarearen artean truke eta elkarlan ohikoa eta eraginkorra sustatu nahi du eta bukatzeko, aipatutako trukea eta elkarlana erraztu nahi du, oraingo agenda publikoa diseinatzeko, agendari elkarrekin erantzuteko, eta etorkizuneko erronkei aurrea hartzeko.

Ekimenaren helburuei dagokionez, ondorengo hauek identifikatzen dira:

1. Etorkizuneko erronkak identifikatzea

Gipuzkoako Foru Aldundiaren gobernuak gipuzkoar gizartearen parte hartze aktiboa sustatu eta bultzatu nahi du, lurraldeak epe laburrera eta ertainera izango dituen funtsezko erronkak eta premiak identifikatzeko.

Herritarrentzat kezka da etorkizuna. Gau batek baino gehiagok sortzen die kezka eta urduritasuna: babes soziala, aukera berdintasuna, lan balditza, lan merkaturako sarbidea, zahartzea, klima aldaketa, eta abar.

Herritarrekin hitz egitea da etorkizuneko erronkei aurre egiteko modu onena; horrela, zehatz-mehatz identifikatuko dira haien funtsezko beharrak eta kezkek.

## 2. Agenda publikoa guztion artean taxutzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren asmoa lurraldeko agenda publikoa elkarlanean prestatzea da, gipuzkoar gizarteko beste hainbat eragilerekin batera, edukiak, helburuak eta funtsezko lehentasunak partekatuta.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren gobernuaren ustez, bera ez da agenda zehaztu eta politika publikoak prestatu behar dituen eragile bakarra.

Egia da agenda publikoa zehazteko prozesuaren buruan aritu behar duen ezinbesteko eragilea dela, baina baldintza egokiak sortu behar ditu lurralde erakunde eta instituzio kultural, sozial eta ekonomiko guztien arteko elkarlana egonkorra izan dadin.

## 3. Politika publikoen diseinuan eta esperimenezioan elkarlanean aritzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren gobernuak modu irekian eta parte hartze bidez diseinatu eta esperimentatu nahi ditu lurraldearen funtsezko erronketarako irtenbideak, horiek politika publikoetan txertatu eta gipuzkoar gizarte osora hedatu ahal izateko.

Elkarrekin lan egiten eta Gipuzkoako politika publikoak diseinatzen eta esperimentatzen ikastea da kontua, lurraldean dauden gaitasunak eta jakintzak baliatuz. Horretarako, parte hartzeko aukera emango die unibertsitateei, enpresei, erakunde sozialei eta beste instituzio batzuei, lankidetzan aritzeko eta ondoren politika publikoetan txerta daitezkeen esperientzia pilotuak garatzeko.

## 4. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eraldaketa sustatzea

Gipuzkoako Foru Aldundiko politikariak eta teknikariak funtsezkoak dira Etorkizuna Eraikiz modu pozgarrian gara dadin.

Gipuzkoako gobernantza irekiaren eta lankidetzakoaren eredu hori "politika egiteko" modu berria da, eta, horrenbestez, Gipuzkoako Foru Aldundiko funtzionamenduaren kultura aldatzea eskatzen du; hau da, politikariek eta teknikarien jardunbideak eta erlazionatzeko moduak eraldatu behar dira.

Arian-arian, elkarlanean eta zeharka kudeatzeko aukera emango duen egitura berriago batekin ordezkatu behar da Gipuzkoako Foru Aldundiaren oraingo egitura atomizatua eta zatikatua. Ildo horretan, ezinbestekoa da guztiok ondo ezagut dezatela eredua, kontakizun bateratua eta homogeneoa izatea, eta

pertsona bakoitzak jokaleku berrian zer eginkizun betetzen duen ulertzea. Ildo beretik, Etorkizuna Eraikiz ereduak aukera eman nahi du erantzukizun eta lidergo eremuak bi alderdi politiko desberdinetako diputatuen artean banatzen dituen koalizio gobernuaren aniztasunari buruzko pedagogia egiteko. Izan ere, administrazioa eraldatzeko esparruan gainditzeko dagoen erronketako bat da horren emaitza lan integratua, koherentea eta koordinatua izan dadila.

Funtsean, barne lankidetzeta (Aldundiko politikarien eta teknikarien artean) eta kanpo lankidetzeta (Aldundiaren politikari eta teknikarien eta herritarren artean) indartzera eta maiz errealitate bihurtzera bideratu behar dira ahalegin horiek guztiak.

Gainera, Etorkizuna Eraikiz ereduak bi espazio nagusitan eta lotura organo batean bermatzen da.

#### 1. Espazioak

- Gipuzkoa Taldean: Hausnartzeko eta proposamenak egiteko gunea da.
- Gipuzkoa Lab: Esperimentatzeko eta ikasteko espazioa da. Etorkizuneko esperientzia aurreratuen laborategia da.

#### 2. Organoak

Bi espazio horiek kudeatzeko eta erlazionatzeko, lotura organo bat du: Proiektu Bulegoa Etorkizuna Eraikiz ereduak entzute eta erabaki organoa da.

Espazioen barruan gainera, (Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab) hiru zehar lerro agertzen dira sistematikoki:

- Ikerketa
- Nazioartekotzea
- Zabalkundea

Eta, hiru prozesu garatu behar dira:

- Kudeaketa
- Gizarteratzea
- Komunikazioa

Proiektuei dagokionez eta Etorkizuna Eraikiz web orrian (2020) ikusi dezakegun bezala, ekimenaren barruan daudenak hiru mailatan banatzen dira:

- Erreferentzia zentroak eta proiektu estrategikoak

- Proiektu esperimentalak
- Diruz lagundutako proiektuak

Ondoren, azpitalde bakoitzean barneratzen diren hainbat proiektu izendatuko dira. Lehenengo azpitaldearen barruan ondorengo proiektu hauek aurki ditzakegu: Ziur, Naturklima, Mugil, LABe, Adinberri, Koldo Mitxelena Kulturunea 2040 eta Elkar Ekin.

Bigarren azpitaldearen barruan hauek: Lurralde Garapenerako Laborategia, OK en casa, Langileen parte-hartzea enpresetan, Turismo adimentsurako teknologia, Etxean bizi, etab.

Bukatzeko, azken azpitaldearen barruan: ARIZMENDI KOOP - gazteen gipuzkoa, APTES – elkarfide, GALTZAUNDI - euskara Tolosaldean, Andoaingo Udala - beterrri-buruntza, ADEGI - gazteen motibazioa ikasketetan, etab.

Etorkizuna eraikiz, gero eta proiektu gehiago dauzka eta hauei bideratzen dien ditu kantitatea izugarria da. Ildo honetan, Iraitz Astarloak (2020) urtarrilaren 29an Noticias de Gipuzkoa egunkarian argitaratu zuen albisteak dioen moduan: "2016. urtean sortu zen Etorkizuna Eraikiz estrategia, politika egiteko modu "eraldatzailea". Hiru urteko ibilbidearen ondoren, aurrerapauso bat eman zuen atzo, bere eredia eta kudeaketa-plana onartua izan zenean. Honi esker, Etorkizuna Eraikiz-ek bere eragina eta ekintza-erradioa handitu ahal izango ditu. Aurten, planak 22 milioi euroko aurrekontua izango du, horietatik 14 milioi erreferentzia-zentroetarako erabiliko dira (zahartzea, zibersegurtasuna, gastronomia digitala, elektromugikortasuna eta euskarazko ikus-entzunezko edukiak sortzea), eta 32 proiektu esperimental, aurreko legegintzaldian hasi ziren 8 eta 24 berriz."

Ikusi izan dezakegun bezala, Etorkizuna Eraikiz proiektu desberdinak dauzka, gaur egungo eta etorkizuneko behar eta erronka guztiei modu egokian aurre egin ahala izateko. Baina, zilar ekonomiarekin zerikusi handia duen proiektuan zentratuko gara.

### **Adinberri proiektua**

Etorkizuna Eraikiz-en web orrian (2020) irakurri dezakegun bezala, gizartearen zahartzeari aurre egiteko eta adineko pertsonen bizi kalitatea hobetzeko estrategia integrala da. Zahartzaroaren inguruko estrategia publikoak zein

pribatuak hobeto kudeatzen laguntzen duen berrikuntza-unitatea izateko helburua du.

Gipuzkoako Zahartzearentzako Erreferentziazko Zentroa da Adinberri, eta Adinberri Estrategia garatzeko funtsezko elementuetako bat da lurraldeko Zahartze osasuntsuarentzako. Gipuzkoan, 2031n, 55 urte baino gehiago izango dituzte biztanleen %46,5ek.

Datu demografiko horiek bihurtzen dute zahartzea haien erronka garrantzitsuenetako bat, baina aldi berean aukera dira gipuzkoarron osasuna eta bizi kalitatea hobetzeko eta kontsumo publikoari eta pribatuari lotutako jarduera ekonomikoa sorrarazteko.

Gipuzkoako Foru Aldundiak etorkizunari arlo honetan aurrea hartzeko eta, hainbat eragilerekin batera Adinberri, Gipuzkoan Zahartze Osasuntsurako Estrategia, eta Zahartzeari Arreta Osoa ematean espezializatuta dagoen Pasaiaiko Erreferentziazko Zentroa sortzeko erabakia hartu du.

Adinberri Estrategiak gure lurraldea zahartzeari arreta emateko eredu aurreratuenaz hornitzea du xede funtsezko bost euskarriren bitartez:

- Estrategia sustatzeko eta abiarazteko ardura duen fundazioa.
- Ekosistema sozio-sanitarioa biltzen duen klusterra.
- Berrikuntzako agenda estrategikoa.
- Teknologia eta Ikerketa Aplikaturako poloa.
- Laguntza programa.

120 plaza izango ditu Pasaiaiko Zahartze Integralari Arreta emateko Zentroak, 21 babespeko apartamentu eta eguneko zentro bat adinekoentzat. Gainera, gisa honetako zentro bat aukera bikaina da arreta sozio-sanitarioan esku hartzen duten agenteen arteko elkarlana eta koordinazioa bideratzeko eta Gipuzkoako arlo honetako berrikuntza eta espezializazio aukerak maila gorenera eramateko.

Horretarako, industria, unibertsitatea eta esparru honetan lan egiten duten berrikuntza eragileak bilduko ditu Pasaiaiko zentroari benetan esperimendatzeko ingurune bat eskaintzeko.

## Helburuak

- Adinekoen zaintzan berritzailea izango den egoitza bat sortzea.
- "Etxean ez bada, etxean bezala" ereduari bultzada ematea.
- Erreferente izatea adinekoen ongizate eta osasunaren prebentzioan, zaintzan eta sustapenean.
- Eskualdean integratuko den zaintza ekosistema bat sortzea, beste eskualde batzuetara esportatzeko modukoa.
- Eragile izatea Pasaiaiko Badiaren Biziberritze Planean.

## Zerbitzuak

- Adineko pertsonen egoitza 120 plazarekin.
- 21 babespeko apartamentu.
- Eguneko zentroa.
- I+G+b eta zahartzeari buruzko prestakuntza.
- Pasaiaiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bulegoak.
- Beste erabilera komunitario batzuk.
- Plaza eta berdeguneak aire zabalean.
- Aparkalekua.

### **4. Zilar ekonomia: 50 urtetik gorakoak ekintzaile bezala**

Lehenago aipatu bezala, zilar ekonomia ulertzeko beste modu dago, hau da, zilar ekonomia ulertzen dugu, 50 urtetik gorako pertsonak ekimenak martxan jartzeko, hau da ekintzaile izateko, duten gaitasuna bezala. Ekonomia berri honen barruan 50 urtetik gorako pertsonak aukera hau aurkezten zaie, noski, aukera honi hasiera emateko hainbat motibazio edukiko dituzte, baina zenbait oztoporekin ere aurkituko dira.

50 urtetik gorako pertsonen ekintzailtza, senior ekintzailtza (senior preneurship) ere deitzen zaiona, azken urteotan garrantzi berezia hartu duen azterketa-eremua da. Alde batetik, dakigun bezala, demografiak etengabe aurrera egin duelako, batez ere bizi-itxaropena handitu delako, eta, bestetik, jaiotza-tasa jaitsi egin delako, politika publikoen ardatza da ekintzailtza,



hazkunde ekonomikoari eusteko eta osasun- eta pentsio-gastuak arintzeko. (Velilla & Sánchez Gracia, 2018)

Aurrekari hauek edukita, ondorengo puntuetan sakon eta luze arituko gara gai honen inguruan.

#### **4.1. Global Entrepreneurship Monitor**

50 urtetik gorako pertsonen ekintzailtza GEM txostenetan oinarrituz aztertuko dugunez, lehenik eta behien GEM proiektu zer den ezagutu eta ulertu behar dugu.

Saiz, Hoyos, González-Pernía, Peña, González, Guerrero eta Urbano-k, (2019) haien txostenean dioten moduan, GEM proiektua nazioarteko behatoki bat da, urtero fenomeno ekintzailea aztertzen duena. Haren jarduera 1999an hasi zen, London Business School eta Babson College-ren eskutik. Proiektuaren babespean eta hura osatzen duten ikerketa-taldeek partzuergoari esker, urtero argitaratzen dira ekintzailtzari buruzko txostenak, esparru globalean, nazionalean, eskualdekoan eta tokikoan.

Urteko txosten erregularrez gain, GEM proiektuko ikerketa-taldek txosten monografiko bereziak egin ohi dituzte, fenomeno ekintzailearen alderdi espezifikoei buruz. Adibidez, ekintzailtza eta generoa, hezkuntza eta prestakuntza ekintzailea, landa-ekintzailtza, hazkunde-ahalmen handiko ekintzailtza, ekintzailtzaren finantzaketa, ekintzailtza soziala eta trebakuntza korporatiboa, besteak beste.

Informazio-tresna integraltzat hartzeaz gain, GEM proiektuak ekintzailtzarekin lotutako ikerketa elikatzen duten oinarritzko arloei buruzko datuak ematen ditu:

1. Populazio helduaren balioak, pertzepzioak eta jarrera ekintzaileak.
2. Jarduera ekintzailea eta haren ezaugarriak.
3. Prozesu ekintzailea garatzen den testuingurua.

Ekintzaileak identifikatzeko, GEM-ek gaitasun ekintzailea erabiltzen du (TEA, Total Early-Stage Entrepreneurial Activity). TEA, enpresa-jarduera osoa etapa goiztiarrean, sortzen ari den edo negozio baten jabe den 18 eta 64 urte

bitarteko populazioaren ehunekoa da. Aldagai dikotomiko horrek 1 balio hartzen du ekintzaileentzat, eta 0 balioa gainerako gizabanakoentzat. Datu-base horrek baditu, halaber, gizabanakoen ezaugarri sozioekonomikoei buruzko aldagaiak (adibidez, familiaren tamaina, adina, hezkuntza-maila, diru-sarrerak...), lan-arlokoak (lan-egoera) eta ekintzaile izateko erabakia hartzean eragina izan dezaketen beste aldagai batzuk, hala nola, enpresa-trebetasunen autopertzepzioa, porrotarekiko beldurra, beste ekintzaile batzuk ezagutzea, etab. (Salillas, 2020)

Aipatu bezala, Euskal herrian ere GEM txostena lantzen da. Duela 15 urte jada, "GEM País Vasco" txostenak eskualdeko ekintzailetzari buruzko datuak aztertu eta biltzen ditu. Maila akademikoan, politikoan eta sozialean balioa ematen duten aldagaien aniztasunak funtsezko elementu bihurtu du politika publikoak eraginkortasunez bideratzeko. Izan ere, gobernu-programek eta azpiegiturek kalifikazio gorenari lortu dute berriro.

Ekainaren 26an, GEM Euskadi 2018/19 txostena aurkeztu zen. Bertan, besteak beste, honako hauek aztertzen dira: euskal pertsona ekintzaileen ehunekoa, haien ezaugarriak, identifikatutako ekimenen kalitatea eta gizarteak jarduera ekintzailearekiko dituen jarrera eta balioak.

GEM Euskadi txostena UPV/EHUko, Deusto Business School-eko, Mondragon Unibertsitateko, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko eta Newcastle Business School-eko ikertzaile-taldeek egiten dute. Gainera, SPRIren, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien eta Emilio Soldevilla Fundazioaren laguntza du. (Bizkaia beaz, 2019)

GEM txostenarekin bukatzeko garrantzitsua da jakitea nola definitzen dituen pertsonak adinaren arabera. Horrela ondorengo azterketa hobeto ulertuko dugu. Egia esan, lanean zehar jada aipatu ditugu seniorrak 50-64 urtekoak liratekeela eta adinekoak 65 urtetik gorakok, baina taula irudikatuta edukitzea erosoagoa egingo zaigu ondoren datozen beste taulak hobeto ulertzeko.

**Taula 3. GEM txostenaren pertsonen definizioa adin tartearen arabera.**

Gazteak	18-29
Adin ertainekoak	30-49
Seniorrak	50-64
Adinekoak	65-80

Iturria: Egileak moldaturikoa, GEM txostenaren datuetan oinarrituz, 2016-2017

#### **4.1.1. Senior eta adinekoen ekintzailtza**

Arkebauer-ek (1995) ezartzen duenez, hirugarren adineko ekintzaileak 50 urte baino gehiago dituztenak eta negozioren bat dutenak dira, negozioaren tamaina kontuan hartu gabe.

Bestalde, Baucus eta Human (1994) hirugarren adineko ekintzaileak 50 urte baino gehiagorekin negozioren bat hasi dutenak dira, iraganean sortutako negozioak kontuan hartu gabe.

Bestalde, Blackburn eta konpianiak (2000) hirugarren adineko ekintzaileak definitu dituzte, 50 eta 75 urte bitartean negozio batean diharduten eta, gainera, negozioa 50 urte edo gehiagorekin sortu duten gizabanako gisa. Oro har, ikerketa berriagootan, termino hori negozio bat hasteko prozesuan dauden edo negozio bat hasi duten 50 urte edo gehiagoko pertsoneri dagokie (Kautonen, 2012). (Oelckers, 2015)

Padilla Gongora, Aguilar Parra, Díaz López eta Manzano León-ek 2016ean argitaratutako azterketa baten arabera, adineko pertsoneri dagokien ekintzailtza, “Grey entrepreneurship” edo “Older entrepreneurship” bezala ere ezagutzen dena, 60 urte edo gehiagoko gizon eta emakumeek beren negozioa abian jartzeko adierazitako enpresa-ekimena da, zahartze-prozesuaren berezko erronkei aurre egiteko estrategia gisa.

Azterketa berdinak dio, Kuratkok eta Hodgettsek (2004) lau dimentsioren bidez enpresa berri bat sortzera daraman berrikuntza-prozesu gisa definitzen dutela ekintzailtza: pertsonala, antolaketakoa, ingurumenekoa eta lankidetzaprozesua. Dahalan, Jaafar eta Rosdiren ustez (2013), enpresak sortzeko prozesu horretan parte hartzen duen pertsonak edo parte hartzen duten

pertsonak beren aukerak sortu nahi dituzte, baliabide mugatuak dituzten prozesu berritzaileak erabiliz.

Hala ere, ez dago definizio absoluturik. Ondorioz, egokiagoa izango litzateke senior ekintzaile bezala 50 urtetik gorako pertsonak eta negozio bat hasi nahian ari direnak kontsideratzea. Ahaztu gabe, 60 urtetik gorako pertsonak definitzeko, adineko pertsona kontzeptua erabili dezakegula.

Senior pertsonen ekintzailtza erretiro-eredu alternatibotzat har daiteke, etxeko eta gizarteko esparruetan soilik oinarritzen baita. 60 urtetik gorako pertsona batzuk negozio bat garatzeko gai dira erretiroa hartu ondoren, mendekotasun gutxiago sortuko dien aparteko diru-sarrera bat lortzeko asmoz (Wainwright eta Kibler, 2013).

Ekintzaitzarekin lotutako aldagaien artean, sexua, adina, hezkuntza eta egoera zibila dira ekintzaitzara eta autoenplegura bultzatzen duten faktore nagusiak. Autoenplegurako joera handiena izan dutenak 50 urtetik gorako gizon ezkonduak izan dira (Fairlie eta Meyer, 1996; Blanchflower, 2000 eta Lombard, 2001, Zissimopoulos eta Karolyk aipatua, 2005). Pertsona horiek ezgaitasunen bat izatea ere erabakigarria da; izan ere, hala bada, Fairlieren eta Meyer-en arabera (1996) autoenplegua sortzeko aukera handiagoa dute.

Beste autore batzuek (Singh eta Denoble 2003), (Walker eta Webster 2007) edo (Kautonen, Tornikoski eta Kibler 2009) uste dute pertsona nagusien ekintzailtza-nahia handitu egingo dela etorkizunean, jarduera honek ekar dezakeen erakarpenarekin lotutako faktoreen ondorioz, eta aipatutako faktoreek pertsona horien jarduerara bultzatuko dutelako (pull and push).

Autore horien ustez, erakartze-prozesuak gerta daitezke, etorkizunean 60 urtetik gorako pertsona gehiago egongo baitira, lan-munduko hainbat sektoretan esperientzia dutenak, lanean aktibo jarraitu nahi dutenak eta beren bizimodua mantendu edo hobetzeko eta beren beharrak asetzeko alternatiba gisa finantza-baliabideak dituztenak ekintzaile izateko.

Ekintzaitzarak dakartzkien onuretako bat "pentsioen" gaiarekin du zerikusia. Kibler-ek, Wainwright-ek, Kautonen-ek eta Blackburn-ek (2015) adierazi dutenez, 50 urtetik gorakoek ekintzaitzarak onura sozial handiak ditu, pensio-sistemaren kostuak murrizten dituelako, langabezia-tasa murrizten duelako eta

langile zaharrenen giza kapitala aprobetxatzen delako. Ikuspegi pertsonaletik, ekintzailtzari dagokionez, lanaren eta bizitza soziofamiliarren arteko oreka malgutasunez kudeatzeko aukera dute, bai eta erakundeetan adina dela-eta gertatzen den diskriminazioa murrizteko aukera ere; izan ere, erakunde horietan, askotan, ezgai bezala epaituak izaten dira, aldaketak kudeatzeaz eta teknologia berriak erabiltzen ikasteaz gain, langile gazteenekin batera.

Oro har, 50 urtetik gorakoek finantza-munduan sartzeko gaitasun handiagoa izaten dute langile gazteenen aldean (aurrezkoa eta historia pertsonala). Halaber, ohikoa da komunikazio-trebetasunak eta, jakina, gizarte-sare zabalagoak ongi garatuak edukitzea. Maritz, Zolin, de Waal, Fisher, Perenyi eta Eagerrek 2015eko azterlanean adierazten zuten bezala, seniorrek gazteenek baino giza, gizarte- eta finantza-garapen handiagoa dute. (Padilla Góngora, Aguilar Parra, Díaz López, & Manzano León, 2016)

Aipatutako guzti hau sakon eta luze aztertuko dugu hurrengo puntuetan, bai ekintzailtzaren presentzia Euskadin, baita banan bana ekintzaile izatera bultzatzen dieten faktore eta motibazioak ere. Horrekin batera gainera, negozio berri bat martxan ez jartzeko dituzten beldurrak edota oztopoak zeintzuk diren ere ezagutzea eta aztertzea da asmoa.

Orain, 50 urtetik gorakoen ekintzailtzaren azterketari ekingo diogu, esan bezala datuak GEM txostenetan oinarritzen dira.

Senior Ekintzailtzari buruzko GEM Txosten bereziaren arabera, 50 urtetik gorako ekintzaileek onura nabarmenak eskaintzen dizkiete biztanleriaren zahartzearekin borrokatzen ari diren ekonomiei.

Ekintzailtza Seniorrari buruzko GEM (Global Entrepreneurship Monitor) Txosten bereziak adierazten du bere kontura lan egiten duten seniorren kopurua, 18 eta 29 urte bitarteko gazteen kopurua baino handiagoa dela.

Horrek adierazten duena da, 50 urte edo gehiagoko pertsonak zeregin garrantzitsua dutela mundu osoko ekonomietan.

2009 eta 2016 bitartean 104 herrialdeetako jarduera ekintzaileari buruz bildutako datuetan oinarritzen da txostena. Laginak 18 eta 80 urte bitarteko milioi eta erdi pertsona baino gehiago biltzen ditu, munduko bost eskualdetan banatuta:

Saharaz hegoaldeko Afrika, Afrikako Ekialde Ertaina eta Iparraldea, Asiako hego-ekialdea, Latinoamerika eta Karibe eta Europa.

Txostenean ageri diren zifrek garrantzi berezia dute populazio zahartuak dituzten ekonomientzat. Gutxi gorabehera 55 urte edo gehiago dituzten munduko biztanleen %16arekin, adin aurreratuetako jarduera ekintzailearekin zerikusia duten gaiek zuzenean eragiten diete 1.200 milioi pertsona baino gehiagori.

Pertsona horiek balioa eman dezakete ekimen berriak bultzatuz, barne-ekintzaile gisa berrikuntza sortuz edo inbertsiogile informal gisa proiektuetan parte hartuz.

Txostenaren arabera, 50 eta 64 urte bitartekoen %18a eta 65 eta 80 urte bitartekoen %13a beren konturako langileak dira, 18 eta 29 urte bitarteko gazteen %11ren eta adin ertaineko (30-49 urte) %18aren aldean. Ekintzaitzari laguntzeko programa asko segmentu gazteenetara bideratuta badaude ere, txostenak iradokitzen du ekintzaile zaharrenen laguntza osagarriak ere onurak ekar ditzakeela egonkortasun ekonomikorako.

Eskualde mailan, ekintzaitza seniorra (50 eta 64 urte bitartekoa), bai ekimen-asmoari dagokionez, bai hasierako etapako jarduera ekintzaileari dagokionez, handiagoa da Afrikan (%35/%19) edo Latinoamerikan eta Karibearen (% 27/%14) Europan baino (% 6/%4). Zenbaki horiek bat datoz GEMen ondorioekin. Ondorio horiek adierazten dute jarduera ekintzailearen mailak handiagoak izan ohi direla ekoizpen-faktoreek bultzatutako ekonomietan (horietan, askotan, ekimenez trebetasun apalagoak eta hazteko diru gutxiago behar izaten dituzte) eraginkortasunak edo berrikuntzak bultzatutako ekonomietan baino, horien artean Espainia daukagu adibide gisa. (CISE, 2020)

Ekintzaitza aztertzeko momentuan garrantzitsua da generoaren eragina ezagutzea eta nabarmentzea.

Adineko pertsonen artean, negozio bat benetan hasteko asmoa txikiagoa da gazteenen artean baino.

Ondoren aztertuko da generoak zenbateraino eragiten duen pertsonak duten enpresa-joeran. Hurrengo datuak Schoot, Rogoff, Herrington eta Key-ek aurrera eramandako GEM txostenean oinarritzen dira (2017).

Azterlan askoren arabera, emakumeek zailtasun handiagoak dituzte ekintzaile bihurtzeko. Oztopo horien artean daude: etxeko erantzukizun-maila altuagoak, hezkuntza-maila apalagoak (batez ere garapen-bidean dauden herrialdeetan), enpresa-sektorean eredu femininorik ez izatea, beren komunitateetako negozioetara bideratutako sare gutxiago egotea, kapital- eta aktibo-falta, gizartean estatus txikiagoa eta negozioetan arrakasta izateko gaitasunean kulturalki eragindako asertibitate- eta konfiantza-falta.

GEM-ek lehenago burututako txostenek frogatu dute, nahiz eta gizonek eta emakumeek etapa goiztiarrean enpresa-jardueran duten parte-hartzearen proportzioa nabarmen aldatzen den.

Aurkikuntza garrantzitsu bat ondorengoa izan da: gizonek enpresa-jardueran parte hartzeko aukera gehiago dituztela.

Adin-kategoria edozein dela ere, gizonek aukera gehiago dituzte ekintzaile adierazteko eta negozio bati ekiteko, beste taldearekin, hau da, emakumeekin alderatuz.

4. taulak adierazten duenez, enpresa-asmoei dagokienez, genero-berdintasuna positiboagoa da gazteen eta adin ertainekoen artean. Adin-talde horretan, hamar gizoneko zortzi emakumek enpresa-asmoak adierazi zituzten. Enpresa-asmoak apalagoak dira emakume adindunen artean, hamar gizoneko zazpi emakume baino gutxiago baitaude adin-talde horretan negozio bat hasteko asmoa dutenak.

**Taula 4. Enpresa-asmoak pertsonen artean, adinaren eta generoaren arabera (2009-2016)**

	Gazteak	Adin ertainekoak	Seniorrak	Adinekoak
Negozio bati ekiteko asmoa duten emakumeak	%28*	%21	%11	%6
Negozio bati ekiteko asmoa duten gizonezkoak	%34	%27	%16	%8

Iturria: Egileak moldaturikoa, GEM txostenaren datuetan oinarrituz, 2016-2017

\*Horrela ulertu behar dugu: emakume gazteen %28k (18 eta 29 urte bitartekoak) adierazi du hurrengo hiru urteetan negozio bati ekiteko asmoa duela.

Oso litekeena da adin-talde horretako emakumeek etxeko erantzukizun-maila nahiko altua izatea oraindik ere, eta horrek eragin mugatua izan lezake enpresa-ekimenera arriskatzeko prestutasunean.

Enpresa-asmo apalenen ildotik, hasierako etapan emakumeek parte-hartze txikiagoa izaten dute enpresa-jardueran, gizonezkoekin alderatuta (5. taula). Bai gizonentzat bai emakumeentzat, TEA tasek ez dute aldaketarik erakusten konparatzean.

**Taula 5. Jarduera ekintzailea (TEA) etapa goiztiarrean, adinaren eta generoaren arabera (2009-2016)**

	Gazteak	Adin ertainekoak	Seniorrak	Adinekoak
TEA (emakumezkoak)	%11*	%11	%6	%3
TEA (gizonezkoak)	%15	%16	%9	%5

Iturria: Egileak moldaturikoa, GEM txostenaren datuetan oinarrituz, 2016-2017

\*Horrela ulertu behar dugu: emakume gazteen %11 (18 eta 29 urte bitartekoak) lehen etapetan aritzen da enpresa-jardueretan.

Gizonentzat zein emakumeentzat, TEA tasek ez dute aldaketarik erakusten gazteak eta adin ertainekoak alderatzean. Berrogeita hamar urtetik aurrera, nabarmen jaisten da TEA jarduera bi sexuetan. Adineko pertsonen lehen etapetako enpresa-jarduerari dagokionez, genero-aldea handiagoa adierazten dute, adin-talde horretako hamar enpresaburu gizoneko sei emakumek baino ez dute parte hartzen TEA-n.

Enpresaburu gehienei aurkezten zaizkien aukerengatik erakarriak izaten dira ekintzaile izatera, beharragatik bultzatuak izan beharrean,

Datuak generoaren arabera banakatzen direnean, eredu bera ikusten da (6. taula). Hala ere, adin-talde guztietan, errazagoa da gizonek aukerengatik erakarriak izatea, beren kontraparte femeninoarekin alderatuz.



Adineko emakumeek probabilitate handiagoa dute aukerarengatik motibatuta egoteko eta ekintzailtzari ekiteko, beharragatik ekin beharrean, bizimodu jasangarrirako beste aukerarik ez dutelako.

Bestalde, adin-talde honetako gizonak probabilitate bikoitza dute aukera bat bilatzeko, beharrak bultzatuta egon beharrean.

**Taula 6. Negozio bat hasteko arrazoa, adinaren eta sexuaren arabera (2009-2016)**

	Motibazioa	Gazteak	Adin ertainekoak	Seniorrak	Adinekoak
Emakumeak	Aukera	%58*	%56	%48	%50
	Beharra	%41	%43	%43	%37
Gizonak	Aukera	%64	%60	%56	%60
	Beharra	%35	%34	%38	%30

Iturria: Egileak moldaturikoa, GEM txostenaren datuetan oinarrituz, 2016-2017

\*Horrela ulertu behar dugu: Etapa goiztiar batean ekintzailtzan parte hartzen duten emakume gazteen %58a (18 eta 29 urte bitartekoak) aukera desberdinek bultzatzen ditu.

Generoa aldea batera utziz, garrantzitsua da ere jakitea ekintzaile izateko prest dagoen banakako batek nondik lortzen duen beharrezkoa den dirua, hau da, zein den bere finantzazio iturria.

Funts nahikoak ziurtatzea baliabide garrantzitsua da enpresa guztientzat, batez ere enpresa berrientzat eta hazten ari diren enpresentzat. Ekintzaileak beren aurrezkiekin has daitezke, baina beste batzuen dirua ere jaso dezakete, maileguak edota inbertsioak barne. Ondorioz, enpresaburuei galdetzen zaie, "Jaso al duzue edo jasotzea espero duzue negozio hau hasteko ondorengo hauetako baten dirua (maileguak edo inbertsioak)?" Finantzazio iturriak zeintzuk diren 7. Taulan ikusi ditzakegu.

Enpresa-ekimenetarako finantzaketa-iturriak oso antzekoak dira adin-kategoria guztietan, eta familiako kideak eta bankuak / bestelako finantza-erakundeak dira finantzazio-iturri nagusiak, ekintzailearen adina edozein delarik ere. Espero zitekeen bezala, gazteek aukera gehiago dute familiaren mende egoteko

finantzaketa-iturri gisa; izan ere, hasierako etapako ekintzaileen ia erdiak adin tarte honetan familiako kideen mende daude beren enpresak finantzatzeko.

Hala ere, hiru talde zaharretan, enpresaburuaren heren batek, gutxi gorabehera, familia-baliabideak erabiltzen ditu negozioak hasteko. Kontzientzia teknologikoa, askotan, belaunaldi zaharrentzako muga gisa ikusten denez, pozgarria da ikustea bai adinekoek bai seniorrek aukera gehiago dutela online crowdfunding-a erabiltzeko, enpresaburu gazte eta adin ertainekoek bezala.

**Taula 7. Hasierako etaparako ekintzaileen finantzazio-iturriak, adinaren arabera (2015)**

Iturriak	Gazteak	Adin ertainekoak	Seniorrak	Adinekoak
Familia kideak	%46*	%36	%30	%35
Lagunak	%15	%11	%8	%9
Lankideak	%10	%8	%6	%6
Bankuak edo beste finantza-erakundeak	%31	%34	%30	%28
Inbertitzaile pribatuak edo arrisku kapitala	%11	%10	%9	%11
Gobernu programak, donazioak edo subentzioak	%17	%16	%15	%18
Online crowdfunding-a	%6	%4	%5	%5

Iturria: Egileak moldaturikoa, GEM txostenaren datuetan oinarrituz, 2016-2017

\*Horrela ulertu behar dugu: gazte ekintzaileen %46ak (18 eta 29 urte bitartekoak) familiako kideen finantzazioa lortzen dute beren enpresentzat.

**Euskal Herri mailako** ekintzaitzari dagokionez, GEM txostenetatik atera dezakegun informazio garrantzitsuena ondorengo hau da. (Bizkaia beaz, 2019)

Txostenaren arabera, jarduera ekintzailea neurri batean egin murriztu da: pertsona ekintzaileek Euskadiko biztanleen %5 inguru osatzen dute.

Profila gizon batena da (%55,1), batez beste 43 urteko adinarekin (aurreko urtean baino 3 urte gehiago), prestakuntza maila altuarekin eta errenta maila

handiagoarekin. Ekintzaile izateko arrazoi nagusia aukerak identifikatu izana da.

Talde sustatzailearen ekarpenak dira finantziazio-iturri nagusia (%58); ondoren, banku-erakundeak (%21,1), laguntza publikoak (%5,2) eta inbertitzaile espezializatuak (%2,8) daude.

Azken hiru urteotan, ezagutzari lotutako zerbitzuetan diharduten ekimen ekintzaileak gehitu egin dira.

Euskal herritarrek uste dute ekiteko behar adinako prestakuntza, trebetasunak eta esperientzia dutela, baina baita negozio-aukera onak gutxitu egin direla pentsatzen dute ere.

Aurrera egin du ekintzailtza aukera profesional gisa legitimatzeak, haren onarpen sozial eta ekonomikoak, nahiz eta oraindik erreferentzia-eredua falta den.

Hauek dira ondoen baloratutako ingurunearen baldintzak: azpiegitura fisikoak eta zerbitzuetakoak, gobernuaren programa eta politikak eta merkataritza- eta lanbide-azpiegitura.

Gutxien estimatzen direnak Lehen eta Bigarren Hezkuntzaren paperarekin zerikusia dutenak dira, baita barne-merkatuan sartzeko oztopoak ere. (Bizkaia beaz, 2019)

#### **4.2. Ekintzailtza sustatzen duten motibazioak eta faktoreak**

Felipe Oelckers-ek (2015), Ekintzailtza koordinatzailea Adolfo Ibáñez Unibertsitatean, aurrera eramandako azterketa batean, ondorengo hauek identifikatu zituen 50 urtetik gorakoei ekintzaile izatera bultzatzen dieten motibazio nagusi bezala:

- Motibazioa, jarrera eta garapen berritzailea.

Gertatzen ari diren aldaketa sozio-demografikoak direla eta, 50 urtetik gorako pertsonak ekintzailtzari ekiteko presioa dute, "push", edo erakarriak dira, "pull". "Push" faktoreari dagokionez, hainbat arrazoiengatik dute ekintzaile izateko presioa: langabezian daudelako, ezin dutelako gizarte-onurarik lortu, pentsio txikiak dituztelako, lan-desadostasuna dutelako edo soldata txikiak dituztelako (Webster eta Walker, 2005).

McClelland eta konpainiak (2005) egindako azterketen arabera, zahartu ahala, pertsonak beren balioak eta bizitzari buruz duten ikuspegia aldatu egiten dute. Horri gehitzen badiogu duten lan-egoerarekin pozik ez daudela eta lan-merkatuan aukera handirik ez dutela, ekintzaitzari ekiteko erabakia hartzen dute.

Bestalde, negozio bat sortzera bultzatzen dituzten "pull" faktoreak daude. Faktore pila bat aurki ditzakegu, hala nola: aukera bat aurkitzea, independentzia bilatzea, seme-alabei herentzia bat uztea, lan-malgutasuna eta nagusirik ez edukitzea (Karoly eta Zissimopoulos, 2004; Webster eta Walker, 2005). Seniorrek ekintzaile izateko duten jarrerari buruzko azterketa enpirikoek ondorioztatu dute, lan-esperientziaren eta -karreraren arabera alde aurretiko jarrera ezberdina dela (Weber eta Schaper, 2004).

Ekintzaile bezala edo enpresa-kudeaketako jardueretan esperientzia eduki izanak negozio bat hasteko aurretiko joera handiago bat dakar (Kautonen et al., 2010). Hori Kautonen eta konapiniak (2013) egindako ikerketekin berresten da. Hauek ondorengo ondorioztatu zuten: adinaren eta ekintzaile izateko duten konpromisoaren arteko erlazioa neurri handi batean iraganean egindako ibilaldi profesionalaren arabera da.

Azterketa enpirikoak kontuan hartuz gero, baieztatu dezakegu azterketa hauek ondorioztatzen dutela ekintzaitza ez dagoela ezinbestean ekimen berritzaileekin lotuta (Pilkova et al., 2014), baina aukera baliagarria da pentsioak handitzeko, lan-bizitza luzatzeko eta lan-aukera ezari aurre egiteko (Kautonen, et al., 2008). Oso gutxi hedatu eta ikertu den arren, hirugarren adinekoen berritzeko gaitasuna oraindik ez da negozio berriak sortzeko iturri garrantzitsua, baina etorkizunean faktore garrantzitsua izango dela espero da. (Botham eta Graves, 2009).

- Ekintzaitza, pentsio eskasaren alternatiba.

Wainwright eta Kibler-en arabera (2013), hirugarren adinekoentzako ekintzaitzak interes berezia du pentsio txikiak osatzeko, edo errenta gehigarriren bat izateko erretiroko pentsioa oso egokia ez denean. Eredu berri horri erretiro hibrido baten bidez azaltzen da.

Erretiro hibrido horretan, pertsonak, erretiroko pentsioa izateaz gain, diru-sarrera bat lortzen dute ekintzailtzari esker haien etxeetatik (Clark, Munnell eta Orszag, 2006; Wainwright eta Kibler, 2013).

Hala, pertsona talde honen ekintzailtza erretiro-eredu bihurtzen da, batez ere pentsio txikiak dituzten hirugarren adineko pertsonentzat, iraganean soldata txikiak izateagatik aurrezteko zailtasunak izan dituztelako eta finantza-ezagutza urria dutelako. (Munnell, Sunden eta Taylor, 2002). Gainera, soldata hobeak dituzten eta lan-bizitza aktiboan gehiago aurrezteko lortu duten pertsonen kasuan, finantza-merkatuen aldakortasunak ez du bermatzen epe luzeko diru-sarrera egokirik (Froud et al., 2002). Beraz, aipatutako eredu horrek zentzu handiagoa izatea lortzen du (Wainwright eta Kibler, 2013).

- Giza kapitala, kapital soziala eta baliabide finantzarioetara sarbidea.

50 urtetik gorakoek, zalantzarik gabe, lan-esperientzia, administrazio-gaitasun onak eta ekintzaile izateko gaitasun tekniko onak dituzte (Singh eta DeNoble, 2003; Weber eta Schaper, 2004; Kautonen eta konpainia, 2008). Iraganean esperientzia ekintzailea izan dutenek aukera gehiago dute ekintzaile izateko, soldata apaleko jardueretan eta prestakuntza eta trebetasun gutxi eskatzen zituzten lanetan lan egin duten adinekoekin konparatuz. (Fuchs, 1982; Kautonen et al., 2010).

Bestalde, ikerketen arabera, kapital soziala hirugarren adinekoen ekintzailtza sustatzen ari da (Pilkova et al., 2014). Oro har, harreman-sare handiak dituztenek negozio berri bat garatzeko erraztasunak eta laguntzak izan ditzakete (Bacus eta Human, 1994; Bruin eta Firkin, 2001). Hala ere, harreman sareak denborarekin gainbeheran doaz, pertsonak erretiratu ahala (Botham eta Graves, 2009).

Singhek eta DeNoblek (2003) beren ikerketetan ondorioztatu zuten lan-bizitzan metatutako finantza-baliabideak etapa berantiarretako ekimenei laguntzeko diru-iturri garrantzitsu batean gauzatu daitezkeela. Pertsonak zahartzen diren heinean, arriskuak haien gain hartzeko joera areagotu egiten da, batez ere arrisku finantzarioak, jada ez baitute mendeko seme-alabarik. (Kiber et al., 2011). Gainera, azterlan eztabaidaezinak egin dira eta bertan diote garatutako herrialdeetako finantza-baliabideak dituztenek konpromiso handiagoa hartzen

dutela ekintzailtza garatzeko momentuan (Webster eta Walker, 2005; Singh eta DeNoble, 2003; Kibler et al., 2011).

- Ekintzailearen testuingurua eta zerikusia duten erakundeak.

Testuinguru ekintzaileak eta erakundeek oso rol garrantzitsua betetzen dute hirugarren adinekoen ekintzailtzaren garapenean (Mrva eta Stachova, 2014, Pilkova eta konpainia, 2014). Erakundeen teoriak, North-en arabera (1990), gizarte bateko joko-arauak irudikatzen ditu eta eragileek ekonomia batean garatzen dituzten ekintzak zehazten ditu. North-en arabera (1990), bi erakunde mota daude: formalak eta informalak. Lehenengo kontzeptuak zerikusia du legeekin, gizartearen jokabidea arautzen duen lege eta lege esparruarekin. Bigarren kontzeptua gizartean sortutako mugekin zerikusia duen gizarte-inguruneari dagokio, kulturaren parte baitira.

Erakunde formalei dagokienez, Pilkova eta konpainiaren azterlanak (2014) ondorioztatu zuen alde nabarmenak daudela hirugarren adinekoen ekintzailtza maila handia duten Europako ekialdeko herrialdeen eta ekintzailtza maila hain altua ez duten herrialdeen artean, batez ere fenomeno hori babesten duten erakundeen esku hartzeagatik.

Euskarri-politika zehatzak burokraziarekin eta negozio bat abian jartzeko zergekin zerikusia duten arloetan oinarritzen dira (Pilkova et al., 2014).

Kautonenek eta konpainiak (2009) gizarte-giroari buruz egindako azterketari dagokionez, ondorioztatu zuten faktore horrek garrantzi handia duela hirugarren adinekoen ekintzailtza bultzatzeko. Ildo horretan, familia inguruneak eta hurbileko lagunek negozio bat abian jartzeko prozesua erraztu edo oztopa dezakete.

Esperientzia ekintzailea izan duten familia eta lagun giroek adinekoen garapen ekintzailea babestu eta sustatu dezakete (Kautonen eta konpainia, 2009).

Gizarte bat adinekoei kulturalki irekitzeak ondorio positiboak ditu, izan ere, pertsona horiek jarduera ekintzaileetan parte hartzea lor dezakeelako (Weber eta Schaper, 2004; Kautonen eta konpainia, 2011).

- Zahartze aktiboa eta hezkuntza ekintzailea

Gai honek garrantzi handia du, izan ere Europako Batzordeak 2012. urtea zahartze aktiboaren urtea bezala izendatu baitzuen. Kiblerren eta konpainiaren (2012) ikerketen arabera, 50 urtetik gorako pertsonak zahartze dinamikoa lortu nahi dute, ekintzailatza lan-, diru-sarrera- eta aisialdi-balantza izanik.

Kibler eta konpainiaren arabera (2012), aipatutako oreka horren bilaketa funtsean bi alderditan ageri da: banakakoan eta gizartean. Lehenengoak lotura dauka lanpetuta mantentzen dieten jarduerekin, pentsioa osatzeko diru-sarrerak sortzearekin eta haien interesak garatzearekin, saltzen dituzten edo sal ditzaketen produktu edo zerbitzuetan haien balio pertsonalak sustatuz. Bigarrena, berriz, enpresa-erantzukizunak biloben zaintzarekin, gaixorik dauden senideen zaintzarekin eta boluntariotzaren bateratzeari buruzkoa da.

Era berean, kontzeptu hau gero eta garrantzi handiagoa duen hezkuntza ekintzailearekin lotuta dago. Fernández eta Rey-rekin (2010) bat eginez, estrategia politiko eta legegile bat finkatzen ari da, espiritu ekintzailea sustatzearen balioa argi eta garbi zehazten duena. Honek esan nahi du politika hori egokia litzatekeela kultura ekintzailea hezkuntzaren hasieratik hezkuntza-sistemaren azken mailetaraino txertatzeko, adin guztiak kontuan hartuz (Fernández eta Rey, 2010).

### **4.3. Ekintzailatza eragina duten oztopoak**

Aurreko puntuan aipatutako egia izanik ulertu behar dugu 50 urtetik gorakoek zenbait “oztopo” dituztela eta horiek ezagutu egin behar direla ekintzailatzari ekin aurretik. Oztopo hauek Padilla Góngora, Aguilar Parra, Díaz López eta Manzano Leon-ek (2016) egindako azterketatik identifikatuko ditugu.

Oztopo horiek, Kibler eta konpainiaren (2015) arabera, honako hauekin dute zerikusia:

- Enpresa-ezagutzak

Normalean, gizabanakoek beren aurreko lanarekin zerikusia duten jardueretan izan nahi dute ekintzaile, giza kapital handia dutelako; hala ere, beharrezko enpresa-ezagutza falta izan dezakete edota beren trebetasunak zaharkituta egon daitezke.

- Osasuna

Osasun-oztopo fisikoak eta kognitiboak handitu egiten dira pertsonak zahartu ahala, eta, ondorioz, haien interesa eta ekintzaile izateko gaitasuna murriztu egiten da.

Izan ere, fenomeno honek bizimodu desberdinekin talka egiten du eta negozio bat hasteko gogoia oztopatzen du. Weberrek eta Schaperrek (2004) ondorioztatu zuten adinekoek osasun- eta energia-maila apalak dituztela ekintzaile izateko. Gainera, Singh-ek eta DeNoble-k (2003) ezarri zuten, pertsonak zahartzen direnean eta osasun egoera zailtzen zaienean, aisialdiko jarduerak ez dira erakargarrik bihurtzen, negozio bat hasteko motibazioan negatiboki eraginez.

Bestalde, herrialde askotan gaixotasunagatiko aseguruak ezartzen ari dira hesi hori hautsi ahal izateko. Irtenbide honek gutxitu egiten du gizabanakoek gaixotzeko duten beldurra eta negozioak eskatzen dituen ordainketak betetzeko gai ez izateko aukera. (Oelckers, 2015)

- Kapital soziala

Dagoeneko erretiratuta dauden pertsona ekintzaileentzat zailagoa izan daiteke beren ibilbidean izan zituzten gizarte-sareak berreraikitzea, batez ere etxetik lan egiten badute.

Oelckers-en (2015) arabera, aipatzekoa da Kibler eta konpainiak (2011) egindako azterketa enpirikoaren arabera ondorioztatu dutela kapital soziala oztopo bat dela ekintzaileentzari ekiteko. Izan ere, jada aipatu den moduan, erretiratuta daudenek zailtasunak dituzte harreman-sare berriak garatzeko, batez ere etxetik negozio txiki bat proiektatzen dutenean. Erronka interesgarria da gizarte-trebetasun berriak garatzea, iraganean ezagututakoak ez bezalakoak (Halabisky, 2012). Batez ere, ekintzaileak gizabanakoak azken lanean garatutako lan-jarduerarekin zerikusirik ez duenean. Are gehiago konplikatzen da, kontaktu-sareak zaharkituta geratzen direnean, gizabanakoek denbora asko eman dutelako lanik gabe edo erretiratuta (Kibler et al., 2012).



- Pizgarri-gabezia finantzarioa

Erretiroaren diru-sarrerek batzuen enpresa-espirtua lausotu dezakete. Autoenpleguarekin, erretiroarekin alderatuta, diru-sarrera nahikorik ez lortzeko beldurratik.

Oelckers-en (2015) arabera, interesgarria da aipatzea zenbait herrialde garatuetan egindako ikerketek frogatu dutela zenbait gizabanako ez daudela hain prest eta ez dutela konpromisoa hartzen etorkizunean emaitzak emango dituzten jarduerak aurrera eramateko (Halabisky, 2012). Haien nahiago dute haien bizitzako etapa horretan aisialdiko jarduera gehiago egin eta gutxiago baloratzen dituzte etorkizunean sor daitezkeen onurak (Levesque eta Minniti, 2006). Egoera are gehiago korapilatzen da, erretiroagatiko diru-sarrerei lotutako estatu-onurek adinekoei ekintzaile izateko sustagarria kentzen dietenean. Aipatutako hau gertatzen da negozio batek erretiroagatik jaso lezakeenarekin alderatuta diru-sarrera nahikorik eskaintzen ez duenean. (Halabisky, 2012).

Kiblerrek eta konpainiak (2011) egindako ikasketetan adierazi dute adineko pertsonak beldur direla beren gizarte- edo pentsio-onurak galtzeko negozio batean diru-sarrerak lortzen badituzte.

Europako Batzordearen ikerketek (2012) frogatzen dutenez, Europar Batasuneko 55urtetik gorako pertsonen %59-ak uste du ez dela onuragarria 55 urtetik gorako adinarekin lanean jarraitzea, pentsio-sistemaren onurak direla eta.

Era berean, Singh-ek eta DeNoble-k (2003) egindako azterketek ondorioztatu zuten baliabide eta aberastasun handiak dituztenek ez dutela ekintzaile izateko interes handirik, eta aberastasuna ekintzailetzarako ez da pizgarria.

- Finantzazioa eskuratzeko aukera

Normalean gero eta adin altuenetara hurbiltzen garen heinean finantza-egoera egonkorra izan arren, hau ez da ekintzaile izateko pizgarria, izan ere, 60 urtetik gorako pertsonak finantzazioa lortzeko mugak dituzte.

Oelckers-en (2015) azterketak dioenez, Kibler eta konpainiaren (2011) arabera 50 urtetik gorakoek negozio bat hasteko finantza-baliabideak lortzeko dituzten oztopoak ez dira funtsean desberdinak beste ekintzaile batzuekin alderatuta.

Kautonenen arabera (2008), finantza-baliabideak eskuratzea askoz konplexuagoa da lanik gabe dauden edo pentsio txikiak jasotzen dituzten adinekoentzat, lanean ari diren eta, gainera, erretiro ona jasotzen duten adinekoekin konparatuz (Kautonen, 2012). Gainera, batzuek egoera finantzario sendoagoa dute, beren bizitzan aberastasunak metatu dituztelako. Egoera horretan, kanpoko finantziazio-iturriak alde batera utzi ditzakete, nahiz eta hau ez den kasurik ohikoena ekonomia berrietan bizi diren pertsonengan. (Kibler et al., 2012)

- Adinagatiko diskriminazioa

Kibler eta konpaniaren (2011) arabera, adina da enpresa-garapenari eragiten dion oztopo garrantzitsuenetako bat. Weber eta Schaper-ek (2004), Kauton eta konpainiak (2009) eta McKay-ek (2011) garatutako azterketen arabera, senior ekintzaile askorentzat, adina ez da oztopo ekintzaile izateko; izan ere, askok direna baino gazteagoak sentitzen dira, baina adinean oinarritutako diskriminazioa hautematen dute, haiengandik kanpoko hesia balitz bezala, eta horrek zaildu egiten du ekintzaile izatearen nahia.

Adin-bereizketa hau ez da modu abstraktuan gertatzen, oso modu zuzenean gertatzen baita. (Kibler et al., 2011). Kautonen-ek (2012) egindako ikerketen arabera, ondorengo pertzeozioa eusten du gizarteak: adinekoek ekonomia- eta lan-jardueretan parte hartu behar ez dutela.

Gainera, gizartearen begietara ez dira hain malguak, gutxi konprometitzen dira eta ez dira aldaketa teknologikoei aurre egiteko gai. Aurreko hau oztopo handia izan daiteke haien enpresaren irudi eta jasangarritasunerako.

Kiblerrek eta konpainiak (2012) egindako ikasketek ezarri zuten zenbait bezerok zalantzan jartzen dituztela adinagatik ondasunak eta zerbitzuak emateko dituzten trebetasunak. Hori oztopo bat da aukerak aprobetxatzeko eta negozio bat garatzeko (Kibler eta konpainia, 2012). Egoera horrek okerrera egin du emakumeen taldean. Gaur egun, oso gutxi dira 5 urtetik gorako emakumeek garatutako negozioak (Halabisky, 2012).

McKay-ek (2001) egindako ikerketen arabera, gizarteak oraindik ere uste du emakumeek familiako kideen zainketan parte hartu behar dutela, eta ezin direla ekintzaile izan. Hain zuzen, McKay-ek ondorioztatu du (2001), familia-zaintzako

erantzukizunek eragin garrantzitsua dutela 50 urtetik gorakoek ekintzailertzan, bai enpresa sortzeko fasean, baita ondorengo etapetan ere. Hart-ek eta konpainiak (2004) egindako azterketen arabera, emakumeek aukera gutxiago dituzte gizonezkoek baino. (Oelckers, 2015)

- Denboraren erabilera

Sarritan, adin jakin batera iristean gizabanakoak ez daude prest arriskua sortzen duten jardueren denbora eskaintzeko, hala nola, enpresak sortzea. Nahiago dituzte aisialdiko jarduerak edota soldatapeko lana.

- Kontzientzia ekintzaile eza

50 urtetik gorako pertsona askok soldatapeko lana eginez pasatu dute bizitza osoa eta ez dira ohartzen autoenpleguak dituen onurez, gainera ez dute prestakuntza ekintzailearen inguruan informaziorik jaso.

Oelckers-en (2015) txostenak dioenez, Baucusek eta Humanek (1994) egindako ikerketen arabera, 50 urtetik gorakoek abian jartzen dituzten negozioei laguntza ematea oso lagungarria izan daitekeela zenbait oztopo gainditzeko, batez ere, lehen aldiz lan egiten duten eta diru-sarrera egonkorrik ez dutenentzat. Hala ere, Kautonen-en esanetan (2012), askok negozio bat aurrera eramateko ezagutzak eta trebetasunak dituztela sentitu arren, oso zaila da aholkulari eta “coach” onak edukitzea. Seniorren errealitatea ezagutzen duten mentore onak ez izatea oztopo garrantzitsua da ekintzailertzari ekiteko (Kautonen, 2012).

#### **4.4. Zer da ekintzaileek behar dutena?**

50 urtetik gorako pertsonen ekintzaile izatera bultzatzen dieten motibazioak zeintzuk diren eta bide batez, ekintzaile izateko oztopoak zeintzuk diren ezagutu ondoren, hurrengo lerroetan, azalduko dugu zer den ekintzaileek benetan behar dutena falta zaien motibazioa edukitzeko edota aipatutako oztopoak desagertzeko.

Enpresa-jarduera orokortua badago ere, bada pertsona-talde garrantzitsu bat, enpresaburu bihurtzeko aukera ez dena aukera bat kontsideratzen. Talde horrentzat, kontzientzia sortzea beharrezko estrategia bat da. Adituek ohartarazi dute beharrezkoa dela kontzientziazio-programak sortzea. Horien

artean sartzen dira ohiko lana galdu duten senior eta adineko langileekin lan egiten duten birkokatze-erakundeak, gizarte-zerbitzuetako agentziak, Gizarte Segurantzako Administrazioa bezalako gobernu-agentziak eta beren arloetan presentzia nabarmena duten enpresa-garapeneko tokiko agentziak.

Honako hiru hauek dira hiru faktoreak:

### Laguntza teknikoa

Senior enpresaburuek behar bereziak dituzte. Adibidez, oro har, gazteenek baino trebetasun tekniko gutxiago dituzte, finantza-arriskurako tolerantzia mugatua dute eta haien merkataritza-enpresetarako denbora laburragoa dute. Ekintzailetza talde-esfortzutzat hartzen da, eta, askotan, familia- edo belaunaldi-arteko ahalegintzat. Familiako kideak edonoren eskura egon ohi diren arren, beste pertsona batzuekin taldeak sortzeko, gehienentzat eskuragarri ez dauden sareak behar izan daitezke. Adibidez, zaila da aurkitzea, teknologia ezagutzen duten enpresaburu gazteak, bazkide nagusiekin elkartuta. Nahiz eta, egoera honetan onuradun handienak izan, izan ere, adinekoek eskarmentu handia dute eta hobeto finantzatuta daude.

### Gizarte laguntza

Enpresaburu seniorrentzako beste behar garrantzitsu bat gizarte-laguntza da. Oso lan handia da ekintzaile bihurtzeko lanari ekitea pertsona seguru sentitzen ez bada eta autoestimua txikiko aldia jasaten ari bada. Gizarte-laguntzak arazo horiek arintzen dituela erakusten duten ebidentzia ugari dago, hala nola, taldeak, aholkularitza, beste batzuek erabiltzen dituzten aurre egiteko estrategia arrakastatsuak ezagutzea eta antzeko egoeretan dauden beste batzuek osatutako gizarte-sare bateko kide izatea.

### Gobernu politikaren aldaketak

Ekintzaile bihurtzen den senior batek arrakasta izateko aukera gehiago izateaz gain, ekonomiari negozio berriak eta lanpostu berriak sortuz laguntzeko aukera ere badu. Ahalegin batzuk, batez ere European, goi-mailako enpresa-ekimena bultzatzen eta babesten hasi dira. Europar Batasuna izan zen 50 urtetik gorakoan artean enpresa-espirtua sustatzeko ekimen politikoak sortu zituen lehen gobernu-erakundeetako bat. Adibidez, SeniorEnterprise.ie, Irlandan,

Europar Batasunak Interreg IVB NWEren bidez babestutako ekimena da, 50 urtetik gorakoek enpresan parte-hartze handiagoa izan dezaten sustatzeko diseinatua.

Honek negozio bat abiarazi dezake, bakarka edo beste bazkide batzuekin, negozio bat erostea edo bertan inbertitzea eragin dezake eta ekintzaile bati aholkuak ematea edo hirugarren baten negozio baten barruan berrikuntzekin laguntzea. (Martín, 2018)

## **5. Zilar ekonomia gertuagotik**

Atal honetara iritsi arteko teoria jada barneratu dugunez esparru teorikotik urruntzeko eta errealitatera ahalik eta gehien hurbiltzeko asmoarekin, senior ekitzaitzaren eta zilar ekonomiaren errealitatea gertuagotik ezagutuko dugu ondorengo lerroetan mundu honetan murgilduta dagoen pertsona baten hitzak oinarri bezala hartuz.

Koldo Aulestia, elkarrizketatua, AFAGI (Asociación de apoyo a familiares de personas con Alzheimer) elkarteko lehendakaria da. Elkartea 1991. urteko azaroaren 19an sortu zen, baina 2000. urterarte ez zuen bertan bere boluntariora hasi, 52 urte zituenean zehazki.

AFAGI, Gipuzkoako Senitartekoen, Lagunen eta Alzheimerra edo beste dementziaren bat duten Pertsonen Elkartea, izaera pribatua duen erakundea da, eta Alzheimer gaixotasuna edo bestelako dementziaren bat duten gaixoen eta euren senitartekoen bizi-kalitatea hobetzea du helburu. (AFAGI, 2020)

Esan bezala, 1991n sortu zen, gaixotasun honek eragindako familia gipuzkoarren bozeramaile eta defendatzaile bilakatzeko xedearekin. Sorrera unetik gaur egunera arte Elkartearekin lanean aritu diren senide eta profesionalak buru-belarri aritzearen ondorioz sortu eta hazi da elkartea. (AFAGI, 2020)

Beste hainbat zereginen artean, AFAGI bere kideen jarduerak koordinatzeaz arduratzen da. Halaber, dementzia honek eragindako guztien -senide eta gaixoen- bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko proiektuak burutzen ditu. (AFAGI, 2020)

**“Alzheimerraren aurrean, ez zaude bakarrik”**. Lelo zuzena, lanerako filosofia bat, AFAGIren benetako izaera laburbiltzen duena. Eta lelo hori zabaldu eta iraun dezan nahi dute, edozein pertsonak haien laguntza behar duten guztietan. (AFAGI, 2020)

Beste elkarte batzuk bultzatu dituzte, hala nola, Aubixa fundazioa, honen helburua. 2016an sortzen da. Dementzien eta, oro har, zahartzearen arazoak dakarren erronkari aurre egin nahi dieten boluntarioen sarea da. (AFAGI, 2020)

Elkarrizketatuaren kasuan, familiako kide bati Alzheimer gaixotasuna diagnostikatu ondoren elkartera hurbiltzea erabaki zuen eta horren ondorioz bertan bere boluntariotza hasi zuen, elkarteko buru bilakatu den arte. Berak dioen bezala “errealitate ezezagun bati egin behar nion aurre, eta AFAGI-ren eskutik jaso nuen harrera eta laguntzari esker, urte horretan bertan hasi zen nire boluntariotza jarduera erakundean”.

Elkartean hasi zenean bere helburu nagusia ondorengo zen: “Alzheimerraren ondorioak pairatzen dituzten pertsonen, gaixoen eta senide zaintzaileen bizi-kalitatea defendatzea”.

Horrelako elkarteek noski eragina dute zilar ekonomian, kontuan izan behar dugu, gaur egun Alzheimerraren munduan 30 urtez lan egin ondoren eta 1.200 elkartekide baino gehiago edukiz, AFAGIk oso ondo ezagutzen dituela kaltetutako familiek dituzten beharrak, bai gaixoari dagokionez, bai familiako zaintzaileei dagokienez; halaber, behar diren kanpoko laguntza-baliabideak, bai boluntarioak eta baita profesionalak ere. Horietako batzuk AFAGIk landu ahal izango ditu eta laguntzen ditu, baina beste batzuk kanpoko agenteenak izango dira. Aurreko hori erakundeei helarazita, zilar-ekonomian eragina edukitzea eragiten du.

Zilar ekonomia jada aipatu dugunez, elkarrizketatuak horrela definitzen du zilar ekonomia: “Biztanleriaren zahartzearekin batera, adineko pertsonen zuzendutako produktu eta zerbitzuen behar berriak sortzen dira, haien bizi-kalitatea hobetzeko, ahalik eta denbora gehien independentzia izateko eta bizi-itxaropena luzatzeko.

Zilarrezko ekonomia adinarekin lotutako behar ekonomiko, teknologiko eta industrial berriei erantzuten dien kontzeptua da, ekonomiarako eta industriarako eremu bat irekitzen baitute”.

AFAGI, lanean zehar aipatutako Etorkizuna Eraikiz proiektuan parte hartzen duen eragileetako bat.

Proiektuaren helburu nagusia da belaunaldien arteko lankidetzarako eta boluntario adituentzako ‘sareen sare’ bat zabaltzea Gipuzkoan, zahartzeak, Alzheimerrak eta beste dementsia batzuek dakartzaten erronkei aurre egiteko, lurraldearen gizarte-eraldaketa solidariorako ekarpen gisa. (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2019)

Proiektua AFAGI, AUBIXA FUNDAZIOAK eta 125 boluntariok proposatzen dute. Boluntario horiek profil aditua eta belaunaldi artekoa duten boluntarioen talde zabala ordezkatzeko dute. (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2019)

Koldoren ustez, zahartzeak dakarren guztiari erantzuteko ardura administrazio publikoena dela kontuan hartuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak koherentzia erakutsi du Adinberri proiektua bultzatzean.

Baina bere ustez ere, Gipuzkoan esku hartzen ari diren gainerako eragileek erantzun horren erantzule sentitu behar dira, elkarreragina erraztuko duten sinergia positiboak bultzatuz. Argi izan behar dugu denok behar garela, batzuen indarrekin besteen ahuleziei aurre egin ahal izateko.

Adinberri “guztion ondare” gisa sentitzen ez badugu, zerbait gaizki egingo dugula dio Koldok.

Dioen bezala, sinergia positiboak bultzatu behar dira, baina elkarrekin, fundazioek, etabarrek baliabide eta laguntza nahikoak dituzten jakin beharko genuke lehenik eta behien. Elkarizketatuak aurreko hau argi dauka. Argi dauka ez dela nahikoa elkarrekin edota fundazio desberdinei ematen zaien laguntza, bai monetarioa, baita ez-monetarioa ere. Baina ikuspegi guztiz errealista erabiliz dio, egungo sistema ekonomikoak gizarte zahartuak dakarren guztia jasan ote dezakeen edo ez galdetzen diola bere buruari. Ildo beretik, gaineratzen du, Gipuzkoak, hirugarren sektorearen jardura altruista garrantzitsuari esker, gizartearen zahartzeak dakartzan behar zehatz batzuei erantzuna ematen hari zaiela. Hau horrela ez balitz, egoera zail baten aurrean aurkituko ginateke.

Aipatutako jarduera altruista hori gizartearen zahartzearen inguruan dagoen kontzientziarekin lotu dezakegu. Garrantzitsua da jakitea zer den biztanleriak pentsatzen duena gizartearen zahartzearen inguruan. Lanean aipatu dugun bezala, jende askok kontzeptu negatibotzat du gizartearen zahartzea eta ez dira ohartzen ekarri ditzakeen aukeraz. Koldoren ustez, emakumea lan-merkatuan sartzearekin batera, biztanleriaren pertzepzioa aldatzen ari da, batez ere gure adinekoak familia ingurunean eduki beharrak eraginda, gure bilobak zaintzeko beharretan lagunduz.

